


A solid teal vertical bar on the left side of the page.

Aberastasuna zergapetzeko proposamen berriak Europar



Izenburua:

Aberastasuna zergapetzeko proposamen berriak
Europar



Gipuzkoako Foru Aldundia, Ogasun eta Finantza
Departamentua

Lege Gordailua: SS-242-2015

ISBN: 978-84-7907-728-0

Eztabaida fiskala sustatzea eta jendartean zabaltzea izan da legealdi hasieratik Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak ezarritako helburuetako bat. Asmo horrekin, azken hiru urteotan hainbat ekimen jarri ditu abian departamentuak; besteak beste, UPV/EHUrekin lankidetzan "Aberastasuna zergapetzeko proposamen berriak Europan" antolatutako udako ikastaroa. Kurtsoaren harrera onak, aurkeztutako ponentzien interesak eta aberastasunaren zergapetzeari buruzko artikuluen urritasunak bultzatuta, ikastaroan aurkeztutako materialarekin liburu bat osatzeari ekin genion. Hizlarietara haien ponentziak erredaktatzeko eskatzerakoan jarrera ezin hobea erakutsi zuten, eta horrek ikaragarri erraztu du eskuartean duzuen liburua egitea. Modu batera edo bestera, eskerrak eman beharrea gaude liburu hau osatzeko orduan haien ekarpena egin duten pertsona guztiei, batez ere ikastaroetako hizlarietara, erredaktatzen eman duten denboragatik. Espero dugu liburu hau fiskalitateari buruzko eztabaidan sakontzeko lagungarria izan dadila, bai arlo akademikoan eta bai arlo sozialean, baina hori irakurleen esku dago.

Aberastasunaren gainekeo zergaren balio politikoa

Helena Franco

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatua

1. Aberastasunaren gainekeo zergaren balio politikoa.
2. Aberastasunaren gainekeo zergaren inguruko eztabaidarik eza
3. Aberastasunaren gainekeo zergaren zentzu politikoa
4. Aberastasunaren gainekeo zerga Gipuzkoan
5. Lehen indargunea: "babes fiskal" deitua desagertzea
6. Bigarren indargunea: enpresa ondasunentzako salbuespenaren orde z hobaria
7. Zergadunen ihesaren tesia

1. Aberastasunaren gaineko zergaren balio politikoa

Munduan, 85 pertsona aberatsenek daukaten aberastasuna 3.500 milioi pertsona pobreenek (hau da, munduko biztanleriaren erdiak) daukatenaren parekoa da; Espainiar estatuan, 20 pertsona aberatsenek daukaten aberastasuna % 20 pobreenak (8 milioi pertsonak) daukanaren parekoa da.

Gipuzkoara etorri, 7.818 pertsonak, hau da, biztanleriaren % 1,1ek, 1 milioitik gorako ondarea daukate; eta horien artean % 2k (hau da, biztanleriaren % 0,00022k) 10 milioi eurotik gorako fortunak dauzkala, aberastasun metatuaren ia-ia % 20 dauka. Gauzak garbiago esanda, 155 pertsonak 3.346 milioi euroko ondarea aitortzen dute.

Datu hauek eta beste batzuk aurkeztu zituzten Gipuzkoako Foro Aldundiak bultzaturik abuztu amaieran egin ziren aberastasunaren gaineko zergari buruzko jardunaldietan. Datu zalantzagabeak, sistematikoki ezkututzen diren datuak, baina errealitatea burugogorra da, eta behin eta berriz ateratzen da argitara.

Aberastasuna gero eta gehiago kontzentratzeko joera ez da mendebaldeko ekonomiak gaur egun igarotzen ari garen krisialdiaren berezko ezaugarri bat, nahiz joera horrek daukan inplikazioak askoz agerikoagoak egiten diren zailtasun garaietan, onaldietan baino. Gainera, azterketa berrien arabera azken urte hauetan zehar joera horren areagotze bat ari omen da ikusten, eta horrek berekin dakartza, zuzenean, gizarte polarizazio handiago bat eta pertsonen arteko desberdintasunen areagotze bat, herrialdeen eta nazioarteko harremanen egonkortasun politiko eta sozialerako izan daitezkeen arriskuekin batera, inolaz ere.

Gure obligazioa interes orokorra, hots, herritarren ongizatea zaintzea den neurrian, horrelako errealitateen aurrean joera horiei aurre egitea bilatzen duten politika ekonomikoko neurriak hartzea eta jarduerak jorratzea dagokigu arduradun politikooi. Eta horretarako birbanaketarako mekanismo eraginkorrak behar dira, sortzen diren errenta berriei zein aberastasun metatuari aplikatzeko. Gastu soziala mantentzera eta hobetzera zuzendutako politikek, lan eskubideak babestekoek edo sistema finantzarioaren gainean kontrol eraginkorra zertzekoek, osagarri behar dute zerga politikaren arloko jarduera kementsu bat, betiere zerga sistema zuzen eta bidezkoagoak eta progresiboagoak itxuratzen begira.

Alabaina, eta zoritxarrez, gobernu gehienek inplementatu dituzten errezetak nabarmen urruntzen dira interes kolektiboaren defentsatik. Gastu publikoan austeritate politiken bidea hartzen da, lan eskubideak eta eskubide sozialak murriztekoa, langileen baliabideak enpresa handi eta finantza erakundeetara transferitzekoa, edo gehien dutenentzako zerga murrizpenena; azken batean, jarduera publikoa ulertzeko modu bat nagusitzen da, eta horrek, sistema kapitalistaren bidegabekeriak zuzendu beharrean, areagotu besterik ez ditu egiten, gero eta desberdintasun sozial handiagoa eraginez.

2. Aberastasunaren gaineko zergaren inguruko eztabaidarik eza

Aberastasunaren gaineko zerga handiago baten exigentzia azken hamarkadetan eztabaida teorikotik zein aplikazio praktikotik ia-ia erabat desagertuta dagoen elementu bat da. Izan ere, aberastasun handia dutenen interesak nagusitu dira, gutxi izan arren botere ekonomiko handia metatzen duten horienak; botere handia, eta ez dute zalantzarik egin botere hori bere beharren neurrira prestatutako esparru juridikoak eta zerga araudiak prestatzeko erabiltzeko. Horrela, pitinka-pitinka aberastasunaren gaineko zerga mota guztiak kentzea edo minimora eramatea lortu dute. Hori bai, establishmentari lotutako politikoen aldetik laguntza paregabea jasota, eta mundu akademikoko korrante nagusietatik eta hedabide handietatik bultzatutako kontrol ideologiko mediatikoaz, betiere aberatsentzat ona dena denontzat ona dela sinestarazi nahi baitigute.

Zorionez, batzuk ez gaituzte konbentzitu. Jakin badakigu zerga ereduak estu-estu lotzen zaizkiola lortu nahi den eredu ekonomiko eta sozialari; eta oinarrizko elementua direla merkatu-indarretatik (uler bedi 'botere ekonomikoa duen gutxiengo horrek hartzen dituen erabakietatik') eratorritako ondorioen aurrean modu kolektibo baten eragiteko. Gizarte polarizazioaren aurrean, gizarte kohesionatuagoak nahi ditugu, desberdintasun txikiagokoak, eta horrek sektore publiko sendoa eta fiskalitate bidezko eta modernoa behar ditu.

Horregatik, Gipuzkoako Foru Gobernutik aukeratzat ez, baizik eta obligaziotzat hartu dugu zergen inguruko eztabaida gizartera zabaltzea. Zeren eta, pertsona guztioi eragiten digun kontu bat izateaz gain, ez baita egia gauza tekniko eta neutral bat denik, ezta fiskalitate posible bakarra dagoenik ere. Eta horiek guztiak behar beste garrantzia duten arrazoiak dira, hain zuzen ere uler dezagun herritarrek eskubidea dutela zerga proposamen desberdinak, eta horiek dituzten alderdi onak eta txarrak, ezagutzeko.

Gainera, jarrera politikoki zintzo eta koherente batetik, ez deritzogu nahiko bakar-bakarrik ideien esparrura mugatutako eztabaida bati. Mugimendua oinez erakusten da, eta ildo horretatik, gure jarrera teorikoez lagun eta sendogarri izan dute erakusten zutenarekin bat zetorren, hots, erakusten zuten horrekin kontsekuentea zen praktika bat.

Abiapuntutzat, oinarrizko premisa bat: ez da zerga sistema bidezkorik izango, aberastasunaren gaineko tributazioaren gaiari serio ekiten ez zaion bitartean. Legegintzaldiko lehen egunetik, Martin Garitano buru duen Gipuzkoako foru gobernuak zalantzarik ez zuen egin esparru horretan jarduteko beharraren gainean; hala, lehenik 2011 eta 2012an berrezarri egin zuen Ondarearen gaineko Zerga, eta zerga berri bat ere diseinatu zuen, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga (AFHZ), 2013ko urtetik aurrera aplikatzekoa, aberastasun errealaen gaineko eta, horrenbestez, zergadunen benetako ondare balioaren arabera tributazioa bermatzeko. Era berean, hainbat aldaketa sartu ziren dohaintza eta oinordetzen gaineko zergan, edota erabiltzen ez diren ondasun higiezinaren gainekoan.

Beraz, ikuspegi horretatik eta herritarren ongizateari eta gizarte antolaketa modernoago eta aurreratuago bat eratzeko bidean ekarpen bat egiteko konbentzimendutik sortzen da aberastasunaren gaineko tributazioari lotutako gure gogoeta. Gogoeta horixe dugu gure proposamen asmo handikoen eta ausartena izan dena, AFHZ alegia, prestatzeko eta inplementatzeko inspirazio iturri nagusia; hurrengo lerrootan horren azalpen zehatzago bat egingo dugu.

3. Aberastasunaren gaineko zergaren zentzu politikoa

Aberastasunaren gaineko tributazioa berrezartzearen egokitasuna oro har zalantzan jartzen ari den testuinguruan, are garrantzitsuagoa zaigu zerga horien ekarpen soziala definitzea.

Aberastasunaren gaineko zergek, oro har, eta iritzi zabalduaren kontra, ez diote lehenik zerga presioa areagotzeko helburuari erantzuten, eta ez dute zerga bilketan hobekuntza nabarmenik lortu nahi (hori ere tartean dagoen arren). Izan ere, zerga horien bilketa ahalmena ez da oso garrantzitsua, irismen zabalagoko, beste zerga batzuenarekin alderatuta, esaterako BEZ edo PFEZ.

Dena den, funtsezko eginkizuna betetzen dute zerga sistemak legitimatzeko elementu gisa gizarte justizian oinarritutako estatu baten garapena bermatzeko ezinbesteko pieza direnak. Zehazki, aipatzen ari garena zera da, zerga bilketaren parte handiena herritar multzoarengandik lortzen bada ere, funtsezkoa dela herritar horiek guztiek, eta batez ere baliabidez urrien dabiltzanek, konfiantza izatea zerga sisteman, benetan sinestea alegia sistema horren izaera progresibo, justu eta bidezkoan. Horretarako, ezinbestekoa da ahalmen ekonomiko handiagoa dutelarik ongizate orokorrari ekarpen handiagoa egin diezaioketenei exijentzia maila handiago bat ezartzea.

Eta hain zuzen ere ikuspegi horretatik hartzen dute zentzua ondarearen gaineko zergek, zeren eta denok baitakigu aberastasuna izateak botere ekonomiko handiagoa ematen diola, inolako zalantzarik gabe, aberastasun horren titular denari; ahalmen ekonomiko osagarri horrek justifikatzen du "afortunatu" horiei tributazio osagarri bat exijitzea.

Dena den, ondareak zergapetzen dituzten zerga figurak ezartzetik ondorioztatzen diren aldeko eraginak ez dira, noski, legitimazio eginkizunera mugatzen. Alde batetik, aberastasunaren gainean zertzen duten zentsu eginkizuna eta kontrol demokratikoa azpimarra daiteke, lurralde batean metatutako ondare eta fortuneen gaineko ezagutza zehatza eta sistematizatu izatea ahalbidetzen baitute, horien banaketan eta osaketan gertatzen diren aldaketen gainekoarekin batera.

Era berean, aberastasunaren gaineko zerga modernoagoen kasuan, balio dute aberastasunaren erabilera produktiboa sustatzeko, aberastasun hori osatzen duten ondasunak erabilerarik gabe mantentzearen edo horiei beste erabilera espekulatibo batzuk ematearen aurrean.

Azkenean, ondare eta oinordetzen gaineko zerga politika birbanatzaile bat ezinbesteko tresna da aberastasuna metatzea bridatzeko. Izan ere, gero eta ageriago dago norabide horretan aurrera egiteko ez dela nahikoa urtetik urtera sortzen diren errenta berriak modu gutxi-asko progresibo batean zergapetzea; horretaz gain, aberastasun metatua eta aberastasun hori transmititzeko formak ere zergapetu behar dira halaber (normalean pertsona eta familia jakin batzuetan gero eta gehiago kontzentratzera jotzen baitu). Betiere gastu publikoaren aldetik bermatu behar den ezinbesteko osagarritasuna ahanzteke, "deskontzentratze" ahalegin hori sendotzen duten gastu politiken ildotik joz.

4. Aberastasunaren gaineko zerga Gipuzkoan

Gizartean aurkeztu denez geroztik, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga (AFHZ) eraso guztien erdigune bihurtu da, hain zuzen ere aberastasunaren gaineko zergak ez zaizkielako gustatzen, oro har, aberastasun horien jabe direnei; are gutxiago kasu honetan, zeren eta zerga ongi eginda dagoenez itxi egin baitzaizkie atea ondare zergek fortuna handien tributazio light bat ahalbidetzeko eduki ohi dituzten ihesbide nagusiei, eta horrenbestez Gipuzkoako AFHZn norberak daukanaren arabera tributatzen baita.

Izan ere, fiskalitatearen azterketan aritzen diren pertsonak ongi dakite ondareen gaineko zergak, izan ohi duten diseinuaren ondorioz, erdi mailako ondareak zergapetzeko tresna bihurtzen direla azkenean. Diseinatuta dauden moduan, azkenean ez da ez berdin ordaintzen aberastasun maila berberak izanda ere, eta gehien daukatenek ere ez dute proportzionalki gehiago ordaintzen.

Oro har gauza onartua da, halaber, zerga justiziazko ikuspegi batetik aberastasunaren tributazioan ekitate eta progresibotasun printzipioak ahultzen eta urratzen dituzten elementuak funtsean bi direla: "babes fiskal" bat ezartzea, eta ondasun mota jakin batzuetarako, enpresa ondasun edo ondasun profesioletarako alegia, zerga salbuespenak sartzea.

Alabaina, zerga horien ahulune nagusiak behar bezala identifikatu arren, arlo honetako aditu gehienek eta klase politiko ia-ia osoak gauza bera ondorioztatzen dute: muga horiek direla-eta onena zerga horiek kentzea dela; eta oso gutxi dira, aldiz, egungo eraginkortasun falta eta distorsioak zuzentzeko zerga horiek aldatzea eta erreformatzearen alde egiten dutenak, horrela aberatsenen pribilegioak mantendu beharrean interes orokorraren alde eginez. Gipuzkoako Foru Gobernuaren zerga apustua bigarren talde horretan kokatzen da.

Gipuzkoako AFHZk arestian aipatutako bi esparru horietan mamizko aldaketak sartzen ditu bere inguruko ondarearen gaineko zerga figurekiko; ondorioz aldaketa horiek, elementu berezile horiek, kritika mediatiko eta politikoaren jomugan kokatzen dute.

5. Lehen indargunea: "babes fiskal" deitua desagertzea

AFHZn kendu egiten da babes fiskala; hau da, ezabatu egiten da PFEZ eta Ondarearen gaineko Zerga direla-eta zergadunak ordaindu beharreko kopuruari hark berak aitortutako errentaren arabera aplikatzen zitzaion topea.

Gauzak hobeto ulertzeko, esango dugu babes fiskala ondare izugarria daukaten baina horretatik oso errenta gutxi ateratzen duten pertsonentzat dagoela pentsatuta; errenta gutxi ateratze horren atzean egon daiteke, adibidez, higiezinak hutsik edukitzea, alokatuta eduki beharrean, edo dirua inbertsio fondoetan inbertitzea (horiek ez dute onurarik banatzen ekitaldi amaieran, metatzen joaten baitira, eta partaidetza saltzen denean agertzen). "Babes" horri esker pertsona horiek oso ekarpen txikia egingo liekete kutxa publikoei.

Aldaketa horren aurrean, babesaren aldekoak, ondare horrek onurarik ez sortzearen arrazoiak baloratu gabe, mugatu egiten dira Gipuzkoako AFHZ konfiskaziozkoa dela aurpegiarazera, errenta gutxi daukan batek bere ondasunen parte bat saldu beharko lukeelako zerga hori ordaindu ahal izatearren.

Alabaina, jarrera hori zail da justifikatzen, tributazioaren gehienezko topea % 1koa baita (zerga tasa maximoa), kapitalaren batez besteko errentagarritasuna % 4-5 ingurukoa denean, hainbat herrialdeetarako egindako hainbat azterlanetan egindako behaketa eta kalkuluen arabera. Hau da, nahi duenak erraz lor dezake bere ondaretik bere obligazio fiskalak (eta gizalegezkoak) ase ahal izateko behar besteko etekina.

Baina kontua da babesa mantentzeak tarte handia ematen diola ingeniarietza fiskalari, eta aldi berean ondasunak ezertan ez edukitzea sustatzen du, hau da, ondarea modu produktibo batean ez erabiltzea (erabilera produktiboa izanez gero jabeak irabaziak izango ditu, eta errentaren gaineko zerga ordaindu beharko du, eta ondarearen gainekoan ere gehiago ordainduko du).

Babesaren onuradun nagusiak batez ere fortuna handiak dira; eta horien klase interesen defentsatik bultzatzen eta garatzen da zerga hori mantentzearen komenientziaren inguruko diskurtso zeharo demagogiko bat.

6. Bigarren indargunea: enpresa ondasunentzako salbuespenaren ordezkaria

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu duen Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga berriaren bigarren berrikuntza garrantzitsuena jarduera ekonomikoei eta famili enpresei atxikitako ondasunentzako salbuespena kentzea da; horren ordezkari, % 75eko hobaria jasotzen du.

Funtsean, bi egoera espezifikori lotutako ondarezko ondasun batzuei eman beharreko tratamenduari buruz ari gara, egoerok baitira:

Batetik, jarduera edo lanbide jakin batean ari diren pertsonena. Egungo ondare zergetan, jarduera ekonomiko horretarako erabiltzen diren ondasun guztiak salbuetsirik daude, hau da, ez dira aitortzen; horrela zabala da, benetan, pikareskak bere duen eremua (ohiko adibide genituzke garajeak eta ibilgailuak).

Dena den, zergaren ekitatean sor ditzakeen distortsioak direla eta, garrantzitsuago deritzogu bigarren egoerari: bere kideen artean enpresa bat duten familien kasuan gertatzen da, famili enpresa deituen kasuan alegia (terminoa nahasgarri gerta badaiteke ere, ez dute zertan enpresa txikiak izan). Famili enpresak ditugu, esate baterako, Inditex ehungintzako enpresa, El Corte Inglés banaketa-katea, edo L'Oréal taldea.

Eta bi aukera dauzkagu: "indibiduala" izatea (pertsona bat denean, enpresa horretako partaidetzetatik gutxienez % 5 daukana, gainera bertan lan egiten duena, eta lan horretatik ateratzen dituelarik daukan sarrera guztietatik gutxienez erdia); edo familia bat izatea, betiere terminoaren zentzu zabalean ulertuta, bere kideek elkarrekin enpresa baten gutxienez % 20 daukatenean, eta gutxienez familia handi horretako kideetako batek zuzendaritza-lanak egiten eta, horrenbestez, daukan sarrera guztietatik gutxienez erdia lan horretatik ateratzen duenean. Azpimarratzekoa da, bigarren kasu honetan, familia osoaren partaidetza dela, eta ez bakarrik enpresan lan egiten duen kidearena, beste enpresa edo finantza partaidetza modu batzuek duten zerga tratamenduaz bestelako bat edukiko duena.

Herialde gehienetan, horrelako ondasunek aldeko fiskalitatea daukate, gaur egun salbuespenaren bidez bereziki. Horretarako justifikazioaren abiapuntua ez da soilik ondasun horiek ekonomia produktiboari egiten dioten ekarpena aintzatestea, baizik eta, batez ere, horien jabeek inplikazio pertsonal handiagoa izatea eta arrisku maila handiago bat bere gain hartzea.

Joera horrekiko sentikor jokatzuz, Gipuzkoan ere tratamendu espezifikoa jasotzen dute, gure kasuan hobariaren bidez, salbuespenaren bidez izan beharrean. Izan ere, AFHZN kapital horiek zergadunen ondare aitortuaren parte dira, nahiz hobaria izango duten aberastasuna edukitzeko beste modu batzuekin (izaera espekulatiboagoko aktiboekin edo erabilerarik gabeko ondareekin) alderatuta.

Hala, bakar-bakarrik ondasun horien balioaren % 25ek tributatzen du, hau da, % 75eko hobaria dago (beste era batean esanda, zerga horrekin bere enpresan inbertitzen dutenek gehienez % 0,25 ordainduko dute bere enpresan inbertitzen duten aberastasunagatik; aldiz, aktibo finantzarioetan inbertitzen dutenek % 1eko maximoa ordaindu beharko dute). Eta 0,25eko hori txikia izan daiteke, noski, negozio txiki baten kasuan, edo kopuru garrantzitsua enpresa handi bati buruz ari garenean.

Gauzak horrela, ondasun horiek AFHZn ere abantaila garbiak jasotzen segitzen badute ere, badirudi salbuespenaren ordeztu hobari bat jartzeak dakarren ekitatearen aldeko aurrerapausoa eta, batez ere, kontrol handiagoa, ez dela botere ekonomikoaren zirkuluen gustukoa izan. Zalaparta mediatiko eta politikoa dugu esaten ari garenen erakusle argia, eta horretarako berriro ere zeharo neoliberala den argudio bat ari dira erabiltzen: ondasun mota hori zergapetzean kalte egiten ari zaie jarduera ekonomikoari, hazkundeari eta enpleguari.

Inbertsio produktiboek eragin positiboa dute ekonomia errealean, begi-bistakoa da; baina hori esateak famili enpresetan metatutako kapitalarentzat zein enpresen "jabe ez diren beste pertsona batzuek" egin ditzaketen beste kapital ekarpen mota batzuentzat (esate baterako, industri enpresen akzioen erosketaren bidez egingentzat) balioko luke. Diskurtsoa zabalduz gero beste ondare produktibo mota horiek ere jasotzeko, azkenean zerga higiezin jakin batzuetara mugatu beharko genuke, eta "tresna finantzario-espekulaziozkoetako" partaidetzetara; horrenbestez, eta kontzeptu horren definizio falta interesatuaren ondorioz eremu zabal bat irekiko litzateke are egoera ahulago batean jarriko gintuzkeena, bai elusio praktiketarako, baita, azken batean, zergaren izaerari indarra kentzera begira ere.

Edonola ere, hizpide ditugun enpresa ondasun eta ondasun profesional horiek ere AFHZn sartzeko abiapuntuan zera dugu, ulertzea ondasun horiek norbanakoen aberastasunaren parte direla eta, horrenbestez, horrelakotzat kontabilizatu behar direla; eta, ondorioz, zergapean egon behar dutela. Zeren eta ezin baita ukatu ahalmen ekonomikoari dagokionez ez direla berdinak famili enpresa batean 100 milioi dauzkana eta ez dauzkana; ez dute botere ekonomiko bera eta, beraz, ez deritzogu zuzen kapital horiek kontuan ez hartzeari norbanakoen aberastasunaren gaineko kalkulua egiten denean. Ahantzi gabe, gainera, horien gaineko salbuespenak zerga ingeniartzako estrategiak eragiten dituela ondare pribatuen parte handi-handi batean, ez soilik zergaren ordainketari ihes egiteko, baizik eta agintari demokratikoen kontrolari ere ihes egiteko (izan ere, zerga informaziorako iturri garrantzitsu bat galtzen da).

7. Zergadunen ihesaren tesia

Zergari eraso egiteko unean gehien errepikatzen diren argudioetako beste bat zergadun handien deslokalizazioaren arriskuari buruzkoa da, "ondare ihes" famatua alegia. Eraso horiek bi argudio ildotatik datoz batez ere.

a) Alde batetik diskurtsorik oldarkorrenak, aberatsenen gaineko zerga presioaren areagotze ororen egokitasuna zalantzan jartzen eta argi eta garbi zerga dumpingaren apologia egiten duela, honakoa diosku: aberatsei zergak igotzen badizkiegu, tributazio baxuagoko beste leku batzuetara joango dira, eta horrek inbertsio txikiagoak, hazkunde txikiagoa eta enplegu gutxiago ekarriko ditu. Ondorioa: denok kaltetuko gara. Beraz, kapital handiei eta fortuna handiei aplikatzen zaizkien zergak zenbat eta txikiagoak izan hainbat eta hobeto denontzat (hori bai, gastu publikoa batez ere BEZ eta PFEZ bidez finantzatu bedi, hau da, langileek ordaindu bezate).

Oso diskurtso ideologikoa, klase interesen defentsara erabat bideratua, oso sostengu ahulekoa ordea ebidentziari erreparatzen badiogu: izan ere ez dago frogatuta kapital eta ondare handien gaineko zergak txikiagoak izateak inbertsio produktiboa handitzen dutela, are gutxiago herrialdean bertan; aitzitik, sarritan inbertsio finantzarioetara jotzen da, eta nazioarteko merkatuetan gainera. Beraz, erabat zalantzan jarri behar da horrek tokian tokiko hazkundean eta enpleguan duen eragina.

Gainera, diskurtso neurritz gainekoa da, propio neurritz gainekoa, ezen horren arabera pentsa liteke aberastasun jabe handi horiei "Bilduren zergak" bere ondasunetatik erdia behintzat konfiskatu nahi diela, edo antzeko zerbait. Hona hemen inpresio faltsu horiek bere tokian jartzen lagunduko diguten adibide gutxi batzuk: 3 milioi euroko ondarea daukan pertsona batek (ondare garbia, hau da, zorrak kenduta), gehienez ere 10.000 euro ordainduko lituzke, hau da, bere ondarearen % 0,33ren parekoa). Eta 5 milioi edukiko balitu, asko jota % 0,75eko tributazioa izango luke, eta 37.500 euro ordainduko lituzke.

Ikus daitekeen moduan, ez dago % 1eko tributaziora iristen den kasurik. Kapitalaren batez besteko errentagarritasuna % 4-5 ingurukoa dela kontuan harturik, ezin da sinetsi zerga horretan badagoenik dagokiona ordaintzeko bitartekorik ez daukan zergadunik. Eta pertsona horien artean beste lurralde batzuetarako desplazamendu masiboa eragiteko faktore erabakigarria izan daitekeela sinesterik ere ez dago.

b) Bestetik, bada beste argudio sorta bat, justizia fiskaleko ikuspegi batetik ondare handien gaineko presioa areagotzea egoki ikusi bai, baina zerga sistema desberdinak eta tributazio eskakizun desberdinak dauzkaten herrialdeak dauden bitartean, eta kapitalaren egungo mugikortasuna dela-eta, deslokalizazioa arrisku erreala izan daitekeela diotenena zehazki; ez dute gomendatzen aberastasunaren gaineko zergak herrialde edo lurralde jakin batean modu isolatuan ezartzea. Horrelako kasuetan nazioarteko kontsentsu fiskal baten beharra aipatzen da (edo behintzat europar kontsentsuaren beharra), zerga horien eraginkortasuna bermatzeko aurrealdintzatat.

Zalantzarik ez dago aberastasunaren gaineko zergari dagokionez mundu mailako harmonizazio handiago batera jotzea komenigarria eta bultzatu beharreako dela, baina hori ezin da izan ezer ez egiteko koartadatzat erabili; ez da itxaron behar beste lurralde edo herrialdeek aurrera egin dezaten, aberastasunaren birbanaketan ekarpena egin dezaketen neurriak aplikatzeko bidean. Neurri handi batean gobernuen eta zerga agintarien borondate politikoaren mendean dago hori, neurriek dakartzaten arriskuak baloratu eta bere erabakiak hartu behar baitituzte, defendatzen duten eredu sozial eta fiskalaren gaineko uste osotik abiatuta. Horixe da Gipuzkoako Foru Gobernutik aukeratu dugun bidea.

AFHZ berria ezartzearen alde egin dugu, onargarri eta neurri batean kontrolatu generitzon arrisku maila bat hartuz, eta bere ondareak direla eta zerga berriaren pean geratutako gipuzkoar gehienez aldetik elkartasunezko erantzuna jasoko genuelakoan; eta garbi izanik, halaber, deslokalizazioak ez direla behin eta berriro beldurraren diskurtsoa

ateratzen dutenek, aldaketa eta eraldaketa fiskal eta sozialerako ahalegin oro gerarazi nahi dutenek, sinestarazi nahi diguten bezain errazak eta maizkoak.

Eta datuek arrazoia eman digute. Ezin da ondare ihesik egon denik esan. Era guztietako deskalabruak iragartzen zituzten ahots alarmisten aurrean, datuak ezin argigarriagoak dira: guztira 49 besterik ez dira 2012ko urtean ondarearen gaineko zergako aitortpena egin eta 2013an egoitza aldatu dutenak; Fortuna Handien gaineko Zergagatiko ekarpena egin behar duten pertsona guztietatik % 0,62 ari gara aipatzen. Orokorrean ez da kopuru adierazgarria estatistikaren ikuspegitik, are gutxiago kontuan hartzen badugu horien artean badirela lekuz aldatzearen arrazoia zerga berriak eragin omen dien presio osagarria ez den batzuk (esate baterako, egoitza aldatu duten zergadunetatik % 20ren kasuan, AFHZk karga txikiagoa ezartzen zien lehengo ondarearen gaineko zergak baino). Dena den, agerikoa da kasu jakin batzuetan lurralde batzuk izateak -Madril esaterako, ondarearen gaineko zergan % 100eko hobaria aplikatzen duelarik zerga paradisuizat har baitaiteke aberastasun metatuaren gaineko tributazioari dagokionez- eragingo zuela zerga arrazoiengatiko egoitza aldaketaren bat. Beste foru ogasunen 2013ko ondarearen gaineko zergaren kanpainaren emaitzari buruzko informazio zehatzagoa argitaratu ahala, balorazio osoagoak egin ahal izango dira.

Horregatik guztiagatik, ondoriozta dezakegun bakarra da AFHZren ezarpena gauza egokia izan dela, eta balorazioa ezin positiboagoa izan: zerga ona da, aberastasunaren gaineko benetako zerga, eta izaera ekitatiboagoa eta justuagoa ematen dio Gipuzkoako zerga sistemari. Gainera gardentasuna irabazten dugu, eta betetzen duen zentsu edo errolda lanetik aukera handiagoa ematen du ondare eta fortuna metatuen eta horien banaketaren gaineko ezagutzara eta kontrolera begira. Eta bitarteko publikoei dagokienez, daukan bilketa ahalmena mugatua bada ere, % 47ko igoera eragin du zerga bilketan ondarearen gaineko aurreko zergarekiko, 57 milioi oraingoan eta 39 milioi aurrekoan; eta Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionez, zalantzarik ez dago batere, lurraldean aplikatuko dugu, pertsonen bizi baldintzak hobetzeko; horrela kontsumoa eta inbertsioa bultzatzen dira eta, azken batean, bitarteko horiek, eskaeraren bidez, enplegua mantentzera bideratzen dira.

DIE LINKEren zerga-politika

Richard Pitterle

Bundestag-eko parlamentaria

1. Zerga-politika krisiaren testuinguruan

- I. Euroaren krisiari buruz
- II. Zerga-politikako kontraneurriak
- III. Ondarearen tributazioa

2. Zerga-erreforma egiteko irizpideak eta proposamenak

- I. Eskakizun batzuk, DIE LINKE alderdiaren zerga-planean jasoak
- II. Funtsezko eragozpenak proposatutako zerga-erreforma gauzatzeko
- III. Ondorioa / Ikuspegia


1. Zerga-politika krisiaren testuinguruan

Gaia oso zabala da eta, horregatik ere, mugatzen zaila. Horregatik, alderdi batzuk bakarrik aztertu nahi ditut. Hasteko, euroaren krisiari helduko diot gaingiroki, eta ondoren krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren zerga-politikako neurriak aztertuko ditut. Bukatzeko, berriro ere ondarearen birbanaketari helduko diot, aztertzen ari gareen gaien funtsezko eginkizuna betetzen baitu.

I. Euroaren krisiari buruz

Euroaren krisia eta baita krisiaren jatorria zehaztasunez eta hitz gutxitan azaltzea oso zaila da, eta zabalegia hemen ditugun mugak ikusita. Lehenik eta behin, hona hemen euroaren krisiaren aurrean dugun jarrera:

Guk okertzat jotzen dugu euroaren krisiaz egiten den ohiko interpretazioa (hots, zor subiranoaren krisia). Grezia alde batera utzita, bertan berariazko alderdiak baitzeuden, ez da inolako zor subiranoaren krisirik egon. Egon dena, inondik ere, zor subiranoaren finantzazioaren krisi bat izan da.



Finantza-krisia goratu da LehmanBrothers inbertsio-bankuaren porrotaren ondorioz

Diru-batasuna bera krisi sakon batean sartuta dago. Eurogunea eraikitzeke orduan egindako hutsegitearen ondorioz (ez dago politika ekonomiko, finantzario eta sozial partekaturik) eta austeritate-politika bultzatu duten gobernu europarrek krisia kudeatzeko moduaren ondorioz (baita Alemaniako Gobernuarenak ere), krisia begizta jarraitu bilakatu da.

1. Taula. Zor subiranoa, BPGd-ren %-tan

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Europako Batasuna (27 herrialde)	61,9	61,0	60,4	61,9	62,3	62,8	61,5	59,0	62,5	74,7	80,1
Eurogunea (17 herrialde)	69,2	68,1	67,9	69,1	69,5	70,1	68,5	66,3	70,1	79,8	85,3
Eurogunea (16 herrialde)	69,2	68,2	68,0	69,2	69,6	70,2	68,6	66,4	70,2	79,9	85,5
Belgika	107,8	106,5	103,4	98,4	94,0	92,0	88,0	84,1	89,3	95,9	96,2
Bulgaria	72,5	66,0	52,4	44,4	37,0	27,5	21,6	17,2	13,7	14,6	16,3
Txekiar Errepublikak	17,8	23,9	27,1	28,6	28,9	28,4	28,3	27,9	28,7	34,4	37,6
Danimarka	52,4	49,6	49,5	47,2	45,1	37,8	32,1	27,5	34,5	41,8	43,7
Alemania	60,2	59,1	60,7	64,4	66,3	68,6	68,1	65,2	66,7	74,4	83,2
Estonia	5,1	4,8	5,7	5,6	5,0	4,6	4,4	3,7	4,5	7,2	6,7
Irlanda	37,5	35,2	31,9	30,7	29,4	27,2	24,7	24,8	44,2	65,2	92,5
Grezia	103,4	103,7	101,7	97,4	98,6	100,0	106,1	107,4	113,0	129,3	144,9
Espainia	59,4	55,6	52,6	48,8	46,3	43,1	39,6	36,2	40,1	53,8	61,0
Frantzia	57,3	56,9	58,8	62,9	64,9	66,4	63,7	64,2	68,2	79,0	82,3
Italia	108,5	108,2	105,1	103,9	103,4	105,4	106,1	103,1	105,8	115,5	118,4
Zipre	59,6	61,2	65,1	69,7	70,9	69,4	64,7	58,8	48,9	58,5	61,5
Letonia	12,4	14,1	13,6	14,7	15,0	12,5	10,7	9,0	19,8	36,7	44,7
Lituania	23,6	23,0	22,2	21,0	19,3	18,3	17,9	16,8	15,5	29,4	38,0
Luxenburgoko	6,2	6,3	6,3	6,1	6,3	6,1	6,7	6,7	13,7	14,8	19,1
Hungaria	56,1	52,7	55,9	58,6	59,5	61,7	65,9	67,0	72,9	79,7	81,3
Malta	54,9	60,9	59,1	67,6	71,7	69,7	64,1	62,1	62,2	67,8	69,0
Herbehereak	53,8	50,7	50,5	52,0	52,4	51,8	47,4	45,3	58,5	60,8	62,9
Austria	66,2	66,8	66,2	65,3	64,7	64,2	62,3	60,2	63,8	69,5	71,8
Polonia	36,8	37,6	42,2	47,1	45,7	47,1	47,7	45,0	47,1	50,9	54,9
Portugal	48,5	51,2	53,8	55,9	57,6	62,8	63,9	68,3	71,6	83,0	93,3
Errumania	22,5	25,7	24,9	21,5	18,7	15,8	12,4	12,8	13,4	23,6	31,0
Eslovenia	26,3	26,5	27,8	27,2	27,3	26,7	26,4	23,1	21,9	35,3	38,8
Eslovakia	50,3	48,9	43,4	42,4	41,5	34,2	30,5	29,6	27,8	35,5	41,0
Finlandia	43,8	42,5	41,5	44,5	44,4	41,7	39,6	35,2	33,9	43,3	48,3
Suedia	53,9	54,7	52,5	51,7	50,3	50,4	45,0	40,2	38,8	42,7	39,7
Erresuma Batua	41,0	37,7	37,5	39,0	40,9	42,5	43,4	44,4	54,8	69,6	79,9

Isilean gorde dira hainbat sakoneko kausa, hala nola ondarea eta irabaziak banatzerakoan dagoen desberdintasuna eta horrek eragin duen masen erosteko ahalmena galtzea, edo kredituak finantza-merkatuetako "zorizko jokoetan" gero eta gehiagotan erabiltzea, egiazko ekonomian inbertitu beharrean. Horrez gain, finantza-krisiaren erdian, estatuek bankuak erreskatatzeko mekanismo garestiak jarri dituzte, eta, horrela, dituzten zorrak handitu egin dira. Ez da aipatu gabe utzi behar Alemaniako soldata baxuen politika, horren bidez herrialde horrek ziurtatu baitu aldarri ozenaz agindutako "lehiakortasun-ahalmena", esportazio-soberakin handien itxuraz. Horrek kanpo-zor handia sorrarazi du merkatuko kide europarretan, eta orain, arazoak dituzte finantza-merkatuetan. Aldi berean, EBko estatu kide ugariak dirusarrera ugari xahutzen dituzte dumping fiskalaren bidez.

Orain arte euroa erreskatatzeko egindako politika akastuna da, eta ez ditu arazoak aintzakotzat hartzen. Estatu kideek sinatutako itun fiskalaren bidez etengabe emandako aurrezteko aginduak langileen kalterako dira, eta gogor astintzen dituzte gizartearen ikuspegitik ahulak diren etxeko ekonomiak. Agindu horiek antisozialak izateaz gain, Eurogunea atzeraldian sakonago sartzera bultzatzen dute, eskaera guztiak itoz. Halako politikak ekonomiaren gainbehera azkartzen du, zerga-bilketaren murrizketa eragiten du, eta zorpetzea areagotzen du. Aitzitik, bankuak eta hartzekodun pribatuak erreskatamekanismoetako laguntza-kredituen bidez babestu eta galeretatik salbu utzi ziren. Ez zitzairen aurre egin krisiaren benetako kausei. Finantza-merkatua ez zen zorroztasun handiagoz arautu, eta dumping fiskala ere ez zen ezabatu. Horrela, birbanaketak ere behetik gorako norabidean jarraitzen du, eta krisiaren sortzaileak eta onuradunak ez dira behartzen krisiaren kostuak finantzatzera.

II. Zerga-politikako kontraneurriak

Euroaren krisiarekin zerikusi zuzena duen abiapuntu bat, ziur aski, finantza-merkatuak arautzea da. Zerga-politikaren ikuspegitik, Finantza-transakzioen gaineko Zerga aipatu behar dugu hemen. DIE LINKE taldearen aburuz, % 0,1eko karga ezarri beharko litzateke, era guztietako baloreak eta dibisak (jaulkipen berrikoak izan ezik) eta, bereziki, espekulaziozko finantza-produktuak erosi eta saltzea zergapetzeko, hala nola deribatuak. Eta hori baliozkoa izango litzateke bai burtsako bai burtsatik kanpoko merkataritzan aritzeko. Zerga horren bitartez, finantza-transakzio bakoitza garestitu egingo litzateke eta, ondorioz, ez litzateke hain erakargarria izango. Eragindakoenak lirateke, hala ere, epe laburreko espekulazioak, horiek egitean saiatzen baita kanbio-tasen gorabehera txikienetatik onura ateratzen, eta baita espekulazio handiko transakzioak ere, horien bidez norberaren kapitalaz gain, kreditu gehigarri ugari jokatzen baitira. Izan ere, ez da soilik norberaren kapitala zergapetzen, mugitzen diren balore guztien balio osoa ere zergapetzen baita. Finantza-transakzioen gaineko Zergak finantza-espekulazioaren aurka borrokatzeko erabateko eragina izan dezan, aipatutako zerga EB-ren eremuan eta baita horrez gaindi ere ezarri behar da.


Baina, krisiari zuzenean lotuta dauden zerga-politikako neurri horiez gain, beharrezkoa da zerga-araudi berriak sortzea, krisiaren ondorioak murriztu eta etorkizunean eragin prebentiboa izan dezaten. Hemen, batez ere hitz-gako hauek aipatu behar ditugu: ondarearen eta irabazien banaketa desberdina. Krisiaren kostuek izugarri kargatzen dituzte aurrekontu publikoak. Horregatik, zerga-igoera eskatzen dugu premiaz, dirudun eta ondaredunei zuzenduta. Horretarako, guztiz egokia da Ondarearen gaineko Zerga, aldi berean gizarte-justizia sendotzen duelako. Izan ere, aberatsak batik bat izan dira eta dira bankuak erreskatatzeko mekanismo ikaragarrien onuradunak. Hori dela eta, hori ere ordaindu beharko lukete.

III. Ondarearen tributazioa

Alemanian, biztanleen bi heren inguruk ez dauka inongo ondarerik edo oso ondare txikia du. Hamarren aberatsenak, ordea, moneta-ondare eta ondare materialaren % 66 baino gehiagoren jabea da, eta aspaldidanik etengabe handitzen du bere zatia. 2010. urtean, milioi-dunen kopurua errekor berri batera iritsi zen: 829.000. Milioi-dun horien guztizko ondarea 2,2 bilioi eurotik gorakoa da (norberak erabiltzeko higiezinak kanpo). 2003tik aurrera, Alemaniako milioi-dunek aukera izan zuten beren ondarea urteko % 8an igotzeko, miliardunek baita % 10ean ere. Finantzen krisiak eta euroaren krisiak ez dute ezer aldatu superabertsak gero eta aberatsagoak izateko joera horretan; alderantziz, azkartu ere egin dute eta. Ildo horretan, ondarearen banaketa desberdinak -ez bakarrik Alemanian, baina baita Alemanian ere- eragin erabakigarria izan du finantzen eta euroaren krisietan. Gutxi batzuen eskuetan dauden aberastasun handiak finantza-merkatuetara bideratu ziren, bertan ahalik eta korriturik handienak lortzeko. Emaitza espekulazioa eta irabazteko asmo neurrigabea izan dira.

Ondarearen banaketa gero eta desberdinagoa eragin du, baita ere, dirudunen zerga-pribilegioak, besteak beste Ondarearen gaineko Zerga bertan behera utzita 1997az geroztik. Ziur aski ez dago herrialderik, Alemania salbu, ondarean oinarritutako zergen bidez (lurraren kontribuzioa, ondarearen, oinordetzen eta dohaintzen zein ondare-eskualdaketen gaineko zergak) hain bilketa urria egiten duenik. 2010. urtean, zerga horiek barne-produktu gordinean izandako partizipazioa % 0,8koa besterik ez zen izan. Hori ez da orduko ELGA-herrialdeetako batez bestekoaren erdira ere iristen (% 1,8), eta EB-27ko herrialdeetako batez bestekoaren heren bat inguru besterik ez da (% 2,5). Nola irudikatzen da hori Europar? Argi ikus dezakegu STERN aldizkariako irudian (32. zk., 2012. urtea).

2. Grafikoa. Zor subiranoaren alderaketa ondare pribatuarekin



Alde batetik, Europako estatu kideetako zorrak, eta bestetik, zor subiranoa argi eta garbi gainditzen dituen ondare pribatua.

2. Kuadroa. Beste estatu batzuetako ondarearen tributazioaren erkaketa

- Ondarean oinarritutako zergak (lurraren kontribuzioa, ondarearen, oinordetzen eta dohaintzen zein ondare-eskualdaketen gaineko zergak) BPGd-en izandako partaidetza, 2010. Urtean:
 - Alemania: % 0,8
 - ELGA-ko herrialdeetako batez bestekoa: % 1,8
 - EU-27-ko herrialdeetako batez bestekoa: % 2,5
- 2013. urtean, EBn, Frantzian eta Espainian soilik, Ondarearen gaineko Zerga pertsona fisikoentzat; Luxenburgon pertsona juridikoentzat soilik

(Iturria: ELGA; Finantza Ministerio Federala)

DIE LINKE alderdiaren alternatiba milioidunei ondare-tributuak ezartzea da. Europako milioidunen aberastasunak soilik 17 bilioi eurotan gaintitzen ditu EBko herrialde kide guztietako zor subiranoak (11 bilioi eurokoa), Credit Suisseren arabera. Beste hitz batzuek esateko: Zor subiranoak aberatsen ondarea ere badira. Ildo horretan, Oxfam gobernu kanpoko erakundeak bereziki kezkarria den txosten bat plazaratu du duela gutxi; horren arabera, 85 pertsonak duten aberastasuna 3.500 milioi pertsonak batera, -munduko biztanle erdiek-, dutenaren adinakoa da.

DIE LINKE alderdiak erronka handia du Europan, alegia, aberastasun ikaragarri horiek asmo handiko zerga-politika baten bidez emankor bihurtzea, zor subiranoak ezabatu eta gizartera itzuliko diren mantentze- eta gehikuntza-inbertsio beharrezkoak egiteko.

2. Zerga-erreforma egiteko irizpideak eta proposamenak

Ezkerreko zerga-politikaren funtsezko alderdiak birbanaketaren nagusitasuna eta zerga-justizia dira. Hala ere, zerga-politikaren alorreko eskakizun guztietan, zehaztasunez aztertu behar dira helburu ideologikoa, alde batetik, eta egiazko onura nahiz kasu bakoitzean dagoen gauzatzeko aukera, bestaldekik. Horregatik, DIE LINKE alderdiaren zerga-planean jasotako eskakizun batzuk aurkeztu nahi dizkizuet orain, eta, ondoren, plan hori ezartzeko dauden funtsezko eragozpenak azalduko dizkizuet.

3. Kuadroa. Arazoa (handiena): Ondarea / irabaziak desberdin banatuta egotea

- Ondarea eta irabaziak desberdin banatuta
- Aldea handitzen da – “guraizeak” areago irekitzen dira
- Ondorioa: masen erosteko ahalmena jaitsi eta tirabira sozialak handitu egiten dira
- Ondorioa zerga-politikan: Ondarea eta irabaziak zuzentasunez zergapetu – birbanatzea, eta gizarte-harreman orekatuak sustatzea


2. Taula. Zerga-gainerakinak DIE LINKE alderdiaren zerga-planean
Bertsio eguneratua - osorik

Zerga mota/ zerga-eremua	Aldaketa dirusarreretan, mila milioitan (€)			
	Errepublika	Estatu federatuak	Udalerriak	GUZTIRA
Miliodunentzako zerga (Ondarearen gaineko Zerga)	0	80	0	80
Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga	0	7	0	7
Enpresa-tributazioa	17,5	17,5	0	35
Finantza-transakzioen gaineko Zerga	30	0	0	30
Errentaren kontribuzioa	0	0	0	0
Zerga gauzatzea	7	6	2	15
Kontsumoaren gaineko Zerga eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga	2	-4	0	-2
Udal-zerga ekonomikoa	-4	-2	21	15
GUZTIRA	52	105	23	180

I. Eskakizun batzuk, DIE LINKE alderdiaren zerga-planean jasoak

DIE LINKE alderdiaren zerga-politikan egiten den funtsezko eskakizun bat **Soldataren eta Errentaren gaineko Zergaren** erreforma da. % 14ko gutxieneko karga-tasan, tarifa lineal jarraitu bat ezarri beharko da, batez beste % 53 arteko gehieneko karga-tasaz. Salbuetsitako minimoa 8.354tik 9.300 €-ra igoko da horrela. Horren bidez, irabazi txiki eta ertainen zerga-karga jaitsi eta irabazi handiena igo egingo da. Formula erraztua honakoa da: Hilean 6.000 euro baino gutxiagoko irabazien zerga-karga gutxituko da, kopuru horretatik gorako irabaziena, aldiz, handituko da.


3. Grafikoa. Errentaren gaineko Zerga: DIE LINKE, 2014ko tarifarekin alderatuta



Mahai gainean geratzen da Errentaren gaineko Zergaren tarifa horrez gain, aberatsentzako zerga bat ere ezartzea. Azken zerga horren bidez, milioi bat euroko irabaziak (Gizarte Segurantzako kotizazio guztien atxikipena egin eta gero) gainditzen dituen euro bakoitza % 75rekin zergapetuko da.

DIE LINKE alderdiaren tarifa, 2014ko tarifarekin alderatuta (€/urte, ezkongabeentzat, solidaritate-gehirria barne)

4. Grafikoa. Zergapetzeko urteko irabaziak (€-tan)



Enpresa-tributazioari dagokionean, **Sozietateen gaineko Zerga** % 15etik 25era igoko da. Era berean, enpresa taldeek enpresen salerosketen bidez lortzen dituzten irabaziak berriro zergapetuko dira. Horrekin batera, enpresek ordaintzen dituzten zergak bateratu beharko dira European, zerga-lehiakortasuna ekiditeko.

Horrez gain, orain arteko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga **udal-zerga ekonomiko** bihurtu behar da, eta zerga horren bidez, kapital-sozietateek, enpresa ertain eta txikiek eta irabazteko asmoko jarduerak egiten dituzten autonomo guztiek zergak ordaintzeko betebeharra izango dute. Enpresa txikientzat, salbuetsitako kopurua 30.000 eurora igoko da.

Ondarearen gaineko zerga berriro ezarrita, milioi bat eurotik gorako ondare garbiek % 5eko zergak ordaindu beharko dituzte.

4. Kuadroa. Ondarearen banaketaren adibidea Alemanian:

- 2012an, ondarearen banaketa desberdinak Eurogunean:
 - Familia ekonomiaren ondare garbia 6,3 bilioi eurokoa, guztira
 - Batez beste, 83.000 € pertsona bakoitzeko
 - Errealitatean, baina, biztanleriako portzentajerik aberatsenak 800.000 € edo gehiago zituen, eta % 20k ez zuen ezer edo zorrak zituen
- 2007an, %10 aberatsenak ondare osoaren bi heren zituen; % 0,5 aberatsenak % 90 pobreenak hainako aberastasuna zuen gutxi gorabehera

(Iturria: Ekonomia Ikerkuntzaren Institutu Alemaniarrak)

Ondarearen gaineko Zergarekin batera, **Oinordetzen gaineko Zerga** ere aipatu behar dugu. Jaraunspen handiek orain arte baino zerga gehiago ordaindu beharko dituzte. Jaraunspen txikiak 300.000 euro arteko salbuespenen bidez babestuta egongo dira. Zerga-ordainketa handietatik salbuetsita geratuko da, halaber, jabetzako ohiko etxebizitza.

Finantza-transakzioen gaineko Zergaren bidez, finantza-transakzio guztiei % 0,1eko karga-tasa ezarriko zaie.

5. Kuadroa. Zerga-politikako kontraneurrien adibidea:

Finantza-transakzioen gaineko Zerga

- Finantza-merkatuen erregulazioa, zergak bideratzeko funtzioaren bidez
- DIE LINKE alderdiaren proposamena.
 - % 0,1eko karga, era guztietako balore eta dibisen gainean (jaulkipen berrikoak izan ezik) eta, bereziki, espekulaziozko finantza-produktuen gainean (hala nola deribatuak).
 - Bai burtsako bai burtsatik kanpoko merkataritzan aritzeko
 - Ondorioa: Finantza-transakzio bakoitza garestiagoa eta, ondorioz, ez hain erakargarria
 - Eragindakoenak epe laburreko eta espekulazio handiko transakzioak
 - EBko esparruan hedatu behar da, eta, hobeto, esparru zabalagoetara

Kapital-etekinak ez dira aurrerantzean karga-tasa txiki batez orokorrean zergapetuko, eta, aitzitik, berriro ere banakako errentaren gaineko zergaren tasaren arabera. % 25eko zerga-konpentsazio eztabaidatua ezabatu egingo da. Planifikatutako zerga-arauketa egiaz eta eraginkortasunez gauzatzeko aurretiazko baldintza **zerga-gauzatze** efizientea da. Alderdi hori hobetu egin beharko da Länder edo estatu federatuen eremuan, langile aditu gehiago kontratatuta. Horrekin batera, finantza-polizia federala sortu beharko da, zerga-iruzurraren, dirua zurtzearen eta dirulaguntzetan iruzurraren aurka eraginkortasunez borrokatzeko.

II. Funtsezko eragozpenak proposatutako zerga-erreforma gauzatzeko

Zerga-sarrerak banatzeko orduan, kontuan hartu behar da Errepublikaren egitura federala. Errepublika, estatu federatuak eta udalerriak bakoitzari egokitutako aurrekontuez hornitu beharko dira. Horri dagokionez, aintzakotzat izan behar dugu Konstituzioan jadanik (X. atala, 104. art. eta hurrengoak), hainbat zerga-sarrera esleituak dituztela Errepublikak, estatu federalek edo udalerriek. Xedapen horiek aldatzeko, behar-beharrezkoa da, Konstituzioko 79. artikulua arabera, Behe Ganberaren zein Kontseilu Federalaren bi laurdenen gehiengoa dagoenean. Egoera hori nekez gertatuko da, ziur aski, eta hala, Konstituzioan xedatutako zerga-sarreraren banaketa kontuan hartu beharko litzateke beti, zerga-plan gauzagarria prestatzeko orduan. Hori oso garrantzitsua da, besteak beste oinarrian udalerrri askotako finantza-egoera mehatxagarria dagoelako.

Ikuspegi zabalagoan, Konstituzioa kontuan hartu behar dugu, baita ere, zerga-politikan erreforma sartzeko proposamenak egiteko orduan. Bereziki Konstituzioko 3. artikuluan jasotako berdintasun-printzipioa erabakigarria izan da behin baino gehiagotan, hainbat zerga-arauketa Konstituzioaren arabekoak ote diren aztertu nahi izan denean. Horiek horrela, besteak beste zenbait jabetza motari eta ondare motari tratu berdina edo desberdina ematen ote zitzairen aztertu zen behin eta berriro, esate baterako ondare pribatu, enpresa-ondare eta ondare higiezinaren kasuetan. Jabetzaren oinarritzko eskubideak ere, Konstituzioaren 14. artikuluaaren arabera, mugak ezar ditzake, adibidez, tributazio baten zenbatekoa ezarri edo "funtsezko zergak"¹ Konstituzioaren arabekoak direla erabakitzeke orduan.

Zerga-plana gauzagarria izan dadin eta eraginkortasun erabakigarria eduki dezan, (bir) banaketa egiteko finantza-tresna guztien elkarreragina ere kontuan izan behar dugu. Egoera zehatz eta salbuespen askori buruzko arauketak daude, salbuesitako kopuruak edo bestelako onura fiskalak izan, azken buruan lortu nahi den zerga-kargaren balantzea alda ditzaketanak. Salbuespen horiek beharrezkoak izan daitezke, halaber, nahi ez diren ondorioak orekatzeko. Era berean, gatazkak sor daitezke ezkerren programako beste eskakizun batzuen aurrean. (Hala bada, genero-eginkizunen irudi kontserbadoreak arindu eta gainditzeko eskakizunen ondorioz adibidez, hala nola banakako aitortpena indargabetzea), egoera okertzea gerta daiteke, nahi zenaren aurka, sarrera txikiak dituzten bikoteen artean.

Zerga-plan sendo bat doitzean sor daitezkeen beste arazo bat da garapen batzuk aurretik ikustea, berez, ezinezkoa dela. Beste baldintzatzaile batzuk dituzten ekonomia-alderdiek edo baita nekez egiazta daitezkeen erreferentziako datuek ere ezinezko egin dezakete zerga-sarreraren garapenaren iragarpen fidagarria egitea.

III. Ondorioa / Ikuspegia

Zerga-plan oso bat ezinbesteko baldintza da ezkerak birbanaketa justua lortzeko eskakizun serioa egin ahal izateko. Deskribatu ditugun egoera erreala ikusita, horrelako plan bat arrakastatsua izan dadin, halabeharrezkoa da plana, ideologiak baldintzatutako jarrez haraindi, xehetasunetan ere gauzagarria izatea.

¹ Funtsezko zergak: Ondare-balioari lotutakoak

Aberastasun garbiaren fiskalitatea Europan

Txema Mendibil

Gipuzkoako Foru Auzitegi Administratibo-Ekonomikoko lehendakaria

1. Terminoa zehazteko bidean
2. Zerga beharrezkoa da ikuspegi etiko, politiko eta ekonomikotik
3. Aberastasun garbia zergapetzearen gainbehera
4. Bigarren bultzada bat?
5. Aberastasun garbiaren gaineko ezarpen horren aurreko alternatibak
6. Norvegia
7. Frantzia
8. Europan diren zergen arteko konparaziozko azterketa
9. Pikettyren proposamena. Aberastasun garbiaren gaineko zerga bat EB osoan

1. Terminoa zehazteko bidean

Zerga sistema moderno orok oinarri izan behar dituen hiru zutabeak sortutako errenten, aberastasun edukiaren eta egindako kontsumoen gaineko kargak dira. Erraz esanda, irabaziak, edukiak eta gastuak kargatzea. Eta hiru kontzeptu zeharo desberdinak direnez, zerga arloko aditu serio batek ezin du zergapetze bikoitzik edo hirukoitzik aipatu, non eta ez dituen bi zutabe suntsitu eta hirugarrena muga jasanezinetaraino igo nahi.

Jabetzaren gaineko tributazioaren barnean hiru zerga mota bereizi ohi dira: aberastasun garbia kargatzen dutenak (Wealth tax), ondorengotza eta dohaintzak kargatzen dituztenak (Inheritance and Gift tax), eta jabetza motaren bat kargatzen dutenak, normalean higiezin jabetzari mugatuak (Property tax).

Autore batzuek uko egiten diote jabetza partzialari buruzko azken zerga horiek eransteari, zerga errealak direlako. Baina higiezin arloko aberastasuna denez mundu mailako aberastasunaren erdia baino gehiago, herrialde askok zerga horiek alternatiba esplizitu (edo antidoto) ikusten dituztenez aberastasunaren gaineko zergaren aurrean, interferentziak eragiten dituztenez aberastasun garbiaren gaineko tributazioan, eta kasu askotan ezaugarri pertsonalak izan edo tributu pertsonalak izatera iristen direnez, ezinbesteko deritzot horiek ere jasotzeari, multzoaren gaineko ikuspegia izan dezagun.

2. Zerga beharrezkoa da ikuspegi etiko, politiko eta ekonomikotik

Sei arrazoi eman izan dira pertsonen aberastasuna kargatzen duen zerga baten beharra justifikatzeko.

Lehena eta garrantzitsuena da aberastasuna banatzen laguntzen duela, edo behintzat banaketa horretako desberdintasunak murrizten dituela. Europako datuak¹ aplikatuz gero, biztanleriaren % 1 aberatsenak aberastasunaren % 25 dauka (% 35 AEBetan), eta % 0,1 aberatsenak aberastasunaren % 7 (AEBetan % 15). Baina, gainera, aberastasunaren kontzentrazio portzentaje horiek gora ari dira egiten 70eko urteez geroztik. Eta ezin bestela izan, zeren eta batez besteko aberastasuna % 1,5 inguru hazten ari bada ere, inflazioa kenduta, urtean, kapitalaren errentagarritasunak % 4 gainditzen baitu urtean, eta % 6tik gora ari da egiten 5 milioi eurotik gorako ondareen kasuan, % 10eraino iritsiz planetako fortuna handientzat. Eta fondo horietako askotxo dira errentaren gaineko zergarik ere ordaintzen ez dutenak, gauzatzen ez diren edo salbuespen edota hobari bitartez gauzatzen diren neurrian².

¹ Atal honetako datu guztiak Thomas Pikettyren Le capital au XXI siècle obratik atera dira.

² Zerga-paradisua edo egitura opakoen sorrera behin eta berririo aipatu beharrik gabe, "hildakoaren gainbalioaren" salbuespenaren eta beste kenkari batzuen eraginez herrialde gehienak zerga-paradisua dira fortuna handientzat. Eta zergak ordaintzen dituztenean ere, kapitalaren batez besteko errentagarritasuna, inflazioa kenduta, ez da % 3tik jaisten, eta % 9tik gorakoa izan daiteke fortuna handientzat, azken 20 urteotako epeak hartuz gero (40 urte hartzen baditugu kontuan, portzentajeak are handiagoak dira).

Horregatik, ondare-ezarpen seriorik ezean, desberdintasunak handi-handiak izango diren gizarte baterantz abiatuko gara, eta horretan demokrazia baliatzea ere ez da posible izango, aukera hori nahiko mugatuta egongo baita elite ekonomikoen zerbitzuan ari diren presio taldeen boterearen indarrez.

Bigarren arrazoia zerga sistemak, oro har, izan behar duen ekitate horizontalerako ekarpena da. Pertsona baten ahalmen ekonomikoak ez ditu soilik errenta eta kontsumoa hartu behar kontuan, baita daukan aberastasuna ere. Horrela egiten ez bada, izugarri areagotzen dira bidegabekeriak aberastasun parekoa duten zergadunen artean, gastu publikoak ordaintzeko unean.

Hirugarrenak zerga sistema osoak izan behar duten ekitate bertikala aipatzen du. Errentaren aldetik, kapital errenten eta gainbalioen portzentajeak gora egiten du, aberastasuna zenbat eta handiagoa izan. Eta errenta hauek, edo ez dute tributatzeko esplizituki gauzatzen ez direlako edo "hildakoaren gainbalioaren" salbuespenari atxikitzen zaizkiolako, edo tasa murriztuekin tributatzeko dute bestela, errenta finkoari edo Inbertsio Kolektiboko Entitateen errenta-tresnei sustagarria ez kentzeko errenta aldakorren aurrean (azken honi, izan ere, Sozietateen gaineko Zergak eragiten dio, eta zergapetze bikoitzagatik kenkari baterako eskubidea izango luke tarifa bakarrera joz gero).

Kontsumoaren aldetik, kontsumorako joera marjinala murriztu egiten da, aberastasunak gora egin ahala. Hau da, ondare apalek ez dute ezer aurrezten ezin dutelako, eta errenta eta aberastasun guztia kontsumora bideratzen dute; horrenbestez, zeharkako zergetan ordaintzen duten portzentajea goi mailako klaseek ordaindua baino askoz altuagoa da.

Egoera hau pixka bat orekatzearren aberastasunaren gainean zergarik ezarri ezean, sistemaren ekitate bertikalik eza onartezina litzateke (eta da).

Laugarren argudioa kontrolarena da, eta funtsezko bi kontu aipatzen ditu. Normalean gauza onartua da aberastasunaren gaineko zerga batek ondare handien gainean zertzen duen kontrola eraginkorra dela errentaren gaineko zergetan eta (neurri txikiagoan) kontsumoaren gainekoetan zerga-iruzurra kontrolatzeko eta murrizteko. Gainera, zerga honek aukera ematen du estatistikak eta estudioak egiteko, nork zer duen eta nondik duen jakiteko, eta horiek oso baliagarriak izan daitezke finantza-krisi garrantzitsuen aurrean erantzun koherenteak prestatzeko³ eta txapuzak egiten ez hasteko, Zipren gertatu moduan.

Bosgarren arrazoia eraginkortasun ekonomikoari buruzkoa da. Gauza jakina da zerga honek aberastasunari erabilera produktiboa ematea bultzatzen duela, eta zigortzen,

³Egoeren arabera, gerta daitezke egokiagoa izatea kanpo inbertsioa (eta honen sozietateak) jasotzen dituen aberastasun garbiaren gaineko zerga, kanpo zorraren auditoria bat baino, honek berekin baitakar, ezinbestean, gastuak onartu zituzten gobernuen izaera demokratikoa zalantzan jartzea (eta ez da beti egia).

berriz, “esku zuriak”, hau da, aberastasuna bakar-bakarrik gozatzeko edo erakuskeriaz jarduteko daukatenak, etekinik produzitzen jartzeke ordea. Hemen, konfiskazio arriskuak atzera egin behar du jende guztiak aldarrikatzen eta hain fortuna gutxik aplikatzen duten jabetzaren eginkizun sozialaren aurrean.

Eta seigarren eta azken tokian zerga-bilketa politika izaera da. Egia da aberastasun garbiaren gaineko zerga baten biltze eragina apala dela, baina kultura demokratiko baterako ezinbestekoa da erakustea pertsona aberatsek ere parte hartzen dutela, bere aberastasunez, gastu publikoen ordainketan, eta ez bakarrik neurritz gaineko soldatak jartzen, bere gainbalioez sekulako pagotxak edo diru-janak lortzen edo luxuzko artikuluetan xahutzen dutenean. Hau batez ere krisialdi ekonomikoetan ikusten da, estaltzeko premia oinarritzkoak asko eta asko izaten baitira.

Norbaitek erantzun lezake gauza bera lor daitekeela zorpetze publiko handiago batez. Baina aberastasun pribatua, historian lehen aldiz, zazpi urteko errenta nazionala gainditzeaz dagoenean, eta aberastasun publikoa ia-ia desagertu denean⁴, ez dirudi oso zentzuzkoa denik zor publikoa jaulkitzen segitzea aberastasunaren gaineko zerga ordaindu beharko luketen haien onerako, hau da, bakar-bakarrik aberatsenen onerako diren mailetan.

Ikusi ditugu jada zerga honek bete beharko lituzkeen sei eginkizunak. Zoritxarrez zenbait herrialdek, horrelako zerga bat baduten arren, izenez behintzat, erabat desitxuratzen dute babes fiskalak⁵ erabiliz edo enpresetako partaidetza, ondare profesional, are bizitza-aseguruei ere salbuespenak aplikatuta.

Pikettyk dioen moduan, ikusten badugu Frantziako dirutza nagusiak bere errenta eta aberastasunaren gaineko zergak direla-eta urtean bere aberastasunaren % 0,01 besterik ez duela ordaintzen, askorik ez du balio horren aberastasunaren gaineko zergaren tasa nominala berrehun aldiz handiagoa izateak. Izan ere, pertsona horrentzat (eta aberats askorentzat) Frantzia benetako zerga-paradisu bat da, eta zergak ez du betetzen ez ekitate horizontalik ez bertikalik, ez ditu praktikan kontrolatzen ondasun salbuesiak, ez da eraginkorra, eta zerga politikaren irudi penagarria ematen du.

Gainera, zerga desitxuratu batek eragin negatiboa du aberastasunaren banaketaren beraren gainean. Zeren eta banaketa orokorrak hobera egin arren bai Gini indizean bai S80/S20 tauletan, egia baita ezen % 0,1 aberatsenak bere egoera hobetzen badu % 1 aberatsenaren, are % 10 aberatsenaren aurrean, handitzen ari garela gizarteko benetako gidari-mailaren eta beste guztien arteko aldea⁶.

⁴ Zor publikoak gainditu egiten du ondasun publiko “artifizialen” balioa herrialde gehienetan; horregatik, ondasun naturalei (lurrak, airea, ura...) lotuta ez dagoen aberastasuna negatiboa da.

⁵ Babes fiskala teknika maltzur bat da, eta aberastasun garbiaren gaineko zerga errentaren gaineko zergarekin lotzen du. Horren arabera, bi zerga horiek batuta inork ez du esplizituki irabazten duenaren (hots, balioaren igoera eta gainbalio ezkutua kontuan hartzeke) portzentaje batetik gora ordaindu behar, eta fortuna handiek asko erabiltzen dute taktika hori, zerga ordaintetari ihes egiteko.

⁶ Zerga aldaketak Gipuzkoan eman dituen datuek ez dute zalantzarako lekurik uzten. Lehengo zergarekin (babes fiskala eta salbuespenak) goreneko tasa efektiboa 4 milioi euroko ondareaz iristen zen, eta kantitate horretatik aurrera behera egiten zuen. Orain, zerga progresiboa da benetan.

3. Aberastasun garbia zergapetzearen gainbehera

Karga honek beti beste edozein zergak baino karga ideologiko handiagoa eduki du. Erdi Aroraino atzeratu beharrik gabe ("jabetza sakratua da"), edo XIX. mendean haren kontrako izan zen ideia jotzeke ("jabetza lapurreta da"), egia da klase aberatsak bere aberastasuna (gutxi-gutxi izan arren), murriz dezakeen zerga ororen zeharo aurka daudela.

Dena den, XX. mendeko eraldaketa politiko eta ekonomiko handiek eta aurreko mendeetan izandako aberastasun metaketa ezmoralek benetako demokrazia bera ere eragozten zutelako kontzientziak ekarri zuten zerga sistema bidezkoagoak ezartzen joatea; eta sistema horietan zerga hauek eginkizun garrantzitsua zuten. Hala aberastasun garbiaren gaineko zerga, neurri batean edo bestean boteretsuen presioarengatik desitxuratua, mundu osoan zabaltzen joan zen pixkanaka.

Baina Reagan eta Thatcher buru zituen kontrairaultza kontserbadorearen garaipenak eta kapitalaren globalizazio eta desarautze geldiezinak aberastasunaren gaineko zergen kontrako erabateko erasoak ekarri zuten; hauek, ondorioz, kendu edo zeharo ahuldu zituzten herrialde gehienetan. Bakarrik Europa aipatzearren, Italia (1992), Austria (1994) Danimarka (1995), Alemania (1997), Irlanda (1997), Finlandia (2006), Luxenburgoko (2006), Suedia (2007)... ditugu zerga kendutakoak, bai gobernuen beren ekimenez bai (Alemania, Suedia) auzitegien ekimenez, eta horretarako erabili dituzten argudioak ezin xelegarriak izan, esaterako ezin zuela aberastasunaren banaketan ekarpenik egin konfiskaziokoa izan ezean, edo zergaren akatsen eraginez (batez ere famili enpresen salbuespenak eta babes fiskalak zirela) aberatsek ez zutela zerga ordainduko.

Laburbilduz, zerga eraberritu beharrean kentzera jo zuten (antzekorik imajinatzen al dugu PFEZ edo BEZaren kasuan?). Bi arrazoi nagusiak, baina, fortuna handien lobbiek zergaren izate hutsaren kontra egindako presioa eta kapitalak erakartzeko nazioarte mailako lehia beldurgarria ziren; kapitalok, izan ere, beharrezkoak ziren obra faraonikoak eraiki eta mantentzetik gainbalioak ateratzeko eta zerbitzu publikoen globalizazio eta pribatizazioa ordaintzeko.

4. Bigarren bultzada bat?

Baina krisialdia iristeak -honen ondorioak, politika neoliberalen eraginez areagotuak, suntsitzaileak izan dira biztanleriaren maila pobreenentzat- berekin ekarri du birbanatze politikak berriro lehen planoan jartzea, ez soilik errentari baizik eta baita aberastasunari dagokionez ere. Hemen, nazioarteko erakundeak (NDF...) kontraesanetan dira, batetik bere klase interesak defendatzen baitituzte, bestetik aitortzen dutelarik ondasun-zergak direla jarduera ekonomikoari gutxien eragiten diotenak.

Horregatik guztiagatik, zerga-eztabaidaren erdian dago atzera aberastasunaren gaineko zerga, batez ere duela gutxi Pikettyren *Le capital au XXI siècle* liburu famatua argitaratu dutenez geroztik; horretan tributu hau planteatzen du demokrazia eta gizartearen zerbitzurako ekonomia bermatzeko kohesio soziala babesteko modurik onentzat.

Latinoamerikan zergaren ezarpena aurrera ari da egiten, eta Argentina eta Uruguairi gehitu zaizkio⁷, duela gutxi, Kolonbia, Venezuela eta El Salvador; eta beste herrialde batzuk laster ezartzea ari dira aztertzen. Dolarizaziotik eta kanpoan diren kapitaletatik etorritako arazoak, estatistika lerratuak, paramilitarren eta legez kanpoko erakundeen gaineko kontrol zaila, ekonomia "informalaren" edo narkotrafikoari lotuaren pisua... horien guztien eraginez aurrerapenak finkatu beharrean daude, baina hasiera ona behintzat bada. Azkenen, Sri Lanka zerga atzera sartu berria da, % 0,5eko tasa batez.

Europan zerga bakar-bakarrik Norvegian, Frantzian eta gure estatuan (lau foru lurraldeak barne) mantentzen da. Autore batzuek Suitza eta Liechtenstein ere sartzen dituzte horiekin⁸, baina ondare-irabazi finantzarioen errentak zerga horren pean ez egotea eta banku-sekretuak hartzen duen esparrua direla eta, zerga bati buruz baino gehiago fiskalizazio-kontrako aseguru bati buruz hitz egin behar dugu, are atzerrian dirua zuritzeko eta zerga-iruzurrerako laguntza-zerbitzuak eskaintzeagatik (ez-egoiliarrentzako) tasa bati buruz.

Europan dauden zergen ezaugarriak aztertu aurretik, horien ezarpenak duela gutxi izan dituen hiru porrot aipatuko ditut labur. Islandiarekin hasiko gara. Hango gobernuak neoliberalismo araugabearenaren ikasle aurreratu bihurtu ziren, eta aurreranzko ihes horren oinarrian finantza-sektorearen hipertrofia jarri zuten (gordailuei % 15etik gorako interesa eskaintzera iritsi zen). 2008ko krisialdiak aurretik eraman zituen hiru banku nagusiak, eta gobernuak erabaki zuen islandiarren jabetzako gordailu eta kontu guztietara zabaltzea Estatuaren bermea (ez bakarrik legez estaltzen zuen 25.000 € inguruko kopururaino). Galeren sozializazio hori ez zitzaien hartzekodun atzeritarrei iritsi, eta horrek ondorio serioak ekarri zituen nazioarteko auzitegietan.

Gobernua erori ondoren, herriaren presioak eskatzen zuen karga heredatu izugarria (arlotu publikoak zor pribatua bere gain hartze horren ondoriozkoa, neurri batean) modu bidezkoago eta ekitatiboago batez banatzea; horrek bultzaturik, sozialista eta berdeen koalizioak aberastasunaren gaineko zerga bat ezarri zuen, % 1,5eko tasa batez. Baina kapitalaren presioaren aurreko erreakzio ahalke batez, bi urtera mugatu zuten (2010-11), beste bi urtez luzatzeko eta data horretatik aurrera mugagabeki luzatzeko asmoz. Hala, baitan zeraman ihesbide hori berori zela eta, gobernu eskuindar berriak ez du zerga kendu beharrik ere izan. Besterik gabe, 2014tik aurrera ez du zerga luzatu.

Greziako kasua are patetikoagoa da. Krisiaren ondotik, sarrera publikoen bilatze estugarria ez zetorren oso ongi zerga-iruzurrean eta ezkutuko ekonomian hezitako

⁷ Uruguairen kasua oso mugatua da, zeren eta hango Ondarearen gaineko Zergak (IPAT) bakar-bakarrik Uruguain kokatutako ondasun eta eskubideak (eta zorrak) kargatzen baititu. Horri gehitzen badizkiogu banku-sekretu eta zerga-paradisu gisako praktikak, ikusten dugu zaila dela pertsonen aberastasun garbiaren gaineko zergatzat hartzea.

⁸ Gainera, Uruguai bezala, herrialde bi hauek ez dituzte kargatzen atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideak (ez dago, hain zuzen, kapital-ihesik gertatzeko arriskurik). Goreneko tasak desberdinak dira Suitzian kantoien arabera, % 0,14 eta % 0,94 bitartean baitaude; Liechtensteinen, berriz, %0,9ra iristen dira. Zerga horiek Errenta Nazional Garbiarekiko (edo BPGrekiko) duten bilketa maila altua ulertzeko, aztertu egin behar da horiek inpatriatu eta ez-egoiliarrentzat betetzen duten eginkizuna: babes tasa bat da nazioarteko delinkuentziarentzat, aspaldiko garaietan kortsario ingelesek ordaintzen zutena baino sofistikatuagoa eta askoz ere kaltegarriagoa.

goi mailako klasearekin. Nazioarteko erakundeek berek ere jabetza eta aberastasunaren gaineko karga aipatzen zutelarik ekonomia suspertzeko unean kalte txikiena eragingo zuen kargatzat, gobernuak filtratu egin zuen esku artean darabilguna bezalako zerga bat sortzeko aukera. Eta hilabetea baino gutxiago igarota, eta inolako kontrol mekanismorik ezean, funts pribatuetatik heren bat kanpora atera zen.

Eta noski, gobernu gaixoak bazterrean laga zuen aberastasunaren gaineko zerga bidezko baten asmo oro, eta horren ordez Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga 14 €/m²-ko mailara eraman zuen, kasuan kasuko ondasun higiezinaren balioa eta kokapena zena zela. Jendearen protestek gozatu egin zuten pixka bat zerga zentzugabekeria⁹, ez baina gehiegi.

Azken asmakizuna Italiatik dator. Europar krisian bete-betean sarturik, gobernu teknokratetako batek, Batasuneko erakundeen babes sendoz, ondarearen gaineko zerga *ma non troppo* bat asmatu zuen. Eta sentiberatasun asko mintzea saihestearren higiezinaren balio katastralaren % 0,76ra mugatu zuten jabearen lehen egoitza ez zirenen kasuan, eta % 0,15era kontu eta gordailuen balioaren gainean; akzioak eta beste aktibo batzuk salbuetsirik utzi zituzten. Noski, hain zerga bidegabeak urtebete besterik ez zuen iraun, baina ondorio bitxiak laga zituen.

Hala, gaur egun Italian higieziinei errebisio gogorra egin zaien balio katastralaren % 0,25 eta % 0,33 bitarteko Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) bat aplikatzen zaie. Lehen aipatuaren antzeko OHZren errekareru bat dago, % 0,46 eta % 1,06 bitarteko bat, ohiko bizileku ez diren etxebizitzentzat (hori OHZren gaineko % 300 inguruko errekareru da). Eta azkenik % 0,10 inguruko zabor tasa bat eta OHZren bigarren errekareru berezi bat ohiko etxebizitza dagoen herri berean kokatutako bigarren egoitzen gainean.

Eta zer geratzen da ondarearen gainean zuten zerga hartatik? Bada, bi zerga bitxi, atzerriko ondasun batzuen gainean. Horietako batek gordailu eta kontuen % 0,15 kargatzen du, eta besteak higiezinaren balio errearen % 0,76 kargatzen du. Eta bi horietan kenkari gisa aplikatu daitezke jabetza horren gaineko zerga guztiak, hau da, kokatuta dauden herrialdean ordainduak (ez bakarrik aberastasunaren gaineko zerga, baizik eta baita OHZ edo beronen errekareruak ere).

⁹ Beti dago, baina, gauzak okerrago egiteko aukera. Poll Tax ospetsuak, artean M. Thatcherrek zuen ospe apurra pikutara bidali zuenak, piztu egin zuen atzera monarkia eta inperio absolutisten garaiko kapitazio zerga, eta higiezin guztiak kopuru beraz kargatzen zituen (gauza bera ordaintzen zuten markesak eta etxezainak, zerga modu pedagogiko eta ulergarri batean azaltzearen). Thatcher erori zen, noski, eta zerga bi urtez soilik aplikatu zen Eskozian, eta urte batez Erresuma Batuko beste lurraldeetan.

5. Aberastasun garbiaren gaineko ezarpen horren aurreko alternatibak

Hirugarren atalaren amaieran aipatutako arrazoiak direla-eta botere politikoek zerga hau ezartzeari uko egiten diotenez, aberastasun adierazgarri batzuk kargatu behar ziren, sarrera publikoak lortzeko, ondarearen gaineko ezarpenik ezak berekin dakarren bidegabekeria arintzeko, are fiskalitate bidezkoago baten aldeko presioari alternatiba ideologikoren bat emateko. Orain, jarraitu diren hiru bide nagusiak aztertuko ditut, honakoak baitira: higiezinaren gaineko zerga gogortzea, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga gogortzea eta aberastasuna errentaren gaineko zergan egozteko "adibide holandar" deitua.

a) "Property tax" deituak

Hasteko, argitu behar dugu OHZ, ondasun higiezinaren balioaren gaineko zerga erreal eta tasa moderatuko bat, beharrezkoa dela eta ia-ia mundu osoan dagoela. Garbi dago higiezinaren jabetza aberastasun adierazgarri bat dela, eta jabetza hori zergapetzeak balio du bai higiezin horiek sortzen dituzten gastu publikoak neurri batean ordaintzeko, bai luxuzko etxeak edo behar direnak baino etxe handiagoak eraikitzea bridatzeko, eta bidezko eta beharrezko ikusten dute herritarrek.

Oso onargarria da, halaber, zerga erreal honetan izaera pertsonaleko elementuak sartzea. Eta horrela, murrizketak edo hobariak izaten dira errenta baxuko familientzat edo nekazaritzako ustiategientzat, eta ohiko bizilekua ez diren etxebizitzetarako errekarguak aplikatzea ere gauza zabaldua da.

Arazoa, baina, sortzen da norbaitek daukan aberastasun osoa kargatzea saihestu nahi delarik ezarpen horren ordez higiezinaren gaineko ezarpena igotzera jotzen denean. Normala Property tax zerga-sarreraren % 1era ez iristea bada ere, europar herrialde batzuetan % 2ra hurbiltzen da, eta AEBetan % 3ra iristen da¹⁰.

Zerga horrek ez ditu, inolaz ere, eginkizun berak betetzen, eta horren tasak igotzeak, aberastasun garbiaren gaineko zerga baten suzedaneotzat, eragin txarrak dakartza ekitateari dagokionez. Zeren eta OHZ biztanleria osoak jasaten baitu (kostua helarazten zaien jabeak edo maizterrak baitira), eta ez aberastasun handieneko biztanleriak. Etekin gutxien ematen duketen ondasunek jasaten dute gainera (higiezinak % 3 inguru ematen dute batez beste, eta beste ondasunek % 4-5 inguru). Gainera, OHZ zerga erreal bat da, ondasun-zerga bat, eta higiezinaren balioa kargatzen du, horren gaineko beste zergak direnak direla; horrek guztiak are nabarmenago egiten du progresibotasun falta. Eta azkenik, aberastasun pertsonalean higiezinaren proportzioa txikiagoa da, kontuan hartzen diren fortunak zenbat eta handiagoak izan.

¹⁰ Ez da batere zaila, denominadorea oso txikia bada, AEBetako kasuan bezala.

Danimarkaren kasuari meritua aitortu behar zaio. Herrialde horrek, udal property tax-aren osagarri gisa, beste nazional bat sortu du, pertsonala eta progresiboa, % 1eko tasaz 400.000 euro arteko kopuruetarako (kuotan 900 € ingururainoko murrizketak daude ohiko etxebizitzaren kasuan, eta 300 eurokoak errentatua baldin badago), eta % 3ko tasaz gaindikinarentzat. Batek mundu osoan dauzkan etxebizitza guztiak kargatzen ditu zergak (jabetza horri dagokionez atzerrian ordaindutako zergak kentzen dira, hasiera batean OHZ (eta errekarquak) edota aberastasunaren gaineko zerga). Bitxia da aberastasun finantzarioa kargatzea saihesteko eta progresibotasun fikzio bati eusteko daniarrek hartu duten lana; aitortu behar zaie, dena den, halako zintzotasun bat, bere zergari property tax deitu baitiote.

Zintzotasun hori ez dugu Indiako gobernuan ikusten, aberastasunaren gaineko zerga (wealth tax) deitzen baitio jabetzaren gaineko zerga partzial bat besterik ez denari; horren bidez, izan ere, % 1eko tasaz kargatzen ditu aktibo ez-emankorrek, ohiko etxebizitza izan ezik. Hau da, errentan eman gabeko bigarren etxebizitzak, ibilgailu ez atxikiak, bitxi aitortuak eta beste txikikeriaren bat edo beste.

b) Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga (ODZ)

Zerga honen azken oinarria zera da, jaraunspen-masak onura eragitea, halaber, pertsona hilaren komunitateari (hilak berak ere onura eskuratu baitu horretatik). Hori lortzeko, oinordekoei zerga bat ezartzen zaie (zenbat eta senidetasun maila handiagoa izan tasa txikiagoa, pentsatuz alegia (zuzen batzuetan) ekarpen handiagoa izan dutela hilaren bizitzan), edo Sozietateen gaineko Zergagatik tributatzen da, oinordekoa enpresa bat denean. Harrigarria da normalean ezer ez ordaintzea jaraunsele fundazio bat edo "dirua irabazteko asmorik gabeko" beste entitate bat denean; karitate eta "ekintza onen" pribatizazioak gure gizartean iritsi dituen mailen erakusle garbia da¹¹.

Eta zergaren ordainketa saihestea eragozteko (bai Ondorengotza Zergaren kasuan bai kostu bidezko Ondare Eskualdaketen edo transfer tax-aren kasuan), bizitzan zehar egindako dohaintzek ere tributatzen dute.

Bada, baina, aberastasunaren gaineko zergaren etsai amorratu ageri den iritzi korrante interesatu bat¹²; argudiatzen duenez, nahikoa da ODZ on eta sendo bat, bizitzan zehar metatutako ondarea kargatzeko. Eta, egia esateko, arraro gertatzen da arrazoi berberak aipaturik PFEZ kentzea ez eskatzea. Hala, esaten dute aberastasun garbiaren gaineko zerga batek zailtasunak jartzen dizkiola ekintzaitzari, kapital metaketari pizgarriak kentzen dizkiola, (are gehiago) aberasteko askatasunean muturra sartzea dela... eta hori guztia ODZ sendo batez saihets daitekeela.

¹¹ Horrela aberatsek erabakitzen dute, aurrezki publikoaz neurri batean, gure gizartearen kultur norabidea, hezkuntza norabidea, mundu guztiaren botoak berdin balio duen erakunde demokratikoez erabaki beharrean. AEBetan, ohiko adibidea ditugu unibertsitate pribatuek zerbaite truke jasotzen dituzten herentzia eta dohaintzak, nahiz gero unibertsitate horiek benetako predatzaile finantzario gisa jokatu duten.

¹² Aitortu behar da zerga arloan jakinduria eskasekoak diren ekonomialari desinteresatu batzuk ere elkartu zaizkiela.

ODZk, baina, aberastasun garbiaren gaineko zergak (eta PFEZk) betetzen duenaz bestelako eginkizuna betetzen du, harenaren osagarria gainera. Desberdin (edo ezer ez) tributatzeaz gain jaraunsearen arabera, aukera ematen du herentzia-egitura konplexuak sortzeko zergari ihes egitearren, sarritan merkataritzako arrazoiak, zibilak edo familiarrak tartean diren fiskalitatez kanpoko arrazoiengatik¹³..., esaterako zerga saihestuz belaunaldi-jauzi bidez (usufruktuak barne) edo izen-mailegatzailleak erabiliz zein figura horren abusua eginez, bizitzako azken urteetan (edo egunetan) deslokalizatuz edo argi eta garbi iruzurrera joz, erabateko segurtasuna baitugu hildakoak ez ohi dituztela eraman kartzelara.

Argudioari buelta eman geniezaioke (Pikettyk horren mehatxu egiten du), eta adierazi Ondorengotza Zerga (ez baina Dohaintza Zerga, honek zerga-saiheste kontrako zeregina betetzen duelako) zerga zaharkitua dela eta aberastasun garbiaren gaineko zerga batez ordezkatu beharko litzatekeela; zerga berri hau 25 edo 30 urtean behin sortuko litzateke, behin alegia belaunaldiko. Zerga honek, hasieran tasa txiki batez eta lehen milioi eurotik aurrera % 10eko batez, zor publikoaren arazoa konponduko luke, eta bere lekuan jarriko luke atzera aberastasun publikoaren eta aberastasun pribatuaren artean gaur egun dagoen amildegia.

c) "Adibide holandarra"

Holandak ez dauka aberastasunaren gaineko zergarik, eta bere PFEZn ere ez ditu kargatzen ez kapital errentak ez hauen gainbalioak ere. Horren ordeztu, substratu kalbinista erabakigarria izan da prestidigitazio jokaldi bat asmatzeko: aberastasun garbiari (ohiko etxebizitza eta "ohiko" ibilgailuak kenduta) % 4ko errenta bat egozten zaio, eta honek % 30eko tasa finko batez tributatzen du.

Egia da holandarrek PFEZri lotutako hainbat arazo batera konpondu dituztela gainbalioak errentan egotziz sortzen diren batez besteko errentaren arabera; horrek saihestu egiten du zerga-itzurtzea, baita hildakoaren gainbalioaren kasuan ere. Baina kostua gehiegizkoa dateke ekitate terminoetan. Zeren eta % 4 kapitalaren batez besteko errentagarritasunetik hurbil egon daiteke, inflazioa kenduta, baina ez du kontuan hartzen errentagarritasunik ia-ia ez dela (are gehiago, negatiboa izan daiteke) ondare txikietan, eta % 10etik gora hazten dela fortuna handien kasuan.

Beste era batean ere uler daiteke mekanismo hau, pentsatuz alegia holandarrek uko egin diotela kapital errentak (eta gainbalioak) PFEZn kargatzeari eta nahiko iritzi diotela aberastasunaren gaineko zerga bat ezartzeari, lehen eurotik hasita % 1,2ko tasa batez (% 4aren % 30)¹⁴.

¹³ Duela urte batzuk izugarriko ustekabea izan zen zerga-paradisua ezagun bateko trust kudeatzaileek deklaratzeko bere bezero gehien xede nagusia ez zela zerga-iruzurra, baizik eta merkataritzako erreklamazio (iruzurrezko porrotak, esaterako), dibortzio, jaraunse doilor eta abarren kontra babestea. Eta gainera Ogasunari ordaindu beharrik ez bazuten, are hobeto.

¹⁴ Bitxia da, baina, % 1,2ko karga ezartzen diotela, halaber, babes fiskalik edo antzekorik gabeko aktibo ez-emankorrei. Kaiku fundamentalista batzuek aspaldi deiarar egina behar zuten konfiskazioa!

Laburbilduz, edo kapitalaren ustezko errentak kargatzen ari gara PFEZn edo aberastasuna kargatzen ari gara. Baina gauza biak batera ez. Tapaki batez ezin ditugu bi ohe estali, are gutxiago horien artean horren tarte handia dagoenean. Eta kontrakoa nahi duten arrakeroei erantzun beharko litzaieke "timo holandarraren"¹⁵ aurrean gaudela; ez baita gainera batere arraroa, sozietateen zerga-iruzurrerako egiturak lantzen aditua den herrialde batentzat, horretarako baliatzen ditu eta Aruban duen zerga-paradisuaekin gurutzatutako inbertsioak.

6. Norvegia

Europa osoan ondoen prestatuta dagoen aberastasunaren gaineko zergaren deskripzio bat emanez, esango dugu Norvegian % 1eko tasa aplikatzen dela gutxi gorabehera 125.000 euroko kopurutik gora. 100.000 euroko beste salbuespen bat dago ohiko etxebizitarik ez daukaten pertsonentzat. Honi erantsi behar ohiko etxebizitza bere balioaren % 25ean konputatzen dela, eta beste higiezinak % 50ean; finantzaketa, aldiz, negatiboan konputatzen da, kopuru osoaz (betiere kontuan hartuta higiezinaren balioari kredituaren balioa kenduta emaitza ezin dela inoiz negatiboa izan).

Enpresa kotizatuetako partaidetzak % 100ean baloratzen dira, eta ondasun-eraketa hutsez bestelako enpresa ez kotizatuetakoak kontabilitateko balioaren % 65ean¹⁶. Ez dago babes fiskalik ez hobari edo salbuespenik "familia" enpresen kasuan.

Zerga-egitura horrekin, erraz ulertzen da herrian izan duen onarpen zabala, zergadunetatik % 16 bati eragiten badio ere (horrelako zerga batek munduan beste inon baino askoz kopuru handiagoari eragiten dio, alegia).

Aipatu beharreko beste elementu bat da zerga-bilketaren % 70 zerga administrazio orokorrera doala, eta % 30 udaletara. Eta horri esker OHZ oso txikia da (normalean % 0,2, eta % 0,7raino hel daiteke hiri batzuetako bigarren etxebizitzaren kasuan), eta udaletatik ia-ia heren batean (udal horiek biztanleria txikienekoak izaten dira, klima txarrekoak eta hiri-sakabanaketa handienekoak) ez dago OHZrik.

7. Frantzia

Frantzian impôt de solidaricé sur la fortune deitua 1.300.000 eurotik gora (familiako) eskatzen da, baina murrizpena bakar-bakarrik 800.000 euroko kopuruari aplikatzen zaio (bada beste murrizketa bat, 1.300.000 euro eta 1.400.000 euro bitarteko jauzi-akatsa saihesteko). Kopuru horiek inflazioari lotuta egongo dira 2015eko urtetik aurrera. Tasak % 0,5etik 10 milioi eurotik aurrerako kopuruetarako % 1,5era iristen dira.

¹⁵ "Timo holandarra", ijito bertsio esan dezakegunean, entzun nuen azken aldian, errentagarritasuna % 4tik % 3ra jaisten zuten gainera, eta tasa % 30etik % 24ra, eta horrek karga % 1,2tik % 0,72ra jaitea zekarren; ahantzi egiten zuten timo orok arrakasta lortzeko bete behar duen ezinbesteko baldintza: zikoitza ez izatea ziria sartu nahi zaion herriarekin.

¹⁶ Kontabilitateko balioa errealearen azpitxek egon ohi denez, eragin ekonomikoa % 50eko hobari batenaren antzekoa da, baina akziodun guztientzat, ez soilik partaidetza esanguratsu bat dutenentzat edota bertan lan egiten dutenentzat. Enpresa lokaletan kapitalaren erabilera produktiboa bultzatzeko beste modu bat, kapital handien onerako izan ohi diren bidegabekerietan erortzeko.

Ohiko etxebizitzak % 30eko balio murrizketa bat du. Ohiko etxebizitzarako alokatuek edo antzekoek % 20ko murrizketa dute, eta % 40raino hel daiteke kasu batzuetan (erretiratuen kasuan etxebizitza bat alokatzeagatik...).

Ondasun profesionalak (muga batez) eta famili enpresen partaidetzak salbuesita daude; azken hauen kasuan, baina, oso eztabaida publiko handia izan da. Gainera, bada 100.000 euroko salbuespen bat enpresa-talde batean 6 urte baino gehiagoz egon diren langileentzat (edo erretiratuentzat), enpresa horietako kapitalean dituzten partaidetza zuzen edo zeharkakoengatik¹⁷. Azkenik % 75eko hobaria dago, muga batez, eskualdean inbertitzen duten nekazaritza, abelazkuntza edo basozaintzako enpresetan inbertitzeagatik. Badira, halaber, salbuespen batzuk bizitza-aseguruetan eta kapitalizazio-kontratuetan; horiek beharrik gabe nahasten dute zerga, eta ekitateari eragiten diote.

Babes fiskala eztabaida gogor baten gai izan da, eta bada oraindik ere. Auzitegi Konstituzionalak, sistemaren adar politiko gisa jardunez, beharrezkotzat deklaratu du, aparteko arrazoiak direnean izan ezik (ekonomiaren atzeraldi bat, esate baterako); horregatik, errenta irabaziaren % 75ean finkatu da.

Frantzia zergadunetatik % 2 pasatxo dago kargatuta, eta eztabaida ia-ia uneorokoa da, tartean baitira zerga kendu nahi dutenak, mantendu nahi dutenak, babesik eta famili enpresentzako salbuespenik eza berrikusi nahi dutenak eta, azkenik, % 0,25 eta % 0,5 bitarteko eskala babesik zein "famili" salbuespenik gabe bat planteatzen dutenak.

8. European diren zergen arteko konparaziozko azterketa

a) Ez-egoiliarak zergapetzea

Murrizketa orokorrari dagokionez, bakar-bakarrik espainiar estatuko lurralde erkidean eta lau foru ogasunetatik hirutan (Gipuzkoan ez) aplikatzen da ez-egoiliarrentzako murrizketa orokorra¹⁸. Espainiar ogasunaren arrazoa atzerriko inbertsiogileak erakartzea da, turismo zonetan higiezin burbuila arintzeko eta errentadunen eta hirugarren adinekoen turismoan espezializatzeke, ekitate faltaren ondoriozko konplikaziorik gabe. Beste foru ogasunen arrazoiak ezezagunak dira, zerga honekiko eta nazioartean ematen zaion tratamenduarekiko halako mespretxu intelektual batetik haratago.

Beste elementu garrantzitsu bat da bai Norvegiak bai Frantziak ulertzen dutela ezen (zergapetze bikoitzaren inguruko itunen salbuespenaz) enpresa baten jabetzaren % 10 baino gehiago karga daitekeela, edo edozein portzentaje enpresa hori ondasun higiezin alokairuan ari bada. Aitzitik, ez dituzte beste aktibo finantzarioak kargatzen.

Ez-egoiliarren izaerari dagokionez, hainbat herrialdek ez dute ondasunaren gaineko

¹⁷ Salbuespen hau sindikatu eta kooperatibek proposatuta sartu zen.

¹⁸ Frantzia ez dago murrizpenik, baizik eta lehen tarte 0 izatea.

ezarpenik jaso nahi zergapetze bikoitzaren inguruko alde biko itunetan (Britainia Handia, Holanda, Portugal...), zerga horien kontrako jarrera argi batez. Norvegiak erreazionatu egin du 2014ko urtean hasieratik, eta errentaren gaineko zergan eta aberastasunaren gainekoan bereizi egin du egoiliar izaera; horrela, badira aberastasunaren gaineko zergan egoiliarrak eta errenta ondorioetarako, aldiz, ez-egoiliar direnak¹⁹. Hauxe da jarrera koherente bakarra, aberastasunaren gaineko nazioarteko fiskalitate baterantz jo nahi izanez gero.

b) Ondasun higiezinak, balorazioa eta murrizketak

Ohiko etxebizitza konputatzeko garaian, ikusi dugu Norvegiak balioaren % 25 konputatzen duela (koherentzia gordez murrizpen orokor oso txiki batekin), Frantziak % 70, eta estatuan lurralde erkideak eta Gipuzkoak 300.000 euroko murrizpen bat aplikatzen dutela. Bizkaian eta Araban murrizpena 400.000 eurokoa da, baina larria zera da, Bizkaia % 50eko balio murrizketa batekin konbinatzen duela (horrenbestez 800.000 eurokoa da murrizketa) eta Arabak balio katastrala aplikatzen duela; eta hau guztia horien gaineko fiskalizazioa ezkutuan desagerrarazteko modu bat besterik ez da, esaterako Piketty dioen moduan.

Beste etxebizitzaren balorazioari dagokionez, Norvegia, Frantzia, Italia edo Danimarkan ohikoa balio erreala aplikatzea da eta, atzerrian daudenean, dagokion administrazioak emandako balio erreala, betiere zainduz gutxienez eroste balioa edo dagokion herrialdeko wealth tax, property tax edo transfer tax balioa aplikatzen dela. Antzeko zerbait egiten da lurralde erkidean, Nafarroan edo Gipuzkoan.

Baina Araba eta Bizkaia berriro ageri zaizkigu administrazio probintziano gisa, ez baitzaizkie interesatzen zergak nazioarte mailan dituen inplikazioak. Hala, batek estatuko lurraldean dauzkan etxebizitzak eta atzerrikoak bereizten dituzte: lehenei balio katastrala aplikatzen diete, balio murrizpen batez, beharbada higiezinaren krisia eta bankuen zuloak konpontzen laguntzeko, eta bigarrenei, aldiz, eroste balioa aplikatzen diete, probintzia horietako inflazioaz zuzenduta (horrek, diskriminaziozkoa izateaz gain, Iparraldearekiko esaterako, inflazio altuko herrialdeetan (Hego Amerikan adibidez) kokatutako etxebizitzak ez-fiskalizatzea dakar).

c) "Famili" enpresak, babes fiskala eta tasa aplikagarriak

Bi argudio on badira enpresa ez kotizatuak negoziazio-merkatu antolatu batean (Bursan, esaterako) kotizatzen dutenak baino baxuago kotizatzeke: ilikidezia eta hurbiltasun iraunkorra. Izan ere enpresa ez kotizatuak balio intrintseko txikiagoa dute bere likidezia faltagatik eta, gainera, horietako inbertsioak normalean onura gehiago ekartzen dio ekonomia lokalari. Onura hori inbertsiogile guztientzako murrizketa batean jasotzea,

¹⁹ Honek oso eragin handia izan du astean zehar Norwegian bizi diren petrolio-plataformetako langile kualifikatuenean artean, eta langile horiek langile norvegiarrez edo etorkizunean zerga hau ezartzearen hain kontra ez dauden (eta bere ZBIetan sartzen duten) herrialdeetako langileez ordezkatzea iritsi dira.

Norvegian bezala, edo jabeentzako hobari murriztu batean jasotzea, Gipuzkoan bezala (ondo legoke langileentzat ere zabaltzea, muga batez, Frantzian egiten duen moduan), eztabaidatu eta hobetu beharreko kontua da.

Baina irrealia da horiek zero euro balio izatea. Eta jada ikusi dugu ezen Frantzian, espainiar estatuan bezala (Gipuzkoan izan ezik); "famili" enpresentzako salbuespena²⁰ aplikatzen dela, eta baita babes fiskala ere. Honek erabat indargabetzen ditu zergak izan beharko lituzkeen eginkizunak, 2. atalean ikusi ditugunak, eta parez pare zabaltzen dizkio ateak zergak legitimazio soziala galtzeari, etorkizunean aberastasun garbiaren gaineko ezarpena kentzeari bezalaxe. Politikariek eta goi mailako funtzionarioek horren inguruan hartutako jarrerak ikusirik, ia-ia segurua da horixe dela (edo zela, zeren eta pertsona horiek ez baitira, ez noski, bere konbikzio sendoengatik nabarmendu ohi) zerga honen inguruan duten azken xedea.

Bitxia da ikustea aberastasunaren gaineko ezarpen progresibo bat dagoen bi lurraldeetan (bakarrak dira) tasa aplikagarria % 1eko izatea (Norvegiak tasa bakar gisa, Gipuzkoan gehienezko gisa 3 milioitik gorako zerga-oinarriaren kasuan), Frantziako % 1,5ekoa baino baxuago, are espainiar estatuan altuagoak diren tasak baino baxuago. Eta hemen ere egiaztatzen dugu ezen, zerga-oinarria ahalik eta gehien hurbilduz gero aberastasun garbiaren kontzeptura, bilketa handiagoak lortzen direla, tasa baxuagoez, eta zerga progresiboa dela bere eskala osoan; horrek, gainera, kontzientzia fiskal handiagoa sortzen du, eta zergaren legitimotasun handiagoa, baita zerga horretako zergadunen beren artean ere²¹.

9. Pikettyren proposamena. Aberastasun garbiaren gaineko zerga bat EB osoan

Pikettyren liburu aipatuak proposamen batzuk aurreratzen ditu, eta horiek Gipuzkoako planteamenduetan jada ageri baziren ere, europar eztabaida fiskalaren muinean kokatu dira. Lehenik, planteatzen du datu fiskal guztien transferentzia erabateko eta bat-batekoa ("on-line") egotea Europar Batasunaren barnean. Hau dagoeneko egiten da BEZaren eta zerga berezien kasuan, burgesiari komeni zitzaielako eta ezinbestekoa zelako merkantzien zirkulazio libererako; beraz, ez litzateke batere zaila izango zerga zuzenetara ere zabaltzea, borondate politikorik izanez gero.

Bigarrenik, aberastasunaren gaineko zergan zeharkako presio fiskala jaistea planteatzen du, zerga administrazioek aurre-aitorpenak igortzea, eta zerga aitorpena egiteko mekanismo publikoak egotea, PFEZren kasuan dauden bezala.

²⁰ Ez gaitetzen eror herri isolatu bateko lantegi txiki bat gogorazten digun izenaren iruzurrean. Microsoft, BMW edo L'Oreal, Mercadona, Inditex, ACS, FCC edo Acciona enpresetako akziodun handiak sartzen dira kategoria horretan. Eta Euskal Herrian bertan ere baditugu ehunka soldatapeko dauzkaten enpresak, akziodunek hobari hori izaten dutenak.

²¹ Gipuzkoako AFHZk erakutsi duen moduan, deskribatua bezalako zerga batek zergadunetatik % 99,5 baino gehiago faboratzen ditu, zerga horretan tributatzen ez dutelako edo aurretik zegoen zerga trukatuaz baino kopuru txikiago edo, bestela, berdin batez tributatzen dutelako. Komenigarri litzateke % 0,5en, hots, biztanleriaren parte aberatsenaren interesak defendatzen dituzten talde politiko eta sozialen irrikak ikertzea. Interesgarria izango litzateke.

Hirugarrenik, babes fiskalez edo enpresa kotizatuentzako murrizpenez zerga ez adulteratzea. Bakar-bakarrik murrizpen batzuk onartzen ditu lurraldearekiko lotura duten ETE ez kotizatueta inbertsioak (kopuru jakin bateraino) pizteko, betiere ondare izugarrientzako ihesbideak sortzea saihestuta.

Eta laugarrenik, % 1eko tasa adierazgarri bat proposatzen du 1 milioi eurotik gora, eta % 2koa 5 milioi eurotik gora. Kantitate txikiagoentzako tasa baxuagoak proposatzen ditu halaber, baina ez dituzenez deskribatzen OHZrekiko interrelazioa eta honek EB mailan erakusten duen aldakortasun izugarria, seguruenik 200.000 eurotik aurrerako % 0,1eko tasari kentzen bazaio ordaindutako OHZ horien parte bat, eskalaren tarte honek apenas izango lukeen biltze indarrik²².

Eta proposatzen du prozesua jada martxan jartzea, tasa murriztuagoko aberastasun garbiaren gaineko zerga batez. Horixe da liburua argitaratu aurretik Gipuzkoan jada abiatua genuen bidea; izan ere, berak dioen moduan, ez zen batere erraza ikustea indarrean zeuden zerga sistemek handitu egiten zituztela aberastasunaren banaketako desberdintasunak, halako mailan ezen arriskuan jartzen baitzuten demokrazia eraginkor baterako behar den gutxieneko gizarte kohesioa bera.

²² Aberastasunaren gaineko fiskalitate eta ezarpen bidezko baten aldeko borroka nazioarteko maila hartu du (EBren barnean batez ere). Beraz, ez da zerga hori gabeko eta property tax altuko herrialdeen aldeko diskriminaziora jo behar. Hori saihesteko modu bat zera da, aukera ematea aberastasunaren zergan kentzeko ordaindutako property tax-aren erdia, eskalako tasa baxueneko mugaraino.

Desberdintasun muturrekoa eta demokraziaren bahiketa

Teresa Caverio

Oxfam Intermón-eko ikertzailea

1. Desberdintasun muturrekoa eta demokraziaren bahiketa
2. Egungo desberdintasunaren arrazoiak
3. Desberdintasuna eta politika atzematea
4. Espainiaren kasua: desberdintasuna areagotzea
5. Zerga sistemak desberdintasunean duen garrantzia
6. Zerga sistemak Espainian gutxi eta gaizki biltzen du
7. Desberdintasuna areagotzea bridatzea
8. Desberdintasuna eta pobrezia areagotzea bridatzea
9. Kalitate demokratikoa sendotzea

1. Desberdintasun muturrekoa eta demokraziaren bahiketa¹

85 pertsonak, Forbes zerrendaren arabera munduko 85 pertsona aberatsenek, munduko biztanleriaren erdiak partekatzen duen aberastasunaren pareko aberastasuna daukate, hau da, 3.600 milioi pertsonak dutenaren parekoa. Hau da, munduko errentaren erdia biztanleriaren % 1en esku dago, eta % 1 horren aberastasuna, 110 bilioi dolarrekoa, munduko biztanleriaren erdi pobreenak daukan errenta guztia baino 65 aldiz handiagoa da. Hainbesteko aberastasuna metatzen duten pertsonen botere ekonomikoa mehatxua da sistema demokratikoentzat, zeren eta elite horiek gai baitira erabaki politikoak erosteko, hain zuzen erabakiak beraien interesen arabekoak izan daitezzen.

1. Grafikoa. Aberastasunaren banaketa



Munduko desberdintasun ekonomikoa da XXI. mendeko mehatxu nagusia, eta orain arte parekorik izan ez duen desberdintasunaren areagotze horrek hondamendi ekonomiko eta soziala ekar dezake. Egia bada ere pobrezia, batez ere Txinak eta Indiak izan duten aurrerapenari esker, murriztu egin dela azken bi hamarkada hauetan zehar, epe honetako hazkunde ekonomikoak batez ere planetako pertsonarik aberatsenak faboratu ditu, eta sarrera-desberdintasuna handitu egin da epe horretan zehar, are muturrerago joz 2008an krisialdia hasi zenez geroztik.

¹ Oxfam-en txostenak:



- Cavero, T. (2012), 'Crisis, desigualdad y pobreza', Oxfam Intermón
- Cavero, T. y Poinasamy, K. (2013), 'La trampa de la austeridad', Oxfam
- Cavero, T. (2014), 'Tanto tienes, ¿tanto pagas?', Oxfam Intermón
- Fuentes Nieva, R. eta Galasso, N. (2014), 'Gobernar para las élites. Desigualdad y secuestro democrático', Oxfam




Herrialde aberatsetan zein errenta ertain eta baxuko herrialdeetan, gizarteko % 10 aberatsenak igo egin ditu bere sarrerak, modu esponentzial batean, azken 30 urteotan; epe berean, aldiz, biztanleriaren % 40 pobreenaren sarrerak murriztu egin dira. Gaur, hamar pertsonatik zazpi bizi dira epe aipatuan zehar desberdintasuna areagotu den herrialdeetan.

Herrialde askotan (barnean Txina, Indonesia, Pakistan, India eta Nigeria), biztanleriaren % 10 aberatsenak errenta nazionalean izan duen partaidetza gora egin du 80ko urteez geroztik, eta % 40 pobreenarenak beherantz egin du; horrenbestez, desberdintasuna handiagoa da.

2. Grafikoa. Desberdintasunaren garapena


- Errentaren partaidetza % 10 aberatsenaren eskuetan
- Errentaren partaidetza % 40 pobreenaren eskuetan






Herrialde askotan, biztanleriaren % 1 aberatsenak errenta nazionalean daukan partaidetza handitu egin da 80ko urteez geroztik, eta kasu askotan % 50 baino gehiago. Estatu Batuetan, % 1 aberatsenak metatu du krisiaren ondotik 2009az geroztik izan den hazkunde guztiaren % 95; biztanleriaren % 90 pobreena, aldiz, are pobretuago da.

3. Grafikoa. % 1 aberatsenaren errentako partaidetza, portzentajea, 1980-2012



Iturria: F. Alvarado, A.B. Atkinson, T. Pikety and E. Saez (2013) The World Top Incomes Database. <http://topincomes.g-mond.parisschoolofeconomics.eu>
 Bakarrik 1980ko datuak dituzten herrialdeak jaso dira eta 2008az geroztikoak.

4. Grafikoa. Biztanleriaren % 1 aberatsenak errenta nazionalean daukan partaidetza



Iturria: F. Alvarado, A.B. Atkinson, T. Pikety and E. Saez (2013) The World Top Incomes Database. <http://topincomes.g-mond.parisschoolofeconomics.eu>
 Bakarrik 1980ko datuak dituzten herrialdeak jaso dira eta 2008az geroztikoak.

Gaur egungo desberdintasunak batez ere etikoki dira onartezinak, baina larriena da pobrezia eta gizarte bazterketaren hazkundera bultzatzen dutela, ekonomia suspertzeko aukerak kaltetzen dituztela hazkundera ekonomikoa eta kontsumoa eragozten baitituzte, eta aukera berdintasuna eta eskubide sozialak betetzea eragozten dutela.


2. Egungo desberdintasunaren arrazoiak

Nola azaltzen da azken hamarkadetan izandako hazkundera ekonomikoa horrela metatu izana biztanleriaren hain portzentaje txikiaren eskuetan? Ulertzeko, merezi du 80ko urteez geroztik ia-ia mundu osoan zehar lau esparrutan gertatu dena berrikustea:

1. Nazioarteko esparru finantzarioan honen erabateko desarautzea ikusi dugu, eta horretarako argudiatu izan da kapitalaren zirkulazio libreari jarritako kontrol orok kalte egiten diola inbertsioari eta, beraz, biztanleriari oro har onura ekarri beharko liokeen hazkundera ekonomikoari. Zeharo bestela, baina, desarautze finantzarioak bakar-bakarrik munduko pertsona aberatsenak faboratu ditu. Ondoko grafikoak erakusten du nola desarautze finantzario handieneko epeak bat datozen biztanleria aberatsenaren % 1 horrek Estatu Batuetako errenta nazionalen duen partaidetza handitu duen epeekin.

5. Grafikoa.


Finantza desarautzearen eta desberdintasun sozialen arteko erlazioa Estatu Batuetan



Datuen iturria: Financial Deregulation, <http://www.nber.org/papers/w141644.pdf>; Income share - Piketty and Saez (2003, 2012).

2. Fiskalitatearen esparruan, azken hiru hamarkadetan goreneko zerga-tasen jaitsiera orokor bat ikusi dugu, hau da, errenta altuenen eta kapitalaren tributazioaren jaitsiera; eta neurri horrek baliabide gehien dituztenak faboratzen ditu, argi eta garbi. Horixe erakusten du Frantzia, Erresuma Batua, Estatu Batuetan, Mexikon, Suedian eta Alemanian 1975 eta 2009 bitartean goreneko zerga-tasek izan duten bilakaerak.

6. Grafikoa. Tipo ezgarri handienak aukeratutako sei herrialdetan



Iturria: 'Top Marginal Personal Income Tax Rates, 1975-2008', Tax Policy Center, http://www.taxpolicycenter.org/taxfacts/Content/PDF/occd_historical_toprate.pdf. Frantzia, Erresuma Batua, AEBak, Mexiko, Suedia eta alemaniako datuak eskaintzen ditu.

3. Lan esparruan, azken 30 urteotan lan baldintzak negoziatzeko mekanismoen ahultzea ikusi dugu. Sindikatuek eta langile elkarteek murizturik ikusi dute bere espazioa, eta lan merkatua "malgutzeko" neurriak hartu dira; horiek guztiek, oro har, laneko kostuen eta kaleratzeen merkatzea ekarri dute. Hurrengo grafikoak erakusten digunez, Estatu Batuetan sindikalizazioak behera egin ahala handitu egin da gizarteko % 1 aberatsenak errentan duen partaidetza.

7. grafikoa. Sindikalizazioaren jaitsiera eta % 1 aberatsenak errentan duen partaidetzaren igoera




Iturria: Lan Estatistika Bulegoa (2013) 'Unión affiliation data from the Current Population'; Saez & Piketty (2003) 'Income Inequality in the United States, 1913-1998', *Quarterly Journal of Economics*, 118(1), 1-39 (2012ra arte eguneratutako taula eta grafikak, 2013ko iraila).

4. Azkenik, azken hiru hamarkadetan zehar ELGAko herrialdeek (eta beste batzuek) murriztu egin dute oinarrizko gizarte zerbitzuetako, hots, hezkuntzako, osasuneko eta gizarte babeseko politiketako inbertsio publikoa. Neurri hauek ez diote inolako logika ekonomikorik erantzuten; esentzia neoliberalaren parte dira, horren arabera estatuak tramite administratiboen bideratzaile huts izan behar baitu, enpresa pribatuak mota guztietako produktuak eskaini ditzan (hezkuntzarekin eta osasunarekin lotuak barne), kontsumitzailearen gustura eta ordainketa baten truke. Gizarte babesaren arloan, neoliberalismotik elkartasunezko ekintzak sustatzen dira; horiek kostudunak izan daitezke, edo kostu gabeak. Horrela, estatuak laga egiten dio gizarte eskubideen eta aukera berdintasunaren berme izateari. Historiako hainbat unetan krisi ekonomikoak aprobetxatu izan dira ildo horretatik doazen neurri politikoetan aurrera egiteko, inolako justifikazio ekonomikorik gabe. Horixe gertatu zen Nazioarteko Diru Funtsak eta Mundu Bankuak 80ko urteetan Latinoamerikan, 90eko urteetan Afrikako hainbat herrialdetan eta Asia hego-ekialdean eta gaur egun Europar Batasuneko herrialdeetan sustatutako "egitura doikuntzako" neurri sortekin.

Neurri horien ondorio suntsitzaileenetako bat aukera berdintasuna ahalbidetzen duten mekanismoak indargabetzea da. Zehazki, hezkuntza, osasun eta gizarte babes publiko, unibertsal eta kalitatezko politikek ahalbidetzen dute pertsona orok oinarrizko eta beharrezko hezkuntza, osasun eta bitartekoak izatea, bizimodu duin batez gozatzeko, bakoitza jaiotzen den etxeko sarrera maila dena dela. Beste hitz batzuek esanda, "igoera soziala" egituratzen duten politikak dira: pertsona oro bere gurasoak bizi izan ziren baino hobeto bizi ahal izatea.

Desberdintasunak betikotu egiten ditu gizarte desberdintasunak berak. Ondoko grafikoak erakutsi egiten du Gini indizearen arabera desberdintasun maila handienekoak diren herrialdeetan pertsonen maila ekonomikoa determinatzen duena, neurri handi batean, gurasoen maila ekonomikoa dela (Brasil, Txile, Peru, Argentina edo Estatu Batuetako kasua da). Berdintasunezkoagoak diren herrialdeetan, aldiz, eskandinaviarretan esaterako, gurasoen maila ekonomikoak apenas duen eraginik seme-alabek iritsi ahal izango duten maila ekonomikoan.

8. Grafikoa. Seme-alaben eta haien gurasoek irabazi zutenaren arteko lotura



Iturria: M. Corak (2012) Inequality from Generation to Generation: The United States in Comparison

Egungo muturreko desberdintasun mailetara eraman duten neurriak justifikatzeko, teoria neoliberalak argudiatu dute ezen kapitala, zergarik gabe eta zirkulazio librea, modu produktiboan inbertitzen dela eta enplegua sortzen duela, eta estatuaren esku-hartzeak oztopatu egiten duela inbertsio horren eraginkortasuna. Teoria hori bete beharrean, baina, gertatu dena zera da, kapitala modu lizun batean metatu dela esku gutxi batzuetan, eta ekimen produktiboak agortzen ari zirenean kapital hori biderkatzen segitzeko amorruan, fikziozko ekonomiaren bilbea diseinatu zela, inolako estatu-erakunderen ikuskaritzarik gabe; eta horren guztiaren emaitza XXI. mendeko atzeraldi handia izan da. Krisi ekonomikoari aurre egiteko hartu diren doikuntza neurriak norabide berean are sakonago joan dira, ez besterik; izan ere, krisiaren eragina gogorren izan den herrialdeetan pertsonarik aberatsenek ez dute inolako eraginik jasan.


3. Desberdintasuna eta politika atzematea

Gauza hauetatik bat bera ere ez da gertatu ez berez ez halabeharrez. Merkatuak eta kapitala ez dira izaki abstraktuak eta ez dute bizitza propiorik; oso bestela, pertsona jakin batzuek eman eta hartutako agindu eta erabakiez arautzen dira. Eta 2014ko urtarrilean Oxfam Intermón-en argitaratu genuen 'Gobernar para las élites: Secuestro democrático y desigualdad económica' txostenak salatzen duena da liberalismo ekonomikoaren abantailak defendatu dituztenak direla, hain zuzen ere, horren onura jaso dutenak, hau da, planetako pertsonarik aberatsenak. Eta horretarako bere botere ekonomiko itzela erabili dute, ekonomia gidatzen duten arauak definitzeko ardura duten erakundeetan eragiteko, hain zuzen arau horiek ez ditzaten kaltetu, faboratu baizik, elite horien interesak.

Zeren eta desberdintasuna ez baita soilik diruaren eta aberastasunaren banaketa gaitzesgarri batek sortzen duen arazoa. Aberastasun metaketak usteldu egiten ditu erakunde eta prozesu demokratikoak, halako moduan ezen erabaki politikoak, gehiengoaren ongizatea bilatu beharrean, gutxiengo baten interesen zerbitzurako baitaude. Interes ekonomikoak diskurtso mediatikoan eta agenda politikoan sarturik, dauzkaten pribilegioak betikotu egiten dira, are aberastasun metaketa handiagoa eta desberdintasun handiagoa ekarriz, eta belaunaldiz belaunaldi luzatuz bidegabekeria.

Oxfam-ek 2013ko urtearen amaiera aldean egindako inkesta batek erakusten du zein ohikoa den hainbat herrialderi eragiten dioten erabakietan pertsona aberatsenek gehiegizko eragina dutelako pertzepzioa. Horixe gertatzen da Espainian, Brasilen, Estatu Batuetan, Erresuma Batuan eta Hego Afrikan; baina Espainiaren kasuan bereziki deigarria da, zeren eta pertzepzio horrekiko adostasun maila sei herrialde horietako altuena da, Hego Afrikakoa bertakoa baino ere altuagoa, azken herrialde honetan desberdintasunak eta eliteen eraginak Espainian baino ageriagoak direla pentsa bazitekeen ere.

9. Grafikoa. Oxfamen inkesta. Adierazpen honekin bat ote zetozen galdetu zitzaizen inkestatuei: "Aberatsek eragin handiegia dute herrialde honen norabidean"



Oxfam-en txostenak izan zuen sartzeko mailak erakusten du mahai gainean jarri genituela mundu osoko herritarrengan kezka sakona eragiten duen errealitatea marrazten duten argudioak, diagnostikoa eta irtenbideak. Errealitate hori, honela utzirik agerian, oso deserosoa da ez bakarrik aipatzen ari garen elite horrentzat, baita eredu ekonomiko eta sozial elitista baten alde aberaste neurrigabe baten ontasuna defendatzen dutenentzat ere.


4. Espainiaren kasua: desberdintasuna areagotzea

Espainiak ez dio ihes egiten desberdintasunaren areagotzeari. Halako dekalaje batez iritsitako joera bat izan zen, zeren eta 80ko urteetan herrialdea artean berreskuratzen ari zen diktaduran zehar gelditurik zeuden inbertsio publikoaren mailak. Baina 90eko urteetako hamarkadan izandako gobernuek agenda liberala bereganatu, eta horrela higiezinaren burbuilaren zabalkunderako eta krisia iristeko giro apropos eta lehergarri bat prestatu zen. Kontua da ezen, krisiaren aurretik jada, 90eko urteetako ekonomiaren boomean zehar eta 2005 arte, Espainian izandako hazkunde ekonomikoak eta soldaten hobekuntzak bi joera suntsitzaile ezkututzen zituztela:

1. Aberastasuna pertsona aberatsenen eskuetan metatzea (kapital etekinek erakusten diguten moduan), desberdintasunaren areagotze batez, azken urteetan bereziki. Hala, 2007an % 5 aberatsenak 78.000 euro baino gehixegoko sarrerak zeuzkan urtean, eta

% 0,01ek (super aberatsek) 1.800.000 eurotik gorako sarrerak zeuzkan, batez beste, urtean. Sarreren bilakaerak, 1980ko urtearekiko, erakusten du zenbat gehiago kobratzen zuten gizarte taldeek 2008an, 1980ko datuekiko. Biztanleriaren % 90 pobreenak 1980an zeuzkan sarrerak baino % 60 gehiagokoak zeuzkan 2008an. Baina deigarriena super aberatsenen sarreren bilakaera da, ezen 1980an biztanleriaren % 90ek baino 74 aldiz handiagoko sarrerak zeuzkaten, eta 2008an 173 aldiz handiagokoak; hain justu epe horretan zehar bere urteko sarrerak % 275 hazi izanaren ondorioz.

10. Grafikoa. 1980 – 2008 arteko desberdintasun sozialen hazkundera Estatu espainolean



2. Egiturazko pobrezia mantendu zen, pobrezia buruzko adierazleek erakusten duten moduan, egonkor mantendu baitziren, beherantz egiteke alegia, 1994 eta 2007 bitartean. Hau da, urrezko hamarkadan zehar, bitartekoak bazirenean, ez zitzaion heldu egiturazko pobrezia arazoari: ez zen gizarte babesa finkatu eta ez zen handitu gastu sozialaren inbertsioak BPGn hartzen zuen proportzioa.


Espanian, krisi ekonomikoak agerian jarri ditu ongizate estatuko oinarriko egituretako pitzadurak: batetik, ekonomian estualdirik ez zenean egiturazko pobrezia desagerrarazteko gai izan ez ziren gizarte politikak, eta, bestetik, politika horiek birbideratzeko adina biltzen ez eta, aitzitik, gure mugetatik barrura zein kanpora aberastasuna metatzea bultzatzen (mimatzen) duen zerga sistema bat. Espainian 2010az geroztik hartutako neurriek sakondu egiten dituzte pitzadura horiek, eta batez ere langileei eta baliabide gutxien dauzkaten pertsoneri eragiten diete; ondorio horiek dakartzaten neurrien artean ditugu...

- Zerga igoerak eta soldata jaitsierak;
- Hezkuntza, osasun eta gizarte babeseko murrizketak;
- Lan eskubideen ahultzea eta enpleguaren prekarizazioa;
- Garapenerako laguntza ofizialaren aurrekontua minimora eramatea, ezinbestekoa denean gure mugetatik kanpo are zertzelada zailagoetan daudenekiko elkartasunezko politikak artikulatzeko.

Pobrezia eta gizarte bazterketa izugarri hazi dira gure herrialdean azken lau urtean, baina oraindik ez da zalantzan jartzen dirutza edo fortuna partikularren parte batek eta enpresa handien (banku batzuk barne) irabaziek potolotzen segitzea zerga-paradisuetan dauzkaten kontuak, ezta fortuneen beste parte bat zerga betekizunetatik libre uzten dituen forma juridikoetan biltzea ere. Neurri sendorik ere ez da hartu krisira eraman gaituzten neurrigabekeriak prestatu zituztenek erantzukizunak bere gain har ditzaten; denon diruaz (orain zor publikoa da) erreskatatu dira, ordea, horiek finantzatu zituzten bankuak.

Hala, gizarte desberdintasun handieneko herrialdeen artean Espainia bigarrena da, EBko herrialdeak hartuz gero aintzat. Gini koefizientea (honek herrialde bateko sarrera-aldea neurtzen du: zerok berdintasun akasgabea adierazten du, eta 100ek desberdintasun erabatekoena) 35ekoa da Espainian 2012an, mailarik altuena alegia erregistroak daudenetik, eta EBko altuena halaber. 2008ko urtean Espainian biztanleriaren % 20 aberatsenak % 20 pobreenak baino 5,3 aldiz handiagoko sarrerak zeuzkan, eta 2011ko urtean alde hori 7,5 aldikoa zen jada (Eurostat-en datuen arabera). Progresio horretan segituz gero, 2025eko urtean % 20 aberatsenak % 20 pobreenak baino 18 aldiz handiagoko sarrerak izango lituzke.


11. Grafikoa. Biztanleriaren % 20 aberatsenen eta %20 pobreen arteko sarreren diferentzia



2025ean, Espainiako populazioaren % 20 aberatsenak % 20 pobreak baino 18 aldiz sarrera handiagoak izan litzake

Pobreziaren bilakaera ikusten badugu, aurkituko dugu 2008ko urtean (hau da, krisi ekonomikoa iritsi aurretik) Espainian 10,6 milioi pertsona bizi zirela pobrezian (biztanleriaren % 23); horrek erakusten du ekonomia ondo zihoan urteetan ez zela egiturazko pobreziaren arazoa konpontzeko biderik joratu. Lau krisi-urteren ondotik, 2012an, pobrezian bizi zen jende kopurua 12,7 milioikoa zen jada, hau da, biztanleriaren % 27 (batez beste milioi erdi pertsona erantsi zaizkio pobrezia, urtero). Joerak horrela segituz gero, 2025ean Espainian 20 milioi pertsona izango lirateke pobrezian, hau da, biztanleriaren % 40.

12. Grafikoa. Pobrezian bizi diren pertsona kopurua



Proiekzio hauek egungo eredian aldaketarik ez egotea jasotzen dute; oraingoan, izan ere, zerga politika argi eta garbi bidegabekoa da, ekitaterik gabe biltzen baititu zergak, oinarrizko gizarte zerbitzuetan inbertsiorik egiteke. Are gehiago, eredia aldatu ez eta ekonomiaren suspertze (desiragarri) bat gertatuz gero, baliteke hazkunde berriak irabazi gehiago ekartzea dagoeneko aberastuta dagoen gutxiengo batentzat, pobretze handiagoa eta desberdintasun handiagoa ekarriz, batera, gehiengoarentzat. Horregatik premiazkoa da bidea aldatzea eta erdigunean pertsonak jartzen dituzten politikak joratzeari.

5. Zerga sistemak desberdintasunean duen garrantzia


Zerga politika, zentzu hertsian sarreren egitura eta gastu publikoaren banaketa hartzen ditu, herrialde baten gizarte ereduaren bihotzean dago, zeren eta eragin erabakigarria baitu aberastasuna banatzeko moduan, definitzen dituelako bai estatua nola finantzatzen den (nork, non eta zer kontzepturengatik ordaintzen duen, eta nork ez) bai diru publikoa zertan erabiltzen den (gastuak eta politika publikoetako inbertsioak nor faboratuko dituzten, eta zer helburuz). Finantza publikoak, beraz, erabakigarriak dira ekitaterako, zuzentasunerako, elkartasunerako eta, horrenbestez, gizarte jakin bateko desberdintasunerako.

Ekitateak berekin dakar pertsona bakoitzak estatuari ekarpena egitea eta estatutik jasotzea, halako moduan ezen estatu horrek bermatu egin beharko baitizkio bizitzan aurrera egiteko eta garatzeko aukera berberak, jaio den etxearen sarrera maila (eta beste hainbat ezaugarri ere, hala nola generoa, arraza, nazionalitatea edo duen erlijioa) dena dela. Gizarte politikak (hezkuntza, osasuna, gizarte babesa eta enplegua) aukeraberdintasuna bermatzeko beharrezko palanka dira. Osterantzean, zerga sistema tresna bat da, ez bakarrik zerga-bilketarena baizik eta baita birbanaketarena ere, eta ematen zaion orientazioaren arabera desberdintasunen areagotzea edo murriztea ekar dezake. Nazioarteko Diru Funtsak berak aitortua du gizarte berdintasunezkoenak, sarrerak modu ekitatibo batez banatzen diren horiek, ekonomikoki egonkorragoak eta iraunkorragoak direla. Egungoa bezalako desberdintasuna areagotzeko testuinguru batean, zerga politikak inoiz baino garrantzitsuagoak dira.

6. Zerga sistemak Espainian gutxi eta gaizki biltzen du

Une honetan espainiar zerga sistemak ez du bere eginkizuna betetzen, eraginkortasunik gabea eta atzeragarria delako. Sistemak biltzeko duen ahalmena txikia da, Europar Batasuneko eta ELGAko herrialdeena baino txikiagoa. 2012an zerga-presioa % 33,6koa zen Espainian (hau da, bildu zena BPGren % 33,6ren baliokidea zen), europar batez bestekoa baino zazpi puntu baxuagoa, hura % 40,7koa da eta.

13. Grafikoa. Espainiako presio fiskalaren bilakaera Espainian eta Europako Batasunean (UE27), BPGrekiko bilketa portzentaje gisa, gizarte segurantzako kotizazioak kontuan hartuta eta hartu gabe (CCSS)




Iturria: Bertan egina, Eurostateko datuetatik abiatuta

Eta gaizki biltzen du, zerga-bilketaren pisua langile klase ertainen gainera zamatzan delako, modu neurrigabe batez; sarrera altuenak dauzkaten pertsonak eta enpresa handiek, aldiz, apenas ordaintzen duten zergarik.

Nola azaltzen da bilketa baxu hori, Espainiak SZ, BEZ eta PFEZko zerga-tasa marjinal handienetakoak dauzka-eta? Arrazoia ez ordaintzeko dagoen ihesbide pila handia da, sistema josita baitago; eta ez dira soilik iruzurrerako bideak, ez, pribilegio sistema legal bat ere bada, batez ere fortuna handiak eta enpresak faboratzen dituen eta zerga-bilketaren zama nagusia klase ertainen gainean kargatzen duen bat. Hau da, espainiar herritarrok beste herrialde aurreratu batzuetan dauzkatenak baino zerga altuagoak badauzkagu ere, gutxiago biltzen da, sistemak dituen zulo eta pitzadurek aukera ematen dietelako bai enpresa handiei bai dirutza handiei askoz gutxiago ordaintzeko.

Espainian zerga-presioa beti izan da europar herrialdeetakoaren batez bestekoa baino txikiagoa, baina krisia iristean barrena jo zuen; eragin nagusia PFEZ eta BEZagatik bilketan gertatu zen, 2008 eta 2009ko urteetan, produkzio-jarduera bridatu, kontsumoa jaitsi eta langabeziak gora egin zuenean. Horri guztiari erantsi zitzaion, gainera, autonomia erkidegoetako batzuetan Ondarearen gaineko Zerga jaitsi edo erabat kendu izana, 2008an onartu baitzen hori (2011ko urtean aldi baterako berreskuratu zuten, 2012 eta 2013ko aitopenetarako).


14. Grafikoa. PFEZko gehienezko tasa marjinalen bilakaera Espainian, 1975-2013



Iturria: Bertan prestatua, Tax Policy Center-etik abiatuta, World Tax Databaseko datuen bitartez (1975-1999) eta OECD (2000-2008)

Baina 2008tik 2010 arte bilketak izan zuen beherakada bridarik gabea Sozietateen gaineko Zergaren bilketa-portaera ezin txarragoak azaltzen digu batik bat; izan ere 2008ko urtean amildegian behera abiatu zen, hain zuzen enpresek 2007ko irabaziengatik tributatu behar zutenean, aipatu urte horretan sarrerak oso altuak izan baitzituzten artean, krisiaren eragina iristeke zegoen eta. Enpresek, lehenik, tasaren jaitsiera izan zuten onura (% 35etik 30era) 2006an, eta batez ere zerga-oinarri negatiboak (galera konpentsagarriak) metatzea ahalbidetu zieten praktikak baliatu zituzten 2008an, zergarik ez ordaintzeko

15. Grafikoa. Zergen bilakaera, 2006 eta 2012 bitartean (miloika eurotan)




Iturria: bertan prestatua, REAFek argitaratutako Zerga Administrazioaren datuetatik abiatuta

Egia baita espainiar zerga sistemak aukera sorta zabala eskaintzen duela ahalmen ekonomiko handiko herritar edo enpresek ia-ia zergarik ordain ez dezaten. Fortuna handiek, sarritan, SICAV (kapital aldakorreko inbertsio sozietate) deituetan jartzen dituzte bere ondareak; horrek aukera ematen die bakar-bakarrik % 1ean tributatzeko SICAVeko irabazi sortuengatik, PFEZgatik % 52ko tributazioa izan beharko zuten bitartean, edo % 27koa kapital etekinen kasuan. Fortuna batzuk zerga-paradisuetan kokatzen dira, besterik gabe, han ez dute eta ezer tributatzen.

Bere aldetik, enpresa handiek bere irabazietatik % 30 tributatu beharko lukete, alabaina beharko luketen horretatik oso azpitik tributatzen dute (izandako kontabilitateko irabazietatik % 3,5, 2009an). Gainera, enpresa txiki eta ertainek baino askoz gutxiago ordaintzen dute: 2007an ETEek Sozietateen gaineko Zergaz bildutako sarrera guztietatik % 66 egin zuten, eta 2011ko ekarpena % 76koa izan zen; enpresa handiak, aldiz, 2007ko urtean sozietateen gaineko zerga guztietatik % 33ko ekarpena egitetik 2012an % 24koa

bakarrik egitera igaro ziren. Beste modu batean esanda, enpresa handiek 2011n enpresa sektorearen guztirako irabazietatik % 60 sortu zuten Espainian, eta Sozietateen gaineko Zergako bilketa osoari % 24ko ekarpena egin zioten bakarrik. Erabil daitekeen zerga onura sorta zabala dago enpresa handiek hain gutxi tributatzearen atzean (salbuespenak, karga kentzeak, kenkariak): 2011n, zerga onura guztietatik % 80, 22.687 milioi euro alegia, enpresa handiena izan zen, eta enpresa horiek, urte horretan bertan, 3.012 milioi euroko ekarpena besterik ez zioten egin Sozietateen gaineko Zergari, hau da, zerga onurengatik "barkatutako" kantitatea baino 7,5 aldiz gutxiago. Aparteko aipamena merezi dute, halaber, atzerriko multinazionalak, ezen Espainian ETVE (atzerriko balioak edukitzeko entitateak) gisa erregistratzen badira kapitalek ez baitute zergarik ordaintzen, ez Espainian sartzean ez Espainiatik irtetean, atzerrian dituzten irabazietatik; aukera izango dute, baina, Espainian laguntzak eta zerga murrizpenak izateko, aitortzen dituzten galerengatik.


16. Grafikoa. Zergen ordainketa Espainian, 2011n



Iturria: Bertan prestatua, Sustentia y Onrubiaren (2004) datuetatik abiatuta


Gainera, Espainiak zerga-iruzur arazo larria dauka. Egun 59.500 milioi euro ingurukoa jotzen da, urtean; horietatik % 72 fortuna eta enpresa handien iruzurrari dagokio.

17. Grafikoa. Iruzur fiskala Estatu espainolean. Banaketa eragileen arabera.



Horrekin guztiarekin, konklusioa da Espainian zerga-bilketa zertzeko modua dela-eta ekarpen multzo nagusia soldatapeko klase ertainetik datorrela, Gizarte Segurantzako kotizazioez, laneko errenten gaineko PFEZ (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) zergaz, BEZaz eta zerga berezietz (gasolinaren, tabakoaren, alkoholaren gainekoez), zerga horiek guztiek gora egin baitute 2008az geroztik.


18. Grafikoa. Bilketa osoaren osaketa, zerga mota bakoitzaren arabera (ehunekotan, 2006-2012)



Iturria: Bertan prestatua, Sustentia y Onrubien (2004) datuetatik abiatuta

Sarrera gutxien dauzkaten etxeek gizarteko beste parteak baino askoz esfortzu fiskal handiagoa egiten dute (zergak ordaintzera bideratzen duten sarreraren portzentajea neurtuta, eta etxe hauek 1 dezilean kokatuta), are bitarteko gehien dituztenek egiten duten esfortzua baino ere handiagoa. 2011ko urtean ezarritako zerga igoerek bitarteko apalenak dauzkan biztanleriaren % 40aren gainean eragin zuten, argi eta garbi (2, 3, 4 eta 5 dezilak); horrek agerian uzten du BEZaren izaera atzeragarri nabarmena.

19. Grafikoa. Espainiako etxeetako presio fiskal efektiboa. 2009-2010-2011 (BEZ + PFEZ + Gizarte Segurantzako kotizazio + Zerga bereziak, etxeetako errenta gordinaren gaineko ehunekotan)



Iturria: Onrubia (2014)

Pertsona fisikoek Estatuaren zerga-bilketa guztiaren % 91,58 osatu zuten 2011ko urtean BEZaren, zerga berezien eta PFEZren ordainketaren bidez; enpresek, aldiz, zerga-bilketa horri % 8,42ko ekarpena besterik ez zioten egin (krisiaren aurretik zerga-bilketa osoaren % 20 inguruko ekarpena egiten zioten). Eta enpresen artean, enpresa handiek zerga-bilketa osoari % 1,98ko ekarpena egin zioten (% 6,44 taldeetakoak ez diren enpresetatik eta ETEetatik etorri zen). Hau da, familiek enpresa handiek baino 46 aldiz handiagoko ekarpena egin zioten 2011ko zerga-bilketari.

20. Grafikoa. Zerga bilketa Estatu espainolean. Banaketa zergadunen arabera.



7. Desberdintasuna areagotzea bridatzea

Ezin dugu pobrezia kontrako borroka irabazi desberdintasun ekonomikoaren gaia bideratzen ez bada. Egin daiteke, ordea, eta aldi berean hazkunde ekonomikoa sustatu; historian badira hori egin duten adibideak. Munduko buruzagi politiko eta ekonomikoek martxan jarri behar dituzte XXI. mendeko fiskalitaterako oinarriak, itzurpen fiskalari eta zergak saihesteari lekuri eman gabe, zerga-paradisuei amaiera jarritz, opakotasuna desagerraraziz eta inbertsio guztiak publiko eginez, eta aberatsek inoiz ez eginez bitarteko gutxien dauzkaten pertsonak baino ekarpen txikiagorik; etorkizun horretan soldata eta baldintza duinak bermatu behar dira langile guztientzat, gobernuek osasun, hezkuntza eta gizarte babes unibertsal eta kalitatezkoetan inbertitu behar dute diru publikoa, eta aukera berdintasuna bermatu eta demokraziak sendotu behar dira, herritarren ondare baitira.

Gaur desberdintasuna bridatzea demokrazia eta justizia soziala defendatzea da. Horretarako, tresnarik eraginkorrenetako bat zerga politika da. Zerga sistema bat, bilketa mekanismo bat izateaz gain, birbanatzeko sistema bat da, eta ematen zaion diseinuaren eta aplikazioaren arabera, desberdintasunak areagotu edo murriztu ahal izango ditu. Azken batean, fiskalitateak definitzen du herrialde eta gizarte eredu, eta ekitate berme

bat da. Pobreziaren kontrako borrokan desberdintasunaren arazoari ekiteke aurrera egiterik ez dagoen bezalaxe, ezin dugu pentsatu desberdintasuna murriztuko dugunik zerga-bilketa politikak eta gastu publikoaren politikak aldi berean kontuan hartzeke.

Oxfam Intermón-en, 2014ko maiatzean ondoren datorren dekalogoia bultzatu genuen, gobernuak urte honetan zehar onartu behar zuen (eta horixe egin du 2014ko urrian) zerga erreformara begira:

ZERGA ERREFORMA BIDEZKO ETA EKITATIBO BATERAKO DEKALOGOIA

1. Zerga politikak desberdintasunaren kontra borrokatu behar du, alderdi partidistak alde batera utzita, gizarte bidezko eta ekitatiboago baterako bidean.
2. Behar beste bildu behar da, kalitatezko zerbitzu publikoak eta aukera berdintasuna bermatzen dituen gizarte eredu bat finantzatzeko.
3. Gehiago biltzeak ez du klase ertainen eta pobreenen ahalegin fiskalaren areagotzerik ekarri behar. Gehien daukanak gehiago jarri behar du.
4. Fortuna handiek eta kapital errentek neurri handiagoko ekarpena egin behar dute, soldaten eta kontsumoaren gaineko presioa murrizteko.
5. Guztiek, enpresek eta norbanakoek, bere ahalmenaren eta bere jarduera ekonomiko errealaren arabera tributatu behar dute, pribilegioerik zein salbuespenik gabe.
6. Zerga-iruzurraren aurrean "zero tolerantzia", zerga-itzurpenean ari direnen zigorgabetasuna amaitzeko neurriak barne.
7. Pribilegioek eta zerga-paradisuen opakotasunak desagertu egin behar dute.
8. Zerga sistemak progresiboa eta ekitatiboa izan behar du oro har, gutxi batzuen interesak faboratzen dituen neurririk gabe.
9. Zerga onurek apartekoak izan behar dute, eta bakar-bakarrik balio erreal eta iraunkorra sortzea (esaterako kalitatezko enplegu berriak) ahalbidetzen badute aplikatu behar dira.
10. Zerga politika on batek eztabaida publiko ireki eta gardena eskatzen du, herritarren partaidetzaz.

8. Desberdintasuna eta pobrezia areagotzea bridatzea

Desberdintasunaren eta pobrezia areagotzea bridatzeko, Oxfam Intermón-ek neurri sorta bat proposatzen du, eta horien artean honakoak:

1. Eskubide sozialak blindatzea
 - Hezkuntza eta osasun publiko, unibertsal eta kalitatezko eskubidea bermatzea; gutxieneko sarrerak bermatzeko sistema bat; babes eta laguntza jasotzeko eskubidea; etxebizitza duinerako eskubidea eta enplegurako eskubidea.
 - Munduan pobrezia kontrako borrokan hartutako konpromisoak betetzea, kooperazio politika sendo eta ongi finantzatu baten bidez.
 - Politikak printzipio horiekin koherenteak izatea bermatzea, eta gastu lehentasunak horien arabera esleitzea.
2. Zerga-bilketarako gaitasuna areagotzea gizarte politikak finantzatzeko.
 - Zerga-bilketarako ahalmena berreskuratzea gizarte politikak finantzatzeko, baina ezarpen-kargaren pisua den gainean izan dadin, enpresen eta norbanakoen gainean alegia, bakoitzaren ahalmenaren eta jarduera ekonomiko errealaren arabera.
 - Pertsona aberatsenek eta enpresa handiek ordaintzen duten zerga-presio eraginkorra handitzea.
 - Bakarrik gutxi batzuek eskura ditzaketen pribilegiozko tratamenduak kentzea, eta zerga-iruzurrari amaiera jartzea.
3. Modu bidezko batez biltzea, progresibotasun eta ekitatez.
 - Sozietateen gaineko Zergari sakoneko erreforma bat egitea, tasa eraginkorra tasa nominalera hurbiltzeko (azken hau murriztu gabe), bakar-bakarrik balio erreala (enplegu duina sortzea edo jarduera ekonomikoa dinamizatzea) sortzen duten kenkariak eta salbuespenak mantenduz eta ETVE (Atzerriko Balioak Edukitzeko Entitateak) deituen figura kenduz, horiek benetako zerga-paradisua bihurtzen dute eta Espainia.
 - Gehien dutenak gehiago kargatzea eta pribilegioak kentzea: SICAV deituen eraketa eta dituzten abantailak berrikustea, kontrol eta ikuskaritzaren gaineko eskumena Ogasuneko ikuskaritzari zerbitzuei itzultzearekin batera. Kapital errenten tributazioaren erreforma egitea, eta soldatako errenten kargetikiko homogeneo eta ekitatezko egitea tributazio hori. Aberastasuna metatzea kargatzea: Ondarearen gaineko Zerga berrikustea eta fortuna handien gaineko zerga berreskuratzea, Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergak berrikustearekin

eta harmonizatzearekin batera. Finantza Transakzioen gaineko Tasaren diseinua zabaltzea eta sortzen dituen fondoren xede soziala bermatzea.

- Gutxien dutenen ahalegin fiskala babestea: zeharkako ezarpenaren (BEZ) gaineko presio handiagoa saihestea eta tasa murriztuenean analisi arrazionala egitea, diseinu atzeragarririk izan ez dadin, ezen bestela kalte handia eragingo litzaiotke herritar ertainek eta ahulenek duten errenta erabilgarriari. Gizarte Segurantzako kotizazioak blindatzea, oinarritzakoak direlako Espainian gizarte babesaren iraunkortasunerako.
4. "Zero tolerantzia" zerga-ihes eta -saihestearekin. Zerga-bilketarako potentzial izugarria duelako eta, gainera, funtsezko eragina izan dezakeelako bai ekitate printzipioak bai herritarren konfiantza berreskuratzeko.
- Espainiar estatuaren barnean, iruzurraren kontrako bitarteko materialak eta giza baliabideak areagotzea Zerga Administrazioaren Estatu Agentzian (AEAT), eta Gizarte Segurantzaren ikuskaritzarekiko modu koordinatuan. Ezkutuko ekonomiaren arazoa arintzeko, betekizunak betetzea sinplifikatuzera zuzendutako neurriak hartzea. Kargu publiko guztiei eredugarritasuna exijitzea, bai bere zerga obligazioak betetzeko unean bai bitarteko publikoen erabilera egokirako. Herritarren partaidetza aktibo eta eraginkorra bermatzea zerga politikan, informazioaren gardentasunaren bidez eta erabakiak hartzeko eta kontuak emateko prozesuetarako sarrera emanez.
 - Nazioarte mailan, nazioarteko zerga sistemaren erreforma bultzatzea, ELGAK G20ren aginduz abian jarri duen BEPS (Oinarri ezargarrien higaduraren eta mozkinen tokialdaketaen aurkako ekintza plana) prozesuaren barnean; zerga-paradisuen europar zerrenda beltz eta lotesle bat sortzea; zerga administrazioen arteko kooperazioa sendotzea, zerga-paradisuetan kokatutako jardueri buruzko informazioa eskuratzea eta ikertzea blokeatzea saihestearren. "Pantaila enpresei" amaiera jartzea, enpresen benetako titularren gaineko erregistro publikoen bidez. Enpresa handien, bereziki multinazionalen, finantza informazioari buruzko gardentasuna hobetzea.

9. Kalitate demokratikoa sendotzea

- Herritarrek informaziorako sarrera eta informazio kalitatezkoa izatea bermatzea, informaziorako sarrerari buruzko lege espezifiko batez, jakiteko eskubide hori oinarritzako eskubidetzat aitortuta.
- Partaidetzako demokrazia sustatzea, ohiko izan dadin eskubide ekonomiko eta sozialei eragiten dieten erabaki garrantzitsuak herritarrei kontsultatzea.
- Estatuko ikuskatzaitza eta erregulazio erakundeen independentzia eta funtzionamendu egokia bermatzea.

- Herritarren askatasunak erabat baliatu ahal izatea bermatzea.
- Diputatuen Kongresua eta ordezkarietzako beste erakunde batzuk berreskuratzea herritarrekiko solas espazio eta kontuak emateko espazio gisa.
- Finantza sektore gardena sustatzea, herritarrei krediturako aukera emateko helburu soziala betetzearren. Gizartearen zerbitzurako banka.
- Ustelkeria indar handiagoz borrokatzea, eta gizarte eskubideei kalte handiak eragiten dizkieten delituen zigorgabetasuna saihestea.

Aberastasun pertsonalaren gaineko zergak egungo zerga sistemetan

Laura de Pablos Escobar

Madrilgo Konplutense Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko katedraduna

1. Sarrera. Aberastasunaren gaineko zerga pertsonalaren inguru eztabaidaren egungo egoera
2. Aberastasunaren gaineko zergaren egungo egoera Espainian eta Europar Batasunean
3. Aberastasunaren gaineko zerga pertsonalaren arazoak eta erreformarako aukerak
4. Konklusioak

Bibliografiako erreferentziak

Eranskina

1. Sarrera. Aberastasunaren gaineko zerga pertsonalaren inguruko eztabaidaren egungo egoera

Aberastasun pertsonala zergapetzen duten zergen historia eztabaida sozial eta politiko sendoz osatua agertu ohi da. Hala eta guztiz, Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zerga figura klasikoa da herrialde demokratikoetako zerga-sistema gehienetan, garrantzi txikikoa bilketari dagokionez, zeren eta oso gutxitan iristen baita BPGren % 0,5era (ikusirik eranskinen 2. taula), baina Europar Batasuneko herrialde gehienetan dago.

Askoz gauza eztabaidatuagoa izan da, eta da, Ondare Garbiaren gaineko Zerga; horren eraginez, gaur egun Europako hiru herrialdetan bakarrik dago indarrean, Frantzia, Norvegia eta Suitza. Danimarkan 1995ean indargabetu zuten; Alemaniak 1997an kendu zuen, 2000ko urtean Herbehereetan indargabetu zuten; 2006an Finlandia eta Luxenburgon (azken honen kasuan pertsona fisikoei dagokienez, indarrean segitzen baitu pertsona juridikoen kasuan), eta 2007an bide beretik jo du Suediak. Espainian Ondarearen gaineko Zerga 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera eten zen, nahiz 13/2011 Errege Lege Dekretuak, irailaren 16koak, haren aplikazio efektiboa berrezarri zuen, aldi baterako, 2011 eta 2012ko ekitaldietarako; horietako aitortpenak 2012an eta 2013an aurkeztu behar ziren, hurrenez hurren. Zergaren aplikazioa luzatu egin da 2013 eta 2014ko ekitaldietara ere (Estatuaren Aurrekontu Orokorren legeak).

Europar Ondare Pertsonalaren gaineko Zerga kentzearen aldeko joerak era askotako argudioak dauzka sostengu (Duran eta Esteller, 2007). Kapitalaren mugikortasun handia eta gestio zailtasunak dira gehien errepikatzen diren eragozpenetako batzuk. Baina, gainera, garrantzitsuak dira atzeriko inbertsioaren sarrerari eta lehiakortasunari eragin diezazkiokeen arazoak ere. Argudio horiei Cremer eta Pestieauk (2006, 2009 eta 2010) erantsi egiten dizkiete (bai Ondarearen gaineko Zergari bai Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergari dagokienez) zergaren inplementazioak dakartzan justizia eta ekitate arazoak. Zergadunek kantitate desberdinak ordaintzen dituzte zerga-ordainketa itzurtzeko edo saihesteko duten ahalmen eta trebetasunaren arabera¹, eta kantitate horiek nabarmen aldatzen dira herentzia edo ondare pertsonalaren osaketaren arabera, ondarezko ondasun eta eskubideei aplikatzen zaizkien balorazio irizpideen heterogeneotasuna dela-eta. Are gehiago, Ondorengotzen gaineko Zergari dagokionez gehiago da bat-bateko heriotzen gaineko karga bat, bestelako kasuetan erraza da eta zerga saihestea.


¹ Gai honetan ere bada eztabaidarik. Poterba (2000), duela gutxiko zenbatespen batean, datu aitortuak errealei asko egokitzen zaizkielako konklusiora iritsi da. Gainera, Vid Gale G.W et al. (2000).

Aberastasunaren gaineko zerga pertsonalaren kontrako beste argudio mota baten sostengu nagusia zerga horrek lanean, aurrezkian eta kapital metaketan eragin dezakeen pizgarri galera da. Kritika hauen aurrean, autore batzuek beste ideia bat kontrajartzen dute, zerga hauek beste batzuek baino pizgarri galera txikiagoa eragiten dutela, eta gainera pizgarri galera hori zergen egitura-ezaugarrien mendean egongo dela neurri handi batean (Kopczuk eta Lupton 2005, Kopczuk 2006 eta Auerbach 2006). Zehazki, Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren kasuan Cremer eta Pestieauk (2010) defendatzen dute horrek eragin dezakeen pizgarri galeraren parte handiena teorikoa dela gehienbat, eta oso gutxi kontrastatu dela enpirikoki. Ildo honetatik, kapital metaketa eta kapital transmisioa eragiten dituzten arrazoiaren gaineko ezagutza enpirikoan aurrera egin beharra azpimarratzen dute, aberastasunaren eta berau eskualdatzearen gaineko kargaren ondorio errealak ezagutuko baditugu.

Horrelako kritika gogorren aurrean, hurrena planteatu daiteke: ba al da argudiorik, XXI. mendean horrelako zerga motak justifikatzen dituenik?

1. Kuadroan gaur egun horrelako zergen aplikazioa justifika dezaketen arrazoi nagusien laburpen bat eskaintzen da.

1. Kuadroa. Aberastasunaren gaineko zerga pertsonalaren oinarriak



Iturria: autoreak prestatua

Gaur egun aberastasunaren gaineko zerga pertsonalaren alde egiteko erabiltzen diren argudioak ekitatean eta uste tradizional batean oinarritzen dira, uste hori honakoa baita: ondarea (aberastasuna), berez, ordaintzeko ahalmenaren indize bat da (Fuentes Quintana, 1990, Galbraith 1962), eta horrenbestez zergapetuta egon behar du². Horren gaineko kargak lagundu egin dezake sistema progresiboagoa izan dadin, kapital errenta jakin batzuen gaineko karga efektiboaren tasak igoz. Gainera Ondarearen gaineko Zerga Errentaren gaineko Zergaren osagarri ona izan daiteke, ondare hazkundera, diru bihurtu aurretik, kargatu edo zergapetzeko unean. Gale eta Slemrod-en iritziz (2001), ekitatearen defentsak indarrean segitzen du, bete-betean, XXI. mendean, hain zuzen ere aberastasunaren kontzentrazio maila benetan handiek segitzen dutelako. Are gehiago, errenta eta aberastasunaren banaketaren zenbatespenek agerian jartzen dute azken urteotan oso nabarmen egin duela gora horien bien banaketan ikusten den desberdintasunak, krisialdiaren hasieratik Gini indizean eta pobrezian (gizarte bazterketa gisa neurtua) izandako igoerek erakusten duten moduan. Eta hori sarri askotan salatzen dute gure herrialdeko gizarte eragile zenbaitek.

1. taula. Gini indizeak. Bazterketa tasak

ESPAINIA					
POBREZIA GINI INDIZEAK	2005	2008	2010	2011	2013
BAZTERKETA TASAK	19,9	19,7	20,7	21,8	27,3
GINI INDIZEAK	0,318	0,323	0,339	0,34	0,337

2) Pobrezia atalasea: kontsumo-unitateko diren urteko sarriaren medianaren % 60 (ELGA eskala aldatua)

Iturria: INE. Autoreak prestatua

Errentaren eta aberastasunaren kontzentrazioaz gain, ekitatearen ikuspegitik garrantzitsua da aberastasun heredatuaren zenbatekoa ezagutzeko, zenbateko hori hurrengo belaunaldiaren estatus ekonomikoaren iragarpen moduko bat izan liteke eta. Hainbat lanek, hala nola Bowles eta Gintis-enak (2002) eta Erikson eta Goldhorpe-renak (2002), agerian jartzen dute ildo horretatik herentziek duten garrantzia. Ekitatea dute, beraz, oinarri nagusi, nahiz autore batzuek argudio hori ere ez duten behar beste sendo ikusten³.

² Aberastasuna tradizionalki ordaintze ahalmenaren indizegat defendatu duen literatura kontsultatzeko, ikusi De Pablos, L (1990, 2001).

³ Hainbat egilerentzat (Chamberlain, et al, 2006), zerga mota honen kontrako arrazoiak askotarikoak dira: pizgarria kentzen dio inbertsioari, baliabide urri eskuratzeko, zerga-itzurpen eta -iruzur handia gertatzen da, eta betetze kostuak oso altuak dira. Ondorioz, eraginkortasunaren ikuspegitik ez da oso gomendagarria. Baina, autore horiexen iritziz, ekitatearen ikuspegitik ere ez da komenigarria. 2006ko lanari jarraiki, segidako belaunaldien laneko errenten arteko korrelazioa 0,4 eta 0,5 bitartekoa da. Indize honek erakusten duke ezen oinordekoak agian ez direla herentzietako kausatzaileak bezain aberats, eta horrenbestez zalantzan dagoke herentzien gaineko ustezko progresibotasuna.

2. taula. Desberdintasun Indizeak. Aberastasuna, higiezin heredatuak.

	GINI	THEIL	BATEZ BESTE-KO BALIOAK
ETXEETAKO ABERASTASUNA	0,53032	0,65203	172.009
ABERASTASUN BALIOKIDEA	0,43667	1,03857	52.350
HERENTZIAK (higiezinak, errenta tartek)	0,24201	0,388509	20.922
HERENTZIAK (higiezinak, aberastasun tartek)	0,42719	0,106322	20.922

Iturria: EFF 2002. Autoreak prestatua

Alabaina, ekitateaz gain bada Aberastasun Pertsonalaren gaineko Zerga defendatzeko argudio sendorik: Ondare Garbiaren gaineko Zergak kontrol tresnatzat duen erabilgarritasuna. Bi dira zergak ildo honetatik dauzkan abantailak:

Lagundu egiten du errenta egiaztatzen, ondare-elementuek agerian jarriko dituztelako bere errenta deribatuak, eta, kontrako bidean, errentaren partidek agerian jarriko dituztelako euskarri dituzten eta aitortu ez diren ondarezko ondasunak. Gainera, Ondarearen gaineko Zergak aukera ematen du kapital irabazi diru bihurtuak zein ez bihurtuak kontrolatzeko, posible egiten baitu zergadunaren ondarearen balioan gertatzen diren aldaketak kontrolatzea. Guztiarekin ere, Zergaren ekarpen garrantzitsuena informazioa ematea da, zergadun batek ekitaldi bakoitzaren hasieran eta amaieran daukan ondarearen balioaren gainekoa zehazki; eta hori funtsezko datua da zergadunaren errentak kontrolatzera begira.

Bestetik, urteko ondare aitorten bat edukitzea oso erabilgarria da herentzia baten kausatzailearen jaraunspeneko ondasunak berreraikitzeke.

Eta, azkenean, zerga horiek Aberastasunaren erabilera eraginkorrago baten alde egin dezaketen ekarpena aipatu behar da.

2. Aberastasunaren gaineko zergaren egungo egoera Espainian eta Europar Batasunean

Gaur egun Espainian indarrean daude bai Ondarearen gaineko Zerga bai Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zerga. Biak autonomia erkidegoen esku utzita daude, eta dituzten oinarrizko ezaugarriak honela laburtu ditzakegu:

Espainian 2011-2014 ekitaldietarako indarrean egondako Ondare Garbiaren gaineko Zergak Espainiako egoiliarrek mundu mailan duten ondarea hartzen du kontuan, eta ez egoiliarren kasuan, berriz, Espainian kokatua duten bere ondarearen partea. Zergaren subjektu pasiboa norbanakoa da eta, beraz, aitortpena beti izaera indibidualaz egiten da. Salbuetsita daude famili enpresetako eta profesioaletako ondasunak, eskubideak eta partaidetzak, eta baita arte-gaiak eta zaharkinak, ondare historiko-artistikoko ondasunak, etxeko ostilamendua, jabetza industrial eta intelektualeko eskubideak eta pentsio eskubide kontsolidatuak ere. Salbuespen horiek guztiek baldintza kualitatibo eta kuantitatibo batzuk dauzkate. Ohiko etxebizitza ere salbuetsita dago (300.000 euro). Eta aktiboen baloraziorako balorazio irizpide espezifikokoak jarraitzen dira. Zerga-tasak, bere aldetik, progresiboak dira, eta % 0,2tik % 2,5era bitartean aldatzen dira. Karga muga batzuk ere badira, Errentaren gaineko Zergako eta Ondarearen gaineko Zergako kuota osoen baturaren gainean. Eta gutxienerako edo minimo salbuetsi bat ere bada, 700.000 euro garbikoa zehazki aitortzaileko.

Eta nolabait esatearren araudi zentrala hau bada ere, araubide erkideko autonomia erkidegoek aldaketak sartu dituzte, bai tarifa bai gutxienerako salbuetsietan. Are gehiago, lau autonomia erkidegok, Aragoik, Balear Uharteek, Valentziako Erkidegoak eta Madrilak, egiaz bere lurraldean zerga ez aplikatzea dakarten hobariak aplikatzen dituzte.

3. taula. Ondarearen gaineko zergaren araudi autonomikoa 2014

	Tarifa	Gutxienerako salbuetsia	Hobari orokorra
ANDALUZIA	0,24-3,03	700.000	
ARAGOI	0,2-2,5	700.000	99
ASTURIAS	0,22-3,00	700.000	
VALENTZIA	0,2-2,5		100
KANARIAK	0,2-2,5		
KANTABRIA	0,2-2,5	700.000	
GAZ. MANTXA	0,2-2,5		
GAZ. LEON	0,2-2,5		
KATALUNIA	0,21-2,75	500.000	
EXTREMADURA	0,3-3,75	700.000*	
GALIZIA	0,24-3,03	700.000	
BALEARRAK	0,2-2,5		100
MADRIL	0,2-2,5		100
MURTZIA	0,24-3,00	700.000	

Iturria: Zerga Agentzia. Autoreak prestatua.

Espainiako Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zerga jaraunspen eta dohaintzarako zerga bakarra da, eta araudi antzekoari segitzen dio kasu bietan zergaren likidazioa zertzeko, ñabardura batzuk badira ere. Orokorrean, ondasunen balioa zorrik gabe konputatzen da, eta balio erreala zenbatesten da, merkatuko balioa hartuz balio errealtzat. Jaraunspen edo herentzia zati bakoitza zehazteko, ulertzen da hori erabateko berdintasunez, edo proportzionaltasunez, banatzen dela, eta alde batean lagatzen dira jaraunselek bere artean egiten dituzten zatiketa eta esleipenak. Zatiketan berdintasun printzipioa ezartzean saihestu egin nahi da balio txikiagoko edo zerga-onuraren bat duten ondasunak karga-tasa handiagoz zergapetuta dauden onuradunei atxikiz zerga-itzurpenaren bidea jorra dadin (Barbera et al 2010). Zergaren likidazio-oinarriak etxeko ostilamendua jasotzen du; hau oroharreko zenbatekoan zenbatesten da: jarauntsiko ondasunen % 3. Etxeko ostilamenduaren balioa balio horren gainetik dagoenean, merkatuko balioaz konputatzen da. Azken irizpide hau baliaugarria da, halaber, merkatuko balioa aipatutako % 3 horren azpitik dagoela egiaztatzen denean. Salbuespenen atalean, Irlanda edo Ingalaterran bezala, murriztapenak jasotzen dira nekazaritza eta basozaintzako ustiapenen eta famili enpresaren kasuan (% 95) (Zarate 2009). Berezitasun deigarrienen artean, zerga-itzurpenaren kontrako neurri sorta garrantzitsu bat aipa dezakegu, eta baita zerga-tasak herentzia-zatien (edo dohaintzen), ahaidetasun mailaren eta jaraunselek eta dohaintza-hartzaileek aurretik daukaten ondarearen zenbatekoaren mendean daudela ere. Azken alderdi hau benetan desberdina da, eta zerga-tasaren igoera oso nabarmen bat eragiten du, ezen kasu batzuetan % 81etik gorakoa izan daiteke eta, gainera, jauzi akatsa sortzen du. Tasa hau altuena da gure inguru ekonomikoko herrialdeetan ikusitako guztien artean.

Autonomia erkidegoek araudi mailako eskumen zabalak dauzkate zerga honi dagokionez. Eta duten arautze indar horren mendean daude, besteak beste, honakoak:

- Lehendik zegoen ondarearen zenbatekoa eta biderkatze koefizienteak zehaztea.
- Zergako tarifak finkatzea.
- Zerga-oinarriko murriztapenak aldatzea, ezen estatuarenak mantentzeko, edo horiek hobetu eta bere murriztapenak, arrazoi ekonomiko eta sozialengatikoak, sartu.
- Kuotako kenkariak eta hobariak aldatzea.

Ezarritako araudia nahiko heterogeneoa da⁴, eta eskualdeetako zergadunek jasaten dituzten tasa efektiboetan alde nabarmenak daude eskualde batzuen eta besteen artean⁵.

⁴ Ikusi araubide erkideko autonomia erkidegoen esku lagatako zergak duten araudia Zerga Agentzian.

⁵ Adibidez: Andaluzia eta Madrilen 370.000 euroko herentzia batek, 27 urteko seme edo alaba baten aldeko batek (II. multzoa), izango lukeen karga.

Andaluzian 72.663,75 euroko kuota bat ordainduko luke, inolako hobaririk gabe. Erkidego horretan, bigarren multzoaren kasuan hobaria dute 175.000 eurotik gora egiten ez duten herentziek, aurretik dagoen ondarea ez bada 402.678,11 eurotik gorakoa.

Madrilen 72.663,75 euroko kuota izango luke, baina I. eta II. multzoko zergadunek % 99ko hobaria daukatenez, bakar-bakarrik 726,6 euro ordainduko lituzke.

Kasu hauetan ez litzateke aurretiko ondareagatiko biderkatze koefizienterik aplikatuko, ez batean ez bestean.

4. taula.

I. MULTZOA.

Ezkontidea, ondorengoak eta 21 urtez azpiko seme-alabak

- Oso tratamendu onuragarria, praktikan zergaren gaineko ia-ia erabateko salbuespena dakarrena bera autonomia erkidego batzuetan. Horretarako kuotako hainbat murriztapen instrumentatu da, edo kuotako hainbat hobari, eta horien eraginez kuotako gutxitzeak % 99 ingurura iristen dira: Madril, Gaztela-Mantxa, Balearrak, Kanariak, Kantabria. Asturias, Errioxa, Murtzia.
- Duela gutxi autonomia erkidego batzuek igo egin dituzte bere tasa efektiboak, murriztapen eta hobari horiek kenduz horretarako. Esate baterako, Kantabriak lehendiko ondarea beherantz zuzentzeko koefizienteak ere bazeuzkan 2010 arte. Alabaina, erkidego horrek % 99ko hobaria aplikatzen du orain. 2014ko urteaz geroztik, Aragoik % 50era jaitsi du murriztapen hobarien portzentajea. Gaztela eta Leongo Erkidegoak erabat kendu du % 99ko hobaria, 2013tik aurrerako ondorioez. Valentziako Erkidegoak % 75era jaitsi du.
- Kataluniak % 99ko hobari bat aplikatzen die bizitza-aseguruei. Eta murriztapen handiak ere bai (1.000.000 euroko legatuak % 85 inguruko murriztapena).
- Tratamendu honen salbuespenak dira, eta izan dira, Andaluzia eta Extremadura.

Iturria: Autoreak prestatua

II. MULTZOA

(Ondorengoak, adoptatuak eta ezkontidea \geq 21 urte)

- Oso tratamendu desberdina dute, eta ordaindu beharreko kuota oso desberdina da autonomia erkidegoen arabera. Madrilgo Erkidegoak, Galiziak, Gaztela-Mantxak, Kanariak, Errioxak eta Murtziak oinarriko murriztapenak eta kuotako kenkari eta hobariak aplikatzen dituzte, eta horien bidez kuota ia-ia deuseztatu egiten da.
- 2010 arte Kantabriak II. multzoari ere aplikatzen zizkion aurretiko ondareगतिको biderkatze koefizienteak, koefiziente murriztaile gisa, eta horrek praktikan zerga honetatik aparte uzten zuen jaraunse multzo hau. Gaur egun % 99ko hobaria aplikatzen du.
- Beste erkidego batzuek, Galiziak esaterako, kantitate batetik gora aplikatzen dute (125.000 euro), eta Extremadurak eta Andaluziak ez dute inolako onura espezifikorik aplikatzen.

Zerga honen araudiak Europar Batasunean dituen ezaugarriei dagokienez, aldeak nabarmenak dira (ikus eranskineko 1. taula). Hala, Erresuma Batuan zergak (herentzien gaineko zerga esaten diote) herentziaren zenbateko osoa kargatzen du (gauza bera gertatzen da Danimarkan eta Polonian); aldiz, Frantzia, Espainia, Alemania, Luxenburgo, Belgika edo Irlandan oinordeko edo legatu-hartzaile bakoitzak jasotako zenbatekoa kargatzen da. Azken hauxe da karga modu zabalduena (ondorengotzaren gaineko zerga esaten diote). Aplikatzen den karga-tasa herentziaren eta ahaidetasun mailaren arabera izan ohi da. Oso tasa desberdinak aplikatzen dira herrialdeen arabera, baina ez dira % 30etik gorakoak izaten ezkontide eta ondorengoen kasuan. Azpimarratu beharrekoa da, baina, Espainiak daukan

tarifak zerikusi gutxi duela europarrekin, tasa nabarmen handiagoak baititu, aurretiko ondarea hartzen du eta kontuan. Bestetik, aipatu behar European salbuespenak izaten direla ezkontide eta ondorengoen alde, ez ordea ia-ia kargatik libre uzten dituen hobaririk gure autonomia erkidegoetako askotan gertatzen den moduan.

Azkenean, aipatu behar herentziak zergapetzeko hirugarren aukera bat ere badela, zehazki eskuratzaillearen errentaren gaineko zergan sartzea. Barberán et al-ek (2010) "inklusio" esaten dioten ikuspegi hau hainbat herrialdetan aplikatzen da, esaterako Islandian % 22,75eko tasa finko batez, Lituanian % 24ko batez, eta Errusian, hemen ere finkoa den % 13ko tasaz. Hiru herrialde horiek, baina, ezin dira egiaz Espainiatik hurbileko erreferentziatzat hartu.

Azken batean, erreferentzia zuzenentzat har ditzakegun herrialdeetan herentziak eta dohaintzak kargatzen dituzten zergak aplikatzen dira, eta horietan bide progresibo bat jorratzen dute, gureak baino tasa nabarmen baxuagoez, aurretiko ondarea kontuan hartzeke, herentzia balio errealean baloratuz eta gure herrialdean baino salbuespen gutxiago aplikatuta. Eta azpimarratu nahi dugu zenbait herrialdek, Italiak edo Portugalek kasu, bere garaian zerga kentzea erabaki bazuten ere, atzera jarri dutela. Italiak 2001ean kendu zuen, eta berriro inplementatu du 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, oso lege-simplifikazio adierazgarri batez. Portugalek, 2004ko urtarrilaren 1az geroztik, zeharkako zerga baten bidez kargatzen ditu herentziak eta dohaintzak, posto do selo deituaz alegia.

3. Aberastasunaren gaineko zerga pertsonalaren arazoak eta erreformarako aukerak

a) Aberastasunaren gaineko zerga pertsonalaren arazoak.

Aberastasunaren gaineko zerga pertsonalaren arazo nagusietako bat gizartearen, politikaren eta ekonomiaren hainbat esparrutik kontra egiten diotela da, gogor egin ere. Iritzi publikoak haren kontrako presioa egin ohi du, aplikazio esparru txikia duen arren; izan ere, gehien eragiten dien biztanleriaren sektoreek oso bizi eta agerian erakusten dute bere haserrea (Cabrillo, 2007). Gainera, Ondarearen gaineko Zerga zein Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zerga kritika gogorren jomuga izan dira enpresa-kolektibo jakin batzuentzat. Egindako presioaren ondorioz, laurogeita hamarreko lehen urteetan salbuetsitzat jo zituzten jarduera profesional bat eta enpresa jarduera bat garatzeko beharrezko ondasunak eta eskubideak. Salbuespen horrek jaitsiera handia ekarri du zerga bi horiek zuten eraginari dagokionez (Domínguez 2009). Iritzi publikoaren eta gobernuaren politikaren arteko harremana argia da oro har (Borre eta Scarbrough, 1995). Seguruena horren ondorioz, zerga mota honen inguruan hartutako erabaki politikoak zergok ekitatearen eta bilketaren nahikotasunaren ikuspegitik daukaten potentziala ebaluatzeko prozesu batetik at hartu dira; bilketaren nahikotasunaren alderdi aipatua ez da bazterrean lagatzeko modukoa, inolaz ere, egungo zertzeladetan.

Espainian aberastasunaren gaineko zerga pertsonalak daukan bigarren arazoa konfigurazio arkaikoa da. Eztabaida beti mugitu da zerga hori gure zerga-sisteman sartzearen edo ez sartzearen inguruan, eta gutxitan heldu zaio zergak duen erreforma behar saihestezinari.

Ondare Garbiaren gaineko Zergak akats handiak dauzka hasieratik beretik, hau da, 1978an Ondarearen gaineko Aparteko Zerga gisa hasi zenetik. Sekula ez zaie heldu konfigurazioak berak planteatzen dituen arazo larriei. Ekitate horizontalaren ikuspegitik, aktibo desberdinak zergapetzeko moduak oso desberdinak dira, balorazio arautuaren irizpide aniztasunagatik. Horren eraginez, aktibo bakoitza kargatzen duten tasa efektiboak nabarmen aldatzen dira, aktiboaren izaeraren arabera (De Pablos 2007a eta 2007b). Gainera, zergaren tarifyan jasotzen diren tasak oso altuak dira, eta salbuespen batzuek ere ez dute laguntzen aplikazioa ekitatezkoa izan dadin (famili enpresa). Eta honi guztiari erantsi behar lurraldeen artean halako ekitate falta bat ere izatea, ezin argiago ikusten baita gaur egun, autonomia erkidego batzuek zerga aplikatu ere ez baitute egiten. Horietakoak ditugu Balearrak, Valentziako Erkidegoa eta Madrilgo Erkidegoa.

Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren egoera ez da hobea, eta oso arazo sakonak dauzka halaber. Autonomia erkidegoen araudien artean alde handiak izateak, erkidegoen arteko lehia kezkarria gertatzen ari baita -beheranzko lehia, inolaz ere-, egoera onartezin bat eragin du, ekitate horizontalaren ikuspegitik. Gainera, eskualdatze jakin batzuk zergatik aparte uzten dituzten salbuespen batzuen aplikazioak, eraginkortasun ekonomikoaren ikuspegitik behar besteko justifikaziorik gabeak, ekitate falta nabaria du emaitza (% 95eko murriztea, are handiagoa ere autonomia erkidegoen arabera, pertsona zenduaren ezkontideak, ondorengoek edo adoptatuek famili enpresa bat mortis causa eskuratzen dutenean). Osterantzean, kausadunen lehendiko ondareagatiko koefiziente zuzentzaileekin batera aplikatzen den tarifa bat izateak jauzi akatsa eragiten du, eta tasa progresiboegiak halaber, eta hauek ez dakarte zergarekiko betekizunak betetzeko pizgarri edo bultzada handiagorik batera.

Aipatutako arazoak eta erabili ohi diren kontrako argudioak hor baditugu ere, *Ondarearen gaineko Zergak eta Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergak duten eraginaren analisiak* emaitza interesgarriak jami ditu mahai gainean, zuzentasun edo ekitatearen ikuspegitik (De Pablos 2007a, 2008 eta 2009).

Ondarearen gaineko Zerga progresiboa da, karga oso kontzentratuta dago ondare handietan. Gainera birbanatzailea da, indar ahula badu ere dagoen aberastasunaren banaketan eragitera begira. Edonola ere, aberastasuna kontzentratzea bridatzen laguntzen du. Eta eginkizun hori sendotu egiten da Ondare Garbiaren gaineko Zergak Errentaren gaineko Zergaren osagarri gisa

betetzen duen eginkizunagatik. Eginkizun hori zehaztu egin daiteke, lehenak aktiboen etekin desberdinen gainean ezartzen duen karga marjinal efektiboaren kalkuluaren bidez. Lortutako emaitzek erakusten dute tasa horiek positiboak eta adierazgarriak direla aktibo guztientzat, batez ere ondare handien jabeen kasuan (De Pablos 2007a).

Espainiako Ondorengotzen gaineko Zerga ere progresiboa da, argi eta garbi, eta halako birbanatze eginkizun bat betetzen du halaber (Barberán eta Melguizo 2007a, 2007b, eta Calonge eta Arcarons 2007). Gainera, jarduera progresibo paralelo bat erants dakiok, zeren eta zenbait lanen emaitzek, De Pablosen lanarenek esaterako (2007a), erakusten baitute korrelazio garrantzitsu eta positiboa dagoela herentzia bateko onuradun izatearen eta errenta maila altuak edukitzearen artean. Horrelako emaitzak bat datoz Bowles eta Gintis-ek (2002) jasoarekin.

Gaur egun lorpen txiki horiek ez dira ahantzi behar. Birbanatzea helburu garrantzitsua da oraindik ere, iritzi publikoak erreklamatu. Gutxi dira une honetan Espainian dauden birbanatzera zuzendutako zerga-tresna aktiboak, eta gainera ez dugu espero behar birbanatze guztia gastu publikoaren bidez lortzea. Aurrekontuaren alde biak hartu beharko lirateke kontuan. Aberastasuna, ordaintzeko ahalmenaren adierazletzat, sakon aztertu eta ebaluatu behar da.

Zerga horiek lortutako bilketa ere ez da gutxietsi behar. Eranskineko 3., 4., 5. eta 6. taulek erakusten dute 2007an zerga mota hori, Espainian, autonomia erkidegoek zuzeneko zergen bidez lortzen zuten finantzaketaren ehuneko sei baino gehiago zela. 2010ean, Ondarearen gaineko Zerga kendu zutelarik eta Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren desfiskalizazioa etengabea zela (2008an jada jasaten ari zen hori, neurri handi batean), aberastasunaren gaineko zerga pertsonalaren pisu erlatiboa ia-ia erdira jaitsi zen. Nabarmentzekoa da, halaber, Ondarearen gaineko Zerga birjartzeak bilketa mailan izan duen porrota. Zerga Agentziak, 2012ko uztailearen 25ean, 579.000 euro zeuzkan bilduta, eta zerga bi horiengatik bilketa, 2012 eta 2013an, 3 milioi euro ingurukoa izan da. Zerga hauen egoera politikoak nabarmen murriztu die biltze ahalmena.

Zerga bien arazoak eta ekarpenak kontuan harturik, gure zerga-sisteman horiek jarraitzearen aldekoa naiz; uste dut sakon erreformatu behar direla, lehenbailehen, zerga biak, hain zuzen modernizatzearen eta gaur egun ekitate edo zuzentasunari dagokionez dauzkaten huts nabarmenak gainditzearen, horiexek baitira zergon arazoetako asko eta askoren sorburua.

b) Ondarearen gaineko Zerga eta Ondorengotzen gaineko Zerga eraberritzeko proposamenak.

Ondarearen gaineko Zergari dagokionez, gaur egun erreforma proposamen interesgarri batzuk egin daitezke.

1. De Pablos L.ren proposamenak (2009) ondarearen gaineko zerga bat inplementatzea jasotzen du, Frantziako Fortuna Handien gaineko Zerga zaharraren antzera, birbanatzera baitzegoen funtsean zuzendua, gutxieneko salbuetsi handi batez (700.000 euro), tarifa progresibo moderatu batez, zerga-oinarri zabalaz, salbuespenik gabe eta balorazio irizpide homogeneous aktibo guztientzat, eta karga mugarik gabe. Aukera honek izango litzukeen bilketa eta birbanatze eraginaren mikrosimulazioaren emaitza nabarmenena bilketaren igoera bat da, seguruenik aitortzaile kopurua dezente txikiagoa izango litzatekeen arren. Gainera, proposamen honen progresibotasuna eta birbanatze eragina garrantzitsuak dira⁶.

2. Álvarez et al.ren proposamenak (2012) salbuespenak kentzea eta autonomia erkidegoen arteko beheranzko lehia saihestea jasotzen ditu lehentasunezko neurri. Era berean, 700.000 euro inguruko gutxieneko salbuetsi altu bat proposatzen du, eta murriztapenen jaitsiera erabatekoa, azken hau zergadun kopuruaren jaitsiera konpentsatzearen. Ez du karga tope edo mugen gaineko jarrerarik adierazten. Egileen iritziz, horrelako erreforma batek sarrera osagarriak eragingo litzuke, 3.000 milioi euro ingurukoak zehazki araubide erkideko autonomia erkidegoen kutxentzat. Eta hori, dioskute Gago et al.ek (2012), progresibotasun adierazle positibo batzuekin gertatuko litzateke, ezen balioko lukete laneko errenten zerga tratamenduan dagoen desoreka handia pixka bat berdintzeko eta Espainian krisialdi ekonomikoa iritsi denez geroztik antzematen diren desberdintasun maila hazkorak murrizteko.

3. Hirugarren tokian, Fortunaren gaineko Elkartasun Zerga (frantsesa) aipa dezakegu. Zerga horretako gutxieneko ezargarria altua da benetan, 1,31 milioi eurokoa, eta tasak, berriz, baxu samarrak: % 0,25ekoa 1.300.000 euro eta 3.000.0000 euro bitarteko ondare garbientzat, eta % 0,5ekoa kopuru horretatik gorako ondareen kasuan. Zerga horrek, baina, salbuespen kopuru handi bat mantentzen du, eta horiek artelanei, zaharkinei, autore eta jabetza eskubideei eta enpresa-aktibo batzuei eragiten diete, eta, oro har, Frantzian egiten diren inbertsioak salbuetsita daude.

⁶ De Pablos (2009), simulazioaren emaitzak

5. taula. Simulazioak, Zerga Agentziaren datuekin eta EFFrekin alderatuta

Emaitzak	Aitortzaileak	Batez besteko likidazio - oinarria (€)	Batez besteko kuota osoa (€)	Batez besteko tasa (%)	Kakwani	Reynolds-Smolesky
Ondarearen gaineko Zergako datu errealak 2008an	873.812	256.351	1.176	0,33	0,3425	0,0005
Zergaren simulazioa L. de Pablos-en proposamenean	120.000	965.175	11.548	0,76	0,4575	0,0036

Autoreak prestatua. Banco de España eta Zerga Agentziaren Familiari Inkestak (EFF) abiatuta

Azkenean, gaur egun Gipuzkoan aplikatzen den Ondarearen gaineko Zerga aipatu behar da, ezen lehen aipatutako erreforma proposamenetan jasotako ildoak bildu ditu, neurri handi batean.

6. taula. Gipuzkoan indarrean dagoen ondarearen gaineko zerga

- Ohiko etxebizitza salbuetsita dago, 300.000 euroraino gehienez.
- Etxeko ostilamenduaren salbuespena, ez 10.000 eurotik gorakoen kasuan; espezie autoktonoen basoak, energia berriztagarrietarako instalazioak; batez ere erabilera publikoa duten bidezidor, lur eta instalazioak; xedetzat pertsona fisikoek zertutako nekazaritza, abelazkuntza, erlezaintza edo basogintzako jarduerak dituzten ondasunak eta eskubideak.
- Zerga-oinarria: balorazio irizpide espezifikoak
- Gutxieneko salbuetsia: 700.000 euro
- 100eko 0,25etik 1era doazen tasak.
- Kargak ez du mugarik

Ondarearen gaineko Zergari dagokionez Espainiarako egindako proposamenek zein esperientzia frantsesak eta Gipuzkoakoak puntu komun garrantzitsuak dauzkate. Ildo honetatik berriro aipatuko dut une honetan Ondarearen gaineko Zerga bat edukitzea komeni dela, baina baita zerga hori erreforma baten premian dagoela ere. Erreforma horrek oso presente izan behar ditu egungo zertzelada sozial eta ekonomikoak. Laburpen moduan, Ondarearen gaineko Zergaren erreformak hainbat alderdi hartu behar ditu lehentasunezkatzat, honakoak:

Salbuespenak kentzea.

Aktibo guztien balorazio homogeneoa.

Gutxieneko salbuetsi altua, 700.000 euro, eta indarrean dauden tasak baino baxuagoak eta progresiboak.

Zergaren kontrol eta kudeaketaren hobekuntza. Nik lehenago egin zenbatespenetan, agerian geratzen zen halaber desbideratze garrantzitsu bat, aitortutako aberastasunaren eta aitortu behar zen aberastasunaren artean (De Pablos 2009).

Tratamendu berezia atzerriko inbertsioentzat.

Zergaren arau mailako eskumen esparrua berraztertzea. Erantzunkidetasun fiskala ez da birbanatzera zuzendutako zergen bidez bilatu behar.

Adierazi behar da, hala ere, bai Mirless txostenak (Hainbat egile, 2011) bai Espainiako Zerga Erreformari buruzko Txostenak, Lagares irakaslea buru zuen aditu talde batek egina bera (2014), Ondarearen gaineko Zerga inplementatzearen edo horrek jarraitzearen kontrako jarrera jasotzen dutela. Erreformarako aukerak eman beharrean, bakar-bakarrik kontrako argudioak ematen dituzte, gaur egun zergak planteatzen dituen arazoak harturik oinarri.

Mirless txostenak (2011) honakoak ditu bere erabakiaren sostengu:

- Kapitalaren mugikortasun handia
- Izugarri kargatzen du aurrezkoa
- Ezinezkoa da kapital guztia kargatzea. Giza kapitala

Aditu taldearen Espainiarako txostenak (2014) honakoak jasotzen ditu:

- Zergapetze bikoitza: Ondarea eta Ondorengotzak
- Tasa altuegiak. Ondarearen errentagarritasuna baino handiagoak.
- Zerga-itzurpen eta -iruzurra Ondare Garbiaren gaineko Zergan.
- Ekitate horizontalik eza
- Lurralde ekitaterik eza
- Birbanatze baxua edo hutsaren hurrengoa, iruzurraren eraginez
- Oso bilketa baxua
- Zergapetze bikoitza (OHZ)

Ondorengotza Zergari dagokionez, oso interesgarria da Barberán et al.ek (2010) egindako erreforma proposamena. Abiapuntua lan honenaren antzekoa da: Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zerga izatea defendatzen da, baina horren egiturazko elementuetan erreforma bat egitea erreklamatzeko da, gure zerga-sistemaren barnean dituen helburuak hobeto bete ahal izan ditzan. Ildo honetatik hurrena proposatzen da:

Murriztapen pertsonal eta objektiboak kentzea. Murriztapen pertsonalek ekitatea urratzen dute, eta izugari zailtzen dute zergaren kudeaketa. Salbuespen objektiboek, bere aldetik, eragin negatiboak dituzte ekitatearen eta eraginkortasunaren ikuspegitik, eta zerga-plangintzarako estrategiak bultzatzen dituzte (Zarate, 2009).

Jaraunse edo dohaintza-hartzaileen aurretiko ondareari aplikatzeko biderkatze koefizienteak, ahaidetasun mailaren eta zenbatekoaren arabera, kentzea. Horrelako koefizienterik ez dago zerga aplikatzen duen gure inguruko inongo herrialdeetan; gainera, koefiziente horiek zeharo desitxuratzen dituzte zergen batez besteko tasa efektiboak. Horien aplikazioak jauzi akats deitua eragiten du, tasa igoera oso garrantzitsuekin batera, ezen % 81etik gorakoak izatera iristen dira; eta hori ezin da inolaz ere konparatu zerga aplikatzen duten beste herrialdeetan egiten ari direnarekin.

Etxeko ostilamendua kentzea, zergapetzeko elementutzat. Gomendio honen oinarrian hainbat arrazoi daude: ez da inongo herrialdeetan jasotzen, balorazioa oroharreko zenbateko gisa egiten da (jarauntsiko ondarearen % 3), eta hori beti nahiko bidegabekoa izaten da, nahiz kantitate txikiagoak onartzen diren, frogatuz gero. Froga hori ez da erraza, itxura, eta balorazioa konplexua da beti.

Karga-tasak berraztertzea. Barberán et al.ek (2010) defendatzen dute, eta agian hauxe dute ekarpen berritzaile eta eztabaidagarriena, tasa lineal bat aplikatzea. Defentsa horretan aipatzen da ezen herrialde kopuru handi batek egiten duela jada, eta asko irabazten dela zergaren sinplifikazioan. Ildo honetatik, aipatzen da ezen proposatutako erreformak aplikatuz gero gutxieneko salbuetsia 76.000 eurokoa eta karga-tasa, Aragoiko datuekin bat, % 28 ingurukoa den eszenatoki batean, erreformaren aurretik lortzen zen bilketa bera lortuko litzatekeela, antzeko birbanatze eragin batez.

7. taula. Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergarako proposamena. Aditu Taldea (2014)

- Murriztapenak
 - a. Desgaitasuna duten pertsonak
 - b. Ondasunak segidan eskuratzeagatik murriztapena
 - c. Banakako enpresa eskuratzeagatik murriztapena (% 50-70)
- Gutxieneko salbuetsia denentzat berdin 20.000-25.000 (progresibotasun euskarria)
- Tasa lineala
(A multzoa, honakoak: ezkontidea, aurrekoak eta ondorengoak, zuzeneko lerrokoak, adoptatuak eta adoptatzaileak.
B multzoa, honakoak: alboko ahaideak, bigarren eta hirugarren mailakoak, eta ezkontza-ahaideak hirugarren mailaraino.
C multzoa, honakoak: aurreko multzoetan sartu gabeko beste edozein pertsona).

- A MULTZOA Tasa murriztua
- B MULTZOA Tasa ertaina
- C MULTZOA Tasa altuena
 - a. % 4-5eko tasa murriztua
 - b. % 7-8ko tasa ertaina
 - c. % 10 eta 11 bitarteko tasa altuena

Lan honetan defendatzen den erreforma proposamenak partekatzen ditu Barberán et al.ek (2010) baliatutako puntuetako batzuk, eta funtsezko deritzegun kontu batzuk eranstean ditu.

Salbuespen objektiboak, murriztapen pertsonalak eta biderkatze koefizienteak kentzearen kontua garbi dago, sarritan defendatu izan baitut (De Pablos, 2007a, 2007b, 2009, 2010^a, 2010b, 2013). Bat nator, halaber, albuespen objektibo gehienak kentzeko ideiarekin, batez ere estrategia jarrerak bultzatzen dituztenen kasuan.

Ez nator bat ahaidetasun maila batere kontuan hartzen ez duen murriztapen bakarraren ideiarekin. Ildo honetatik, europar herrialdeetako esperientziak era guztietakoak dira. I. eta II. multzoen kasuko herentzia eta dohaintzen albuespen ia-ia erabatekoa (% 99ko kuota hobaria) ez da batere ohikoa, eta ez du zentzurik ekitatearen ikuspegitik. Alabaina, txosten honetan mantentzen dugun moduan murriztapen pertsonalik ezartzen ez bada, bi edo hiru minimo salbuetsi desberdin arautu beharko dira gutxienez, ahaidetasun maila desberdinen arabera Irlandak edo Greziak egiten duten moduan. Gure iritziz gutxienerako salbuetsiak muga batzuk dira; hau da, horietatik aurrera hasiko litzateke tributazioa.

Ez nator bat tasa bakarraren ideiarekin, baina uste dut murriztu egin behar direla tarifako tarteak eta zerga-tasak, Europar Batasuneko herrialdeetan indarrean daudenen ildotik. Uste dut Europar Batasuneko herrialdeak (15) direla gure erreferentzia esparru naturala, eta horietan zerga progresiboen aplikazioa da nagusi legatu edo dohaintzen kasuan; zerga horietako subjektu pasiboak dohaintza-hartzaileak eta legatu-hartzaileak dira (ikus eranskinen 1. taula). Europar tasa ohikoenak % 10 eta % 35-40 bitartekoak dira. Eta oso ohikoa da tasa horiek desberdinak izatea herentzia- edo dohaintza-kausatzailaren eta legatu-hartzailearen arteko ahaidetasun mailaren arabera.

Beste puntu garrantzitsu bat da zergaren eskumen esparrua berraztertzea; egungoak nabarmen zailtzen du zergaren aplikazio ekitatezkoa. Abenduaren 27ko 21/2001 Legea indarrean sartzeak aldaketa itzela ekarri zuen zergaren egoeran. Harrezkero autonomia erkidegoek nabarmen handitu dute bere eskumen esparrua, zeren eta legeak eman baititzakete zerga-oinarriko murriztapenen, aurretiko ondarearen zenbatekoaren finkapen eta horretarako koefizienteen, kenkari eta hobarien eta zergaren kudeaketa eta likidazio alderdien gainean; muga bakarra dute autonomietako murriztapen, kenkari eta hobariak estatuko ondotik aplikatuko direla. Gauza ezaguna dugu jada eskumen zabaltze horrek izan duen emaitza.

Azken batean, Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren erreformak lehentasuna eman beharreko bilketa eta birbanatze helburuen definizioarekin hasi behar du, altematibak aurkeztearekin eta horietako egokiena aukeratzearekin batera; ondare-multzoa kargatu behar du, orokortasun printzipiori jarraiki, eta horrenbestez ez du salbuespenik ez murriztapenik inplementatu behar. Komeniko litzateke, hori bai, kausatzaile edo dohaintza-emailearekiko ahaidetasun maila jasotzen duen gutxieneko salbuetsi bat ezartzea. Tarifak progresiboa izan beharko luke (zerga hauen izaera birbanatzaile agerikoa dela eta), baina egungoa baino dezente baxuagoa, tarte gutxiagoz eta gure inguru ekonomikoko herrialdeetan indarrean daudenen antzekoagoak diren tasak aplikatuz. Aurretiko ondareagatiko zuzenketa kendu beharko litzateke. Eta horren araudi orokorrak ez luke hain konplexua izan behar, bai ordea seguruagoa ikuspegi juridikotik. Horren deszentralizazioa, gaur egun pentsatuta dagoen moduan, aldatu egin behar da, eta zerga honen azken helburuei eman behar zaie lehentasuna. Arau mailako neurriak helburu aipatu horiek betetzera zuzendu behar dira beti. Gainera gestoreen interesak hartu beharko lirateke kontuan, ezinbestekoa baita.

4. Konklusioak

- Aberastasunaren gaineko zerga pertsonalaren aldeko eta kontrako jarrerak, sarritan, ez dute beharrezko euskarri enpiriko eta teorikorik izaten. Zergaren eragin erreala ezagutzea falta da. Egia da horrelako zergen erabat kontrako jarrerak badirela, baina horien atzean ez dira beti efizientzia eta ekitate irizpideak egoten, beste arrazoi mota batzuk baizik: interes taldeak, inkestak, etab.
- Espainiaren kasua: Ondarearen gaineko Zergaren kasu zehatzari dagokionez, hori erreformatzeko aukerak ebaluatu behar ziren, zerga aplikatzea edo ez aplikatzea besterik ez planteatzen haratago. Beste aukera eta aterabide batzuk, esaterako Gipuzkoan aplikatzen den Fortuna Handien gaineko Zerga, Elkartasun Zerga frantsesa, are Box Tax holandarraren erako aukera drastikoago bat, aztertu beharko lirateke.
- Gure herrialdean Ondorengotzaren gaineko Zergaren egoerak premiazko erreforma bat eskatzen du, abiapuntu harturik eragin erreala, mortis causa eskualdatzeen arazoak eta zergaren helburuak; eta erreforma horrek gaur egun zergak dituen arazo larriak konpondu beharko ditu. Erreformatzaren borondate politikoa behar du, eta zerga-sistema orokorrean hartu behar du aintzat. Sistemaren deszentralizazioa, gaur egun pentsatuta dagoen moduan, aldatu egin behar da, eta zerga honen helburuei eman behar zaie lehentasuna.
- Amaitzeko, egungo testuinguru sozial eta ekonomikoan ez da posible aberastasuna alde batean uztea, ordaintze ahalmenaren adierazle huts harturik. Garrantzitsua da dituen aukera guztiak ebaluatzea eta aztertzea, eta gure herrialdeko zerga erreformarako agendetan sartzea.

Bibliografiako erreferentziak

ÁLVAREZ, J.C., GAGO, X. M., LABANDEIRA X., LAGO, S., PICOS F. eta M. RODRÍGUEZ (2012). Crisis Fiscal en España. ¿Qué puede aportar la fiscalidad ambiental y la tributación del capital?. III Conferencia sobre Descentralización y Federalismo Fiscal en España. Santiago de Compostela, 2012ko urria.

AUERBACH, A. (2006). "The Future of capital Income Taxation". Fiscal Studies, 27. lib., 399-420. or.

BARBERÁN, M.A. (2006). "Redistribución y progresividad en el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones; un análisis con datos de panel" Hacienda Pública Española. Revista de Economía Pública, 177. zk., 25-57. or.

BARBERÁN, M.A. eta MELGUIZO, M. (2007a). "Equidad y redistribución en el impuesto sobre sucesiones y donaciones: análisis de los efectos de las reformas autonómicas", Instituto de Estudios Fiscales. Papeles de Trabajo, 11. zk.

– (2007b): "Análisis redistributivo de las reformas autonómicas en el Impuesto sobre Sucesiones", Cuadernos de Información Económica, 201. zk., 35-47. or.

BARBERAN LAHUERTA, M.A., LOPEZ LABORDA, J. eta M. MELGUIZO GARDE (2010). "La imposición lineal de las sucesiones y donaciones. análisis recaudatorio y redistributivo". Papeles de Trabajo 2. zk., /2010. Instituto de estudios Fiscales.

BORRE, O., eta SCARBROUGH, E. (1995). Beliefs in government. Volume three. The Scope of Government. Oxford University Press: Oxford.

BOWLES, S. eta GINTIS H. (2002). "The Inheritance of Inequality". Journal of Economic Perspectives. Volume 16, Number 3, 3-30. or.

CABRILLO F. (2007). "La Supresión del Impuesto sobre el Patrimonio". Documento 58. zk., Fundación FAES.

CALONGE, S. eta ARCARONS, J. (2007). "Impuesto sobre la riqueza evaluación y microsimulación". Revista de Estudios Económicos, 4. zk., 231-259. or.

CHAMBERLAIN A, PRANTE G eta A. FLENNOR (2006). Death and taxes: the economics of the federal estate tax. Special Report. May 2006. Tax Foundation. 142.

CREMER, H., eta P. PESTIEAU, (2006). Wealth transfer taxation: a survey of the theoretical literature, in S.C. Kolm and J. Mercier, eds, Handbook on Altruism, Giving and Reciprocity, vol. 2, North Holland, Amsterdam, 1108-34. or.

CREMER, H., eta P. PESTIEAU, (2009). "Riqueza e imposición sobre la transmisión de riqueza: una revisión". Agiri aurkeztua in: Tax conference "Tax systems: whence and whither?", Malaga September 9-11, 2009.

CREMER, H., eta P. PESTIEAU, (2010). "Riqueza e imposición sobre la transmisión de riqueza: una revisión". Papeles de Economía Española. 125/126.

DOMIGUEZ, J.M. (2009). "El IRPF ante una encrucijada: opciones de reforma". Alcaláko Unibertsitatea. Serie documentos de trabajo 1/2009.

DURÁN J.M. eta ESTELLER A. (2007). "An Empirical Analysis of Wealth Taxation: Equity vs. Tax Compliance". Papeles de Trabajo 04/07. Instituto de Estudios Fiscales.

ERIKSON, R. y GOLDHORPE, J. (2002). "Intergenerational inequality. A sociological Perspective". Journal of Economic Perspectives. 16. lib., 3. zk., 31.-44. or.

FUENTES QUINTANA, E. (1990). Hacienda Pública: principios y estructura de la imposición, Madril.

GALBRAITH J.K.(1962). The affluent Society. Peguin Books.

GALE G.W. y SLEMROD J. (2001). "Rethinking the State and Gift tax: Overview. Working Paper 8205. National Bureau of Economic Research.

GALE M. eta PEROZEK. (2001). Do Estate Taxes Reduce Saving?, in Gale, W.G.; Hines J.R. eta J. Slemrod eds: Rethinking the State and Gift Taxation. Washington, D.C., Brookings Institution Press.

KOPCZUK, W. eta SLEMROD, J. (2000). "The Impact of the Estate Tax on the wealth Accumulation and avoidance behaviour of donors". Working Paper Series. Working paper, 7960. zk. National Bureau of Economic Research.

KOPCZUK, W. eta LUPTON, J. (2005). "To Leave or not To Leave: Distributions of Bequest Motives". NBER Working Paper, 11767. zk. Massachusetts. Cambridge.

KOPCZUK, W. (2006). "Bequest and Tax panning: Evidence from Estate Tax Returns". NBER Working Paper, 12701. zk. Massachusetts. Cambridge.

PABLOS, L. de (1990). Una Valoración del Impuesto Extraordinario sobre el Patrimonio Neto. Instituto de Estudios Fiscales.

PABLOS, L. de (2001). La imposición personal sobre la riqueza. su papel en los sistemas tributarios actuales. Hacienda Pública Española. Monografía 2001.

PABLOS L. de (2006). "Análisis y tipos efectivos del Impuesto sobre el Patrimonio e Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones". Papeles de Trabajo, 4. zk., Instituto de Estudios Fiscales.

PABLOS, L. de (2007a). Análisis de la Incidencia territorial del Impuesto sobre el Patrimonio Neto Investigación IEF. Mimeo.

PABLOS, L. de (2007b). The personal wealth taxes. the Inheritance and Gift Taxes and the Net Wealth Tax. Edward Elgar.

PABLOS, L. de (2008). Incidencia del Impuesto sobre el patrimonio y del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones. Investigación IEF. MIMEO.

PABLOS, L. de (2009). "Alternativas a la supresión del impuesto sobre el patrimonio". Documento de trabajo 8/2009. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea. UCM.

PABLOS, L. eta R. PAREDES (2010). El futuro de la Fiscalidad en España. Economistas. MONOGRÁFICO.

PABLOS L. de (2010). "Imposición sobre la riqueza y transmisiones de riqueza". Papeles de Economía Española. 125/126.

PABLOS L. de (2013). Propuesta Imposición sobre la riqueza Fundación Alternativas. MIMEO.

POTERBA, J. (2000). The Estate Tax and After-Tax Investment Returns. In Joel B. Slemrod, ed., Does Atlas Shrug? The Economic Consequences of Taxing the Rich. Russell Sage Foundation and Harvard University Press.

ZÁRATE (2009). "Exención de las empresas familiares y reorganización patrimonial en el Impuesto sobre el Patrimonio. evidencia para Aragón". Documento presentado al Seminario de Investigación del Dpto. de Economía Aplicada VI de la UCM. 2009ko apirila.

Hainbat egile (2014). Opciones para la reforma del Sistema Tributario Español. Ogasun eta Administrazio Publikoko Ministerioa.

Hainbat egile (2011). Informe Mirles. Gaztelaniazko itzulpena Fundación Ramón Areces.

Eranskina

1. Taula. Ondorengotza eta dohaintzen gaineko zergaren legedia. 2012

HERRIALDEA ADMINISTRAZIO MAILA	Herentzia osoaren edo legatuen gaineko zerga. Ondasunen balorazioa	Salbuespenak	Ahaidetasun mailak	Zerga-tasak
ALEMANIA Administrazio zentrala Onuradunak administrazio zentrala eta eskualdekoa	Legatu indibidualak. Merkatuko balioa	500.000 euro ezkontideen artean 400.000 euro seme- alabak 200.000 euro bilobak	1. maila. Ezkontideak, seme- alabak, bilobak, aitona- amonak. 2. maila. Anai-arrebak, osaba-izebak, ilobak. 3. maila. Beste batzuk.	1. oharra
TXEKIAR ERREPUBLIKA Administrazio zentrala	Legatu indibidualak. Merkatuko balioa	Salbuetsiak 1. eta 2. mailak	1. maila. Ezkontideak, seme- alabak, bilobak, aitona- amonak. 2. maila. Anai-arrebak, osaba-izebak, ilobak. 3. maila. Beste batzuk.	Legatuaren zenbatekoaren arabera % 4tik % 40ra bitartean
GREZIA Administrazio zentrala eta onuradunak gobernu zentrala eta toki gobernuak dira	Legatu indibidualak. Merkatuko balioa	Estatua, Eliza, erakunde publikoak, senar- emazteak, seme- alaba adingabeak. Oro har 400.000 euro hobariduneko, eta murriztapenak desgaituentzat. Lehen etxebizitza ere salbuetsita dago.	1. maila. Ezkontideak, seme- alabak, bilobak, aitona- amonak. 2. maila. Anai-arrebak, osaba-izebak, ilobak. 3. maila. Beste batzuk.	1. maila. % 0-10 bitartean 300.000 eurotik gora 2. maila. % 0-20 200.000 eurotik gora
LUXENBURGO Administrazio zentrala	Legatu indibidualak. Balorazio arau bereziak	Gutxienez 3 urte ezkonduta daramatzaten eta elkarrekin seme- alabak dauzkaten ezkontideak.	1. maila. Ezkontideak, seme- alabak. 2. maila. Anai-arrebak 3. maila. Osaba-izebak.	Elkarrekin seme-alabarik ez duten ezkontideen artean % 5 Bestelakoek % 15
BELGIKA Eskualdeko administrazioa	Legatu indibidualak. Merkatuko balioa	Ezkontideen artean salbuespenak, seme- alaba eta anai-arreben alde, ez oso handiak eta ahaidetasun mailaren arabera aldakorak. Karga txikiago bat dago Flemish-en, famili enpresen ondarearen kasuan.	1. maila. Ezkontideak eta seme-alabak. 2. maila. Anai-arrebak. 3. maila. Beste batzuk.	Zerga-tasa aldakorak eskualdearen arabera, eskualde zerga bat da eta. Esaterako, Flemish-en tasak honakoak dira: 1. maila. % 1etik 27ra 2. maila. % 30etik 65era
IRLANDA Administrazio zentrala	Legatu indibidualak. Balorazio arau bereziak	Nekazaritza, basozaintza eta enpresa ondasun garrantzitsuak.	1. maila. ezkontideak, seme- alabak. 2. maila. Gurasoak, anai- arrebak, ilobak, bilobak. 3. maila. Beste batzuk.	2011/12/7 baino lehen, % 25. 2011/12/7tik aurrera, % 30. 2011/12/7 baino lehen salbuetsia 1. maila. 332.084 euro 2. maila. 33.208 euro 3. maila. 16.604 euro 2011/12/7tik aurrera 1. maila. 250.000 euro 2. maila. 33.500 euro 3. maila. 16.750 euro
BULGARIA Administrazio zentrala	Dohaintzak bakarrik eta doan jasotzen den beste edozein eskurapen. Dohaintza bat jasotzen duena subjektu pasibo da, dena dela.	Estatua, udalak, hezkuntza erakunde publikoak, ikerkuntza eta kultur erakundeak eta Gurutze Gorria, besteak beste.	1. maila: Seme-alabak, anai- arrebak, ezkontideak. 2. maila: Beste batzuk.	1. maila. % 0,4-0,8 2. maila. % 5

2. koadroa. Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren bilketa

Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren bilketa				
BPGren gaineko portzentajea				
	2000	2005	2010	2012
ALEMANIA	0,15	0,18	0,18	0,16
BELGIKA	0,41	0,51	0,56	0,62
DANIMARKA	0,22	0,2	0,22	0,22
FRANTZIA	0,47	0,52	0,4	0,4
FINLANDIA	0,28	0,3	0,22	0,26
ITALIA	0,28	0	0,03	0,03
IRLANDA	0,21	0,15	0,16	0,15
GREZIA	0,27	0,12	0,07	0,05
LUXENBURGO	0,1	0,14	0,1	0,17
INGALATERRA	0,23	0,25	0,19	0,2
HOLANDA	0,13	0,41	0,24	0,2
	0,36	0,33	0,29	0,23

Iturria: "Taxes in European" database. Europe Commission. 2014

3. koadroa. Autonomia erkidegoen zerga-sarrerak. 2007

Sarreraren banakapena	Eskubide aitortu garbiak	Sarrera likidoak
ZERGA SARREREN LIKIDAZIOA 2007		
Zuzeneko zergak	30.445.309,09	29.603.297,31
Errentaren gaineko zergak	25.252.701,26	25.039.869,84
PFEZ	24.475.021,83	24.266.712,31
Sozietateen gaineko Zerga	777.679,42	773.157,53
Kapitalaren gaineko zergak	5.018.443,36	4.465.464,85
Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zerga	3.163.160,98	2.615.063,63
Pertsona Fisikoen Ondarearen gaineko Zerga	1.855.282,38	1.850.401,22
Beste zerga zuzen batzuk	174.164,47	97.962,63
Zeharkako zergak	53.035.903,05	52.386.598,75

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoko Ministerioa

4. koadroa. Autonomia erkidegoen zerga-sarrerak. 2010

Sarreraren banakapena	Eskubide aitortu garbiak	Sarrera likidoak
ZERGA SARREREN LIKIDAZIOA 2010		
Zuzeneko zergak	30.312.658,71	29.646.604,46
Errentaren gaineko zergak	27.382.484,64	27.372.662,97
PFEZ	27.101.454,22	27.082.871,37
Sozietateen gaineko Zerga	281.030,42	289.791,59
Kapitalaren gaineko zergak	2.765.318,42	2.154.175,28
Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zerga	2.661.377,80	2.058.977,04
Pertsona Fisikoen Ondarearen gaineko Zerga	103.940,62	95.198,25
Beste zerga zuzen batzuk	164.855,65	119.766,21
Zeharkako zergak	32,914.101,27	31.879.938,18

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoko Ministerioa

5. koadroa. Autonomia erkidegoen zerga-sarrerak. 2012

Sarreraren banakapena	Eskubide aitortu garbiak	Sarrera likidoak
ZERGA SARREREN LIKIDAZIOA 2012		
Zuzeneko zergak	48.242.660,32	47.419.043,58
Errentaren gaineko zergak	44.748.543,00	44.718.947,50
PFEZ	44.551.634,16	44.523.827,37
Sozietateen gaineko Zerga	196.908,84	195.120,12
Kapitalaren gaineko zergak	3.194.145,65	2.518.539,07
Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zerga	2.540.728,59	1.879.192,78
Pertsona Fisikoen Ondarearen gaineko Zerga	653.417,05	639.346,29
Beste zerga zuzen batzuk	299.971,67	181.557,02
Zeharkako zergak	57.915.281,33	57.108.802,41
Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga	5.651.566,54	4.985.628,41

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoko Ministerioa

6. koadroa. Autonomia erkidegoek aurrekontuan jasotako zerga-sarrerak. 2013

Sarreraren banakapena. Datu kontsolidatuak Autonomia Erkidegoen hasierako aurrekontuak. 2013ko ekitaldia. Erkidegoak guztira	
Sarreraren banakapena	mila euro
Zuzeneko zergak	39.166.982,51
Errentaren gaineko zergak	35.756.942,87
PFEZ	35.520.149,87
Sozietateen gaineko Zerga	236.793,00
Kapitalaren gaineko zergak	2.999.527,43
Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zerga	2.304.568,85
Pertsona Fisikoen Ondarearen gaineko Zerga	694.958,58
Beste zerga zuzen batzuk	410.512,21
Zeharkako zergak	52.886.489,77

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoko Ministerioa

Gipuzkoako aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga

Jose Luis Hernández

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Araugintzako eta Lege Aholkularitzako Zerbitzuko burua

1. Sarrera
2. Xedapen orokorrak. Zergapeko egitatea eta salbuespenak
3. Zerga-oinarria eta likidazio-oinarria
4. Kuota osoa
5. Kuota likidoa. Zehazki elementu atxiki eta partaidetzengatiko hobaria
6. Zergaren sortzapena eta kudeaketa
7. Ondare Zergaren kuota osoa gehi PFEZren kuota osoa, baterako muga: babes fiskala edo konfiskaziozkoa ez izateko klausula? Gai eztabaidagarria

1. Sarrera

Aberastasunaren gaineko tributazioak, edo, nahiago izanez gero, ondarearen gainekoak, hainbat gorabehera izan ditu azkenaldi honetan. 1977ko urtean "Pertsona Fisikoen Ondarearen gaineko Aparteko Zerga" onartu zutenetik, Kontzertu Ekonomikoaren onarpena ikusi dugu. Baita, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokionez, "abenduarien 27ko 14/1991 Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergarena" onartzea ere, eta hurrena hori deuseztatzea 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez (eragin data hori eta gure inguruko beste lurralde esparru batzuetakoa ez ziren bat etorri, eta horren inguruan ere eztabaida sortu zen); ondoren, 2011 eta 2012ko zergaldietarako, atzera indarrean jarri zuten, Ondarearen gaineko Zerga birjartzeko abenduaren 26ko 6/2011 Foru Arauaz, eta foru arau hau indargabetu egin zuten 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera. Eta, azkenik eta oraingoz, "abenduarien 18ko 10/2012 Foru Araua, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergarena" (aurrerantzean AFHZ) onartzea etorri da; azken honek indarrean segitzen du une honetan, eta lerro hauetako gaia izango da.

AFHZ Gipuzkoan indarrean egon zen lehengo Ondarearen gaineko Zergarekin alderatzen badugu (edo inguru hurbileko beste ondarearen gaineko zerga (OZ) batzuekin, ia-ia gauza bera baita), nire iritziz hiru dira bereziki nabarmendu beharreko alderdiak.

A.- Horietako lehenak garrantzi berezia du, eta gainera eragin zuzena du beste bietan ere. Halako mailan ezen uste baitut azken biak ezin direla erabat azaldu lehen hau kontuan hartu ezean. Eta gainera nolabait harrigarri gertatzen da nire iritziz zein gutxi hitz egiten den horretaz, hurrengo B) eta C) ataletan aztertuko ditudan gaiekin alderatuta. Zerga-tasen, hau da, tarifaren jaitzieraz ari naiz. Izan ere, AFHZren tarifa lehengo OZren tarifarekin alderatzen badugu, berehala ikusiko dugu tasak nabarmen murriztu direla. Egun, AFHZren tasa maximoa 100eko 1ekoa da; OZren tasa maximoa, aldiz, 100eko 2,5ekoa zen. Hau da, tasa maximoa 100eko 60 murriztu da, eta hori ez da batere kontu ohikoa gaur egun. Egia da tasa minimoa, egun 100eko 0,25ekoa den hori, 100eko 0,20koa zela lehen. Baina egia da, halaber, 100eko 0,20 haren eragina hutsaren hurrengo zela, bakar-bakarrik lehen 200.000 euroei aplikatzen zitzairen eta. 200.000 eta 400.000 euro bitarteko tarteari 100eko 0,30 aplikatzen zitzaion jada, gaur egun lehen tarteari aplika dakiokeen 100eko 0,25 horretatik gora alegia.

Kontuan hartu beharreko datua dugu 100eko 1eko tasa maximoa 3.000.000 eurotik gorako likidazio-oinarritik aurrera aplikatzen dela, eta lehen tasa maximoa bakar-bakarrik 12.800.000 eurotik gorako likidazio-oinarriari aplikatzen zitzaizela. Baina ez dugu aiantzi behar, era berean, OZren tarifa 3.200.000 eurotik gorako likidazio-oinarriari 100eko 1,70eko zerga-tasa aplikatzen zitzaizela jada, eta hori pixkanaka-pixkanaka gorantz zihola, lehen aipatu dudana 100eko 2,50eko horretara iritsi arte.

Azken batean, agerikoa da zerga-tasen jaitsiera handia gertatu dela, eta horren ondorioz datu bat dugu eskuartean, kontuan hartzeko modukoa inolaz ere eta AFHZren kontrako jarrera, bidezkoa bestenez ere, dutenek oso gutxi aipatua, zera baita: zergadunetatik 100eko 37,9k¹ gutxiago ordaintzen duela AFHZn OZk indarrean segitu balu ordaindu beharko zutena baino. Gainera, erantsi behar dugu ezen 100eko 1,5ek gauza bera ordaintzen duela, eta zergadunetatik 100eko 26,2k gehixago ordaintzen duela bere aberastasuna tarifako lehen tartean dagoelako; horrek 54 euro gehiago ordaintzea dakarkie, batez beste. Eta hori, nire iritziz eta kontuan harturik aberastasunaren gaineko zerga bat ari garela aztertzen, igoera hutsala dela esan genezake ia-ia. Beraz, zergadunen artean 100etik ia-ia 38k gutxiago ordaintzen dute zerga berriarekin, eta 100etik ia-ia beste 28k (1,5 gehi 26,2) berdintsu ordaintzen du AFHZrekin eta OZrekin. Hau da, zergadunen artean ia-ia 100eko 66k berdintsu ordaintzen du, edo gutxiago AFHZrekin OZrekin baino. Eta horren beste aldean, zergadunen artean 100eko 34k gehiago ordaintzen du AFHZrekin OZrekin baino. Tarifa aipatzean, adibide batzuk jarri eta AFHZren tarifak OZrenekin alderatuko ditut.

B.- Bigarren alderdi azpimarragarria eztabaidagai da, bai, adituen artean, iritzi publikoan (hedabideetan maiz) eta, noski, neurriak eragiten dienen artean. Jarduera ekonomiko bati atxikitako aktiboan edo enpresa-partaidetzen salbuespena kentzeari buruz ari naiz. Izan ere, ondasun atxikiak edo partaidetzak, baldintza batzuk betez gero betiere, salbuetsita zeuden OZn (eta salbuetsirik segitzen dute zerga hori aplikatzen jarraitzen duten lurraldeetan). Salbuespen hori desagertu egin da AFHZn. Alabaina, Gipuzkoan onartutako zerga berrian ondasun atxiki horiek edo partaidetzek ez dute osorik tributatzen, 100eko 75eko hoberia dute eta kuotan. Aurrerago aztertuko dut hoberia, adibide batzuk ere jarritz osatzearen.

Salbuespen hori kentzearen inguruko eztabaida, gauzak labor esanda, kontrako bi jarreraren defentsari dago lotuta. Horietako baten iritziz (salbuespena izatea defendatzen dutenen iritzia da), jarduera ekonomiko bati atxikitako ondasunengatik edo enpresa-partaidetzengatik AFHZn tributatu behar izateak gehiegizko zigorra ezartzen dio enpresariari, hainbat arrazoi tarteko. Hasteko, tesi horrekin bat egiten dutenek uste dute enpresaria tributatzera behartzen dela arriskuan dauden ondasun batzuegatik (jardueraren beraren arriskua alegia), are gehiago krisi garai hauetan, enpresariari pizgarriak eman beharko litzaizkiokeenean, salbuespenaren bidez, enpresan gehiago inberti dezan eta aberastasuna eta, horrenbestez, lanpostuak sor ditzan. Salbuespena kentzeak "gonbidatu" egiten du enpresaria elementu ez-emankor seguruagoetan inbertitzera, edo bere enpresa-egoerarentzat "atseginagoak" diren esparru geografikoetara aldatzera, urruntzen zaion lurraldeari kalte ekonomiko bat eraginez horrela.

¹ Paragrafo honetan jasotako datuak, AFHZn OZn baino gutxiago, berdintsu edo gehiago tributatzen duten zergadun portzentajei buruzkoak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuak eman ditu.

Kontrako aldean daude salbuespena desagertzearen bidezkoatasuna defendatzen dutenak. Eta, funtsean, defendatzen dute uste dutelako zergaren progresibotasunari eta ahalmen ekonomikoaren printzipioari eman behar zaiela lehentasuna, aberastasuna hobeto birbanatzea lortzearren. Egia da, diote, enpresarien lanak eginkizun garrantzitsua betetzen duela gizartean, eta horregatik 100eko 75eko hobaria dute ondasunen edo enpresa-partaidetzen tributazioan. Baina egia da, halaber, enpresariak duten "abertasuna", tesi honen arabera, kargatu egin behar dela, begi-bistakoa da eta ahalmen ekonomiko baten isla dela.

Atal honetan aipa dezakegu, halaber, badela ondasun atxiki eta enpresa-partaidetzengatik tributazio osoaren bidezkoatasuna defendatzen duen doktrina-sektore bat, horiei inolako hobaririk aplikatu beharrik ez dagoela dioen bat alegia.

Azken batean, bideetako bata edo bestea aukeratzea (salbuespena edo hobaria), edo aipatu dugun hirugarrenera (ondasun atxikien eta partaidetzen tributazio osoa) jotzea jarrera politikoei lotuta dago. Ikuspegi teknikitik, hiru horiek ez dute inolako arazo espezifikorik planteatzen. Beraz, dagokion atalean azaldu egingo ditut zertan dautzan, eskatzen diren baldintzak eta hobaria nola kalkulatu den. Hortik aurrera, irakurle bakoitzak gaiaren inguruko iritzia izango du, ezin bestela izan.

C.- AFHZren eta OZren arteko alderaketa eginez gero azpimarratu beharreko AFHZren hirugarren elementua OZren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osorako baterako muga desagertzea da, noski. Izan ere, kuota oso horien bien baturak ezin zuen PFEZko zerga-oinarriaren 100eko 60tik gora egin, nahiz muga horren inguruko ñabardurak hain ziren handiak ezen azalpen patxadatsuago bat behar duten. Kontuan hartuta AFHZk ez duela muga hori jasotzen, aztertu behar dugun zergako ataletan ez dago muga aipatu hori lotutakorik batere. Beraz, hurrenkera kontu batengatik, azalpen hori eta gaiaren inguruko hainbat gogoeta dokumentu honen amaieran jasoko ditut. Era berean, adibide batzuk ere ekarriko ditut lerrootara.

Aberastasunaren gaineko tributazioaren analisten sektore jakin batek "babes fiskal" edo "ezkutu" esaten dio baterako muga horri. Implizituki babes suerte bat aipatzen da, Ogasun Publikoaren "eraso baten kontrako defentsa" bat. Interesgarria da Espainiar Errege Akademiaren Hiztegiak "ezkutu" hitzari dagokionez jasotzen duen lehen adiera: *"defentsako arma, besoan hartua eramaten dena estaltzeko eta erasoko armetatik eta beste eraso batzuetatik begiratzeko"*. Beste sektore batek, berriz, ikuspegi antagonista batetik definitzen du, *"konfiskaziozkoa ez izateko klausulatzat"*, horren bidez adieraziz ezen zerga, klausula horren faltan, konfiskaziozkoa izan daitekeela eta, horrenbestez, inkonstituzionala. Esan dudan moduan, geroago aztertuko dut. Lan hau zentratzearren, nahiko deritzot sarrerako hiru atal hauetan adieraziari.

Hiru alderdi horiei dagokienez, gainera, adierazi nahi dut nire iritziz lehenbiziko biak izaera politikoko edo, nahi izanez gero, ideologikoko alderdien mendekoak direla. Hau da, zerga bateko ezarpen-tasak igotzeko edo jaisteko erabakia kontu politiko hutsa da, uste dut begi-bistakoa dela. Eta gauza bera esan daiteke ondasunen edo enpresa-partaidetzen salbuespena mantentzearen edo kentzearen inguruan ere: horiek salbuetsirik egoteak, hobaria edukitzeak edo salbuespenik zein hobaririk gabe egoteak jarrera politiko bat islatzen du halaber, eta horrekin bat egingo dugu, edo ez, ideologi kontuak tartean. Beraz, eta kontuan hartuta esparru politikoa ez dela nire esparrua, kontu biak azaltzera mugatuko naiz (dagoeneko egin dudan moduan), eta dokumentu honetan zehar horiek Gipuzkoan nola dauden erregulatuta azaltzera.

Alabaina, sarrerako atal honetan planteatutako gaietako hirugarrenak, AFHZren eta PFEZren kuotetarako baterako mugarenak, osagai bikoitza du nire ustez. Alde batetik planteamendu politiko edo ideologiko bati erantzuten dio. Gauza agerikoa da baterako muga mantentzea edo kentzea erabaki politiko bat dela. Baina agerikoa da, era berean, gai honetan funtsezko beste elementu bat ere sartzen dela, eta horrek ez diola analisi politiko bati erantzuten, baizik eta funtsean teknikoa den analisi bati. Tesi bati buruz ari naiz, zehazki baterako mugarik ez izateak zerga konfiskaziozkoa izatea eta, horrenbestez, inkonstituzionala izatea ekar dezakeela planteatzen duenari buruz. Eztabaida horrek gaiaren ikuspegi tekniko bat jasotzen du, izugarri interesgarri bat, gure garai hauetan batez ere. Lan honen amaieran horri buruzko iruzkin batzuk egin, eta adibide batzuk planteatuko ditut.

Ondoren, Gipuzkoako AFHZren gaineko errepasso bat egingo dut (laburra behar du, dugun espazioagatik), baina interes bereziko deritzedan alderdiez (orain arte aipatuez eta besteren batez) jardungo dut batez ere.

2. Xedapen orokorra. Zergapeko egitatea eta salbuespenak

Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga zuzeneko tributu bat da, izaera pertsonalekoa, pertsona fisikoen aberastasuna zergapetzen duena bera zerga arautzen duen abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauaren lehen artikulua ezarritako eran. 1. artikulua berak argitzen du zer hartu behar den kontuan pertsona fisiko baten "aberastasuna" zer den zehazteko. Gauzak horrela, zergaren ondorioetarako "aberastasuna" pertsona fisiko haren titularitatearen pean dauden ondasun eta eskubide ekonomiko guztiek eratuko dute, horien balioa gutxitzen duten zamak eta kargak zein pertsona fisikoak dituen zorrak eta obligazio pertsonalak kenduta.

Zerga aplikatu egingo zaie, obligazio pertsonalarengatik eta oro har, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari zergadun gisa lotuta daudenei, zerga hori ordainaraztea Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionean. Obligazio errealarrengatik aplikatu egingo zaie, orobat, lurralde espainiarrean egoiliar ez diren pertsona fisikoei, lurralde espainiarrean kokatutako ondasun eta eskubideen titular direnean, baldin eta ondasun eta eskubide horien baliorik handiena euskal lurraldean egonik, beste lurralde historietako bakoitzean, Bizkaian edo Araban, kokatutakoena baino handiagoa bada.

Zerga honen zerga-gaia zera da, sortzapenaren unean zergaduna aberastasunaren titular izatea goian azaldu diren baldintzetan. Obligazio pertsonalarengatik tributatu behar denean, zergadunaren aberastasun osoak eratuko du zerga-gaia. Eta obligazio errealarrengatik tributatu behar denean, zergadunak lurralde espainiarrean kokatuta dituen ondasun eta eskubideek eratuko dute zerga-gaia.

AFHZren Foru Arauak, zehazki 6. artikuluan, salbuetsirik jotzen dituen ondasunen artean, honakoak nabarmentzen dira:

1.- Zergadunaren ohiko etxebizitza, 300.000 euroraino gehienez. Ondorio hauetarako, kontuan hartu behar da AFHZ zerga pertsonal bat dela. Beraz, irabazpidezko ezkontza-erregimenean ezkonduak, edo egitatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak xedatutakoaren arabera eratutako egitatezko bikote batek 600.000 euro edo gutxiagoko balioan baloratutako etxebizitza baten jabetza komuna badute, etxebizitza hori osorik egongo da salbuetsita, zeren eta etxebizitza erdia egotzi beharko baitzaio ezkontide bakoitzari edo egitatezko bikotearen kide bakoitzari. Etxebizitzaren balorazioari dagokionez, kontuan hartu beharko dira balorazio arauak; geroago aipatuko ditut.

Era berean, garrantzitsua da aipatzea ezen etxebizitzak, zergaren ondorioetarako ohiko etxebizitza izan dadin, bete egin beharko dituela PFEZ arautzen duen foru arauan aurreikusten diren baldintzak. Hala, ohiko etxebizitza izango da zergadunak gutxienez hiru urte segidan egoitza izandakoa, aparteko arrazoiak tartean direnean izan ezik.

2.- Etxeko ostilamendua. Hau da, efektu pertsonalak zein etxeakoak, etxeo tresneria, eta zergadunak erabilera partikularreko dituen gainerako ondasun higigarriak. 10.000 euroko muga jartzen da banakako elementu bakoitzerako. Beste era batean esanda, banaka 10.000 eurotik gorako balioa hartzen ez duten etxeo ostilamenduko ondasun guztiak salbuetsirik egongo dira, horien guztien baturak aipatu kopurua gainditzen badu ere. Baina banaka hartuta elementuetakoren batek muga hori gainditzen badu, zerga-oinarrian sartu beharko da lehen eurotik hasita.

3.- Eduki ekonomikoko eskubideak, borondatezko aurreikuspeneko entitateen kasuan, pentsio planen kasuan, aurreikuspen plan aseguratuen edo enpresen gizarte aurreikuspeneko planen kasuan.

4.- Euskal Kultur Ondareko ondasunak, Espainiako Ondare Historikoko ondasunak edo autonomia erkidegoetako ondare historikoko ondasunak, betiere Erregistro Orokorrean edo dagokien inbentario orokorrean inskribatuta badaude.

5.- Arte-gaiak, zaharkinak eta bildumak, baldin eta haien jabeek museoei edo irabazteko asmorik gabeko kultur erakundeei laga badizkiete jendaurrean erakusteko, eta artegileen obra bera, egilearen ondarean dagoen bitartean. Era berean, arte-gaiak, zaharkinak eta bildumak haien balioa erregelamenduz ezartzen diren zenbatekoetara iristen ez denean. Lerro hauek idazteko unean, erregelamendu garapen hori ez da oraindik zertu.

6.- Jabetza intelektual edo industrialetik eratorritako eskubideak, egilearen ondarean dauden bitartean (eta jabetza industrialaren kasuan, jarduera ekonomikoari atxikita ez daudenean).

7.- Euskal Herrian kokatuta dauden espezie autoktonoko basoak. Salbuespen hau 100.000 euroraino aplikatuko da gehienez. Kasu honetan, eta etxeko ostilamenduari buruz adierazitakoaz bestela, mota honetako basoen kasuan, aipatu kopurutik gorako balioa badute, 100.000 eurorainoko salbuespena aplikatuko da. Zenbateko salbuetsia gainditzen duen zenbatekoa sartuko da zerga-oinarrian.

8.- Energia berriztagarrien instalazioak. Baso autoktonoen kasuan bezala, salbuespen hau 100.000 euroraino aplikatuko da gehienez. Era berean, hortik gorakoa zerga-oinarrian konputatuko da.

9.- Jendeak oro har erabiltzekoak diren bidexka, terreno eta instalazioak, haien onura kasuan kasuko herri administrazioak aitortu duenean, eta erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan. Erregelamendu garapena ez da oraindik zertu.

10.- Nagusiki nekazaritza, abeltzaintza, erlezaintza edo basogintzako jardueretara bideratutako ondasun eta eskubideak, baldin eta jarduera horiek pertsona fisikoek egiten badituzte pertsonalki eta zuzenean, eta ondasun eta eskubide horiek ez badaude atxikita zergadunaren errenta iturri nagusia diren jarduera ekonomikoari.

Orobat, landa izaerako ondasun eta eskubideak, landa lurreko finkak edo nekazaritza ustiategiak, baldin eta Nekazaritza Lurren Funtsean sartzeko lagatzen badira.

Zenbaki honetan aipatzen diren ondasunen salbuespena ere 100.000 euroraino aplikatuko da gehienez. Hortik gorakoarengatik tributatuko da.

11.- Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren indarrez salbuetsita dauden etekin jakin batzuen baloreak.

Zerga-oinarrira igaro aurretik, komeni da aipatzea ezen, ohiko etxebizitzaren salbuespena aipatzean aurreratu dugun moduan, ondasun eta eskubideak zergadun bakoitzari atxikitzen zaizkiola kasu bakoitzean aplika daitezkeen titularitate publikoari buruzko arauen arabera, kontuan harturik, hala dagokionean, bai senar-emazteen erregimen ekonomikoa arautzen duten xedapenetan ondasun eta eskubideen titularitate juridikoari buruz jasota dauden arauak, bai egitatezko bikotearen ondare harremanei buruzkoak.

3. Zerga-oinarrria eta likidazio-oinarrria

A.- Zerga honen zerga-oinarrria zergadunaren aberastasuna da, AFHZ arautzen duen Foru Arauaren IV. kapituluaren aurreikusitako eran baloratua.

Aberastasuna kalkulatzeko, bi balio hauen arteko diferentzia egingo da:

a) ondasun eta eskubideen balioa, zama eta karga errealean zenbatekoa kenduta, ondasun eta eskubideen balioa gutxitzen dutenean. Ikusten denez, AFHZn, eta lehengo OZn ez bezala, zama eta karga aipatuen zenbatekoak gutxitu egiten du ondasun bakoitzaren balioa, konputura begira. Eta

b) zergadunaren zorrak eta obligazio pertsonalak.

Zorrei dagokienez, bi alderdi garrantzitsu aipatu behar dira:

- Ondasun edo eskubide salbuetsiak eskuratzeko hartutako zorrak eta obligazioak ez dira inoiz kengarriak izango. Salbuespena partziala denean, zati proportzionala izango da kengarria, hala badagokio. Adibidez, pertsona batek 80.000 eurotan baloratutako baso autoktono bat erosten badu mailegu baten bidez, mailegu hori ez da kengarria izango, ondasuna salbuetsita dago eta. Basoaren balioa 200.000 eurokoa bada eta mailegu baten bidez finantzatzen badu, basoaren 100eko 50 besterik ez dagoenez salbuetsita, maileguaren 100eko 50 kendu ahal izango du halaber. Bestetik, etxeko ostilamenduko 5.000 eurotan baloratutako elementu bat eskuratzen badu eta hori mailegu batez finantzatzen badu, mailegu hori ez da kengarria izango, ondasuna salbuetsita dagoelako. Baina, 15.000 eurotan baloratutako etxeko ostilamenduko elementu bat eskuratzen badu, erosketa mailegu batez finantzatuz, ondasuna ez dagoenez salbuetsita mailegua oso-oso izango da kengarria, zor gisa.

- Zerga ordaintzeko obligazio erreala dagoenean, AFHZri lotutako ondasun eta eskubideetan inbertitutako kapitalengatik sortutako zorrak bakarrik izango dira kengarriak (adibidez, Gipuzkoan kokatutako higiezin baten erosketa finantzatzeko kontratatutako mailegu bat, zergadunak zerga ordaintzeko obligazio erreala duelako hari dagokionez).

Ondasunak baloratzeko erregelei dagokienez, honakoa azpimarratu behar da:

1.- Ondasun higiezinari dagokienez, OZren eskema zaharrarekin jarraitzen da higiezinak baloratzeko; horrek distortsioen bat eragin dezake, zerga justizia horizontalaren ikuspegitik. Izan ere, ondasun higiezinak konputatzeko kontuan hartzen da hiru balioen arteko handiena; balio horiek honakoak dira:

- katastrala
- Administrazioak beste zerga batzuen ondorioetarako egiaztatutakoa, edo
- erosketaren prezio, kontraprestazio edo balioa.

Sistema honek badu abantailaren bat. Adibidez, aukera ematen du balioak "gaurkotzen" joateko, zeren eta balorazioa ez baita "argazki finko" baten bidez egiten - horixe genuke balio katastrala-, beste modu batean baizik: eskuratzen diren higiezinak ordaindutako prezioagatik edo, handiagoa bada, egiaztatutako balioarengatik konputatzen dute AFHZn. Eta duela asko eskuratutako higiezinaren kasuan, beti dago balio katastralaren "zorua". Hala eta guztiz, baina, begi-bistakoa da gerta daitezkeela (eta gertatzen dira) bi zergadunek zerga desberdin ordaintzen duten zertzeladak, ondasun antzekoak (edo berdinak) eduki arren. Adierazi moduan, zerga justizia horizontalak sufritu egiten du horrelako kasuetan. Ikuspegi honetatik, eta aitortu arren beste arazo batzuk gerta daitezkeela, komenigarriagoa genuke, agian, balorazio sistema bakar bat, esate baterako balio katastralarena. Egia da "argazki finkoko" sistema hauek (argazki finko erlatiboa da, egiaz, zeren eta balio katastrala urtero eguneratzen baita KPIren arabera; baina KPI hori ez dator bat, ezinbestean, higiezinaren prezioen fluktuazioarekin) badutela halako arrisku bat, zaharkituta geratu eta txikiak izateagatik balorazio irreal batzuk eragiteko; horiek tributazio baxuagoa eragingo lukete ondasun mota honen kasuan, beste ondasun batzuekin alderatuta. Baina, bestetik, justizia horizontalaren ikuspegitik saihestu egingo lirake egoera diskriminaziozkoak, hots, bi pertsonak bi ondasun berdinegatik desberdin tributatzeko eraginak. Ideala (oso zaila da, badakigu) izango litzateke AFHZko zerga-oinarrian konputatu beharreko balioa kalkulatzeko balio duten higiezinaren balorazioak uneoro gaurkoturik mantentzea. Konparazioa, balorazio katastral eguneratu batzuen bidez. Ez dugu ahantzi balio katastralek eragin zuzena dutela OHZn; horrenbestez, zerga horretako tasak ere uneoro gaurkoturik mantendu beharko lirake, "gain-zergapetzerik" ez sortzeko... baina hori beste kontu bat da. Gainera, balio katastralean oinarritutako tarteko beste sistema batzuk ere ikertu ahal izango lirake, baina balio hori zuzenean erabiltzeko AFHZren ondorioetarako. Sistema horiek, bestenez ere, asmatuta daude jada.

Azkenik, eta higiezinari dagokienez, adierazi behar da foru arauak erregela berezi batzuk aurreikusten dituela eraikitzen ari diren higiezinentzat eta multijabetza erregimeneko kontratuentzat.

2.- Jarduera ekonomikoei dagokienez, ondasun eta eskubide atxikiak, arau orokor gisa, horien kontabilitatek ateratzen den balioaz konputatuko dira, betiere kontabilitatea Merkataritza Kodeari egokitzen bazaio.

Higiezin atxikiak, baina, aurreko 1 zenbakian aipatu ditugun ondasun higiezinak baloratzeko erregela orokorrak aplikatuta baloratuko dira, non eta ez diren aktibo korrontearen parte eta jarduera ekonomikoaren xedea bakar-bakarrik eraikuntza edo higiezinaren sustapeneko jarduerak garatzea ez den.

Kontabilitatea ez bada Merkataritza Kodearen arabera, zerga honen gainerako arauak aplikatuz egingo da balorazioa.

3.- Aktibo finantzario, bizitza-aseguru, bitxi, ibilgailu, arte-gai, emakida administratibo eta aukerei dagokienez, zorrei bezalaxe, erregelak lehengo OZn ezarritakoaren berdina dira; beraz, ez naiz puntu honetaz arituko.

B.- Likidazio-oinarria, obligazio pertsonalaren kasuan, zerga-oinarrian minimo salbuetsiaren kontzeptuan 700.000 euroko murrizpen bat egitearen emaitza izango da. Beste era batean esanda, 700.000 eurotik beherako aberastasuna duten pertsonak ez dute euro bakar bat ere ordaindu beharrik izango zerga honengatik. Gainera, kontuan hartzen badugu ohiko etxebizitza salbuetsirik dagoela 300.000 euroko mugaraino, ikusiko dugu ezen kasu asko eta askotan 1.000.000 eurotik beherako aberastasunak (murrizpeneko 700.000 euro gehi ohiko etxebizitzako 300.000 euro) ez duela zerga ordainduko. Eta gainera, irabazpidezko erregimenean dauden senar-emazteen (edo egitatezko bikoteen) kasuan, milioi hori zergadun bakoitzeko izango da. Hau da, bi milioi eurotik beherako aberastasun komuna duten bikote askok ez dute zerga honengatik tributatu beharrik izango.

Obligazio errearen kasuan, likidazio-oinarria zerga-oinarriarekin bat etorriko da. Baina zergadunak frogatzen badu bere aberastasun osoa 700.000 euro baino gutxiago dela eta ez dela zerga-paradisuko bateko egoiliar, 700.000 euroko minimo salbuetsia aplikatu ahal izango du.

4. Kuota osoa

Kuota osoa, logikoa den moduan, likidazio-oinarriari karga tasak aplikatuz ateratzen da.

AFHZren tarifa honakoa da:

Likidazio-oinarria (zenbateraino)	Kuota osoa	Bestea (zenbateraino)	Tasa (%)
0	0	500.000	0,25
500.000	1.250	1.000.000	0,50
1.500.000	6.250	1.500.000	0,75
3.000.000	17.500	1,5M-tik gora	1,00

Gipuzkoan 2012 arte aplika zitekeen lehengo OZren tarifa aplikagarria honakoa zen:

Likidazio-oinarria (zenbateraino)	Kuota osoa	Likidazio oinarriaren beste partea (zenbateraino)	Tasa aplikagarria
Euro	Euro	Euro	portzentajea
0	0	200.000	0,20
200.000	400	200.000	0,30
400.000	1.000	400.000	0,50
800.000	3.000	800.000	0,90
1.600.000	10.200	1.600.000	1,30
3.200.000	31.000	3.200.000	1,70
6.400.000	85.400	6.400.000	2,10
12.800.000	219.800	6,4M-tik gora	2,50

Beraz, ikusten da tasa maximoa 100eko 1ekoa dela, hau da, tasa maximoa lehengo OZren kasuan aplika zitekeena baino nabarmen txikiagoa da, hura % 2,5ekoa baitzen. Zehazki, aurreko OZn indarrean zegoena baino 100eko 60 baxuagoa. Eta askoz txikiagoa, halaber, inguru hurbilean aplika daitezkeen ondare zergetan baino.

Ondoren, balizko jakin batzuetan AFHZren eta lehengo OZren tarifa aplikatuzetik ateratzen diren kuota osoak alderatuko ditugu:

Ondare ez salbuetsia (mila euro)	1.000	2.000	5.000	10.000	25.000	50.000
AFHZren kuota (osoa eta eurotan)	750	5.250	30.500	80.500	230.500	480.500
2012ko OZren kuota (osoa eta eurotan)	700	7.500	49.700	146.300	507.300	1.132.300

Beraz, ikusten dugu ezen, lehen balizkoaren salbuespenaz, horretan 50 euroko gorakada baitago AFHZren tributazioan, aztertutako beste kasu guztietan AFHZren kuota osoa nabarmen txikiagoa dela lehengo OZn baino. Eta aldea are nabarmenagoa da ondare handien kasuan, tasa marjinal maximoaren murrizte nabarmenaren ondorioz.

5. Kuota likidoa. Zehazki elementu atxiki eta Partaidetzengatiko hobaria

Kuota likidoa ezin da inoiz negatibo izan, eta kuota osoari bidezkoak diren kenkari eta hobarien zenbatekoa gutxituz ateratzen da. Obligazio errearengatik ateratzen den kuota likidoa inoiz ezin da handiagoa izan, zergaduna bere aberastasun osoari dagokionez obligazio pertsonalarengatik zergari lotuta egongo balitz aterako litzatekeen kuota likidoa baino.

A.- Kenkarietara dagokienez zergadunak, obligazio pertsonalaren kasuan, bakar-bakarrik atzerrian ordaindutako zergei dagozkienak aplikatu ahal izango ditu. Hau da, bi zenbatekoren artean txikiena kendu ahal izango du, zenbateko horiek honakoak baitira:

- AFHZren izaeraren berdina edo antzekoa duen beste karga batengatik atzerrian ordaindutako benetako zenbatekoa, baldin eta karga horrek zerga horretan konputatutako ondasun eta eskubideei eragiten badie.

- Atzerrian zergapetutako likidazio-oinarriaren zatiari AFHZren batez besteko karga tasa aplikatuz ateratzen den emaitza. Ondorio hauetarako, eta zergaren 24.2 artikuluan aurreikusitaren arabera, kargaren batez besteko tasa ateratzeko 100ez biderkatuko da tarifa aplikatuz ateratzen den kuota osoa likidazio-oinarriaz zatitzean ateratzen den zatidura, eta bi dezimalez adieraziko da.

B.- Garrantzi praktiko eta oihartzun publiko handiagoa izan du, eta izaten segitzen du, 27. artikuluan aurreikusitako hobariak. Jarduera ekonomikoetara atxikitako elementuengatiko eta entitate jakin batzuetan akzioak eta partaidetzak edukitzeagatiko hobariari buruz ari naiz.

Izan ere, foru arauak 100eko 75eko hobaria aurreikusten du jarduera ekonomiko bati atxikitako ondasun eta eskubideei eta entitate batzuetako partaidetzei dagokien kuota osorako, betiere baldintza jakin batzuk betetzen badira. Kuota osoaren zati hori kalkulatzeko, kuota osoa biderkatu egingo da hobariaren gai diren ondasun eta eskubideei dagokien zerga-oinarri positiboaren zatia zerga-oinarriaz zatituz ateratzen den zatiduraz.

Horrenbestez, eta kontua behar bezala kokatzeko, interesgarria da azpimarratzea ezen egia baldin bada (eta egia da) ondasun atxikiak eta enpresa-partaidetzak 100eko 75eko hobaria dutela, teknikoki ez dela zuzena ondasun atxikiak eta partaidetzak AFHZn zigortuta daudela esatea (behin eta berriro esan izan baita). Eta ez da egia, begi-bistakoa baita, hain zuzen ere 100eko 75eko hobaria dutelako. Hala, enpresari batek bere ondarea bere enpresan inbertitzen badu (eta horrek betetzen ditu hobaria aplikatu ahal izateko baldintzak, noski), AFHZn tributatu beharko duena bere ondarea beste edozein aktibo motatan -akzioak, inbertsio fondoak, higiezinak...- inbertitu balu ordaindu beharko zuenaren laurdena izango da, ez besterik, beste aktibo mota horiek ez dute-eta hobaririk izango.

Beste kontu bat da, oso bestelakoa gainera, zenbaitek uste duela ezen 100eko 75eko hobaria ez dela behar bestekoa, eta salbuespena litzatekeela egokia; baina hori beste eztabaida bat da. Gauza bat da eztabaidatzea 100eko 75 egokia den, gutxi edo asko den, eta beste bat da esatea ondasun atxikiak eta enpresa-partaidetzak okerrago tratatzen direla AFHZn beste edozein ondasun baino. Hori ez da egia.

Seguruenik, ondasun atxikiak eta enpresa-partaidetzak beste ondasunak baino okerrago tratatuta daudela diotenak ez dira horretan pentsatzen ari. Egiaz, mahai gainean jartzen dutena da ondasun atxiki eta partaidetza horiek, beste bi lurralde historikoetan, salbuetsirik daudela. Beraz, eztabaida ez da ondasun eta partaidetzei beste ondasun batzuekin alderaturik ematen zaien zerga tratamendua, baizik eta ondasun eta partaidetzak lurralde batean duten zerga tratamendua, beste lurraldeetan duten tratamenduarekin alderatuta. Azken batean kontua da, kontu egiaz garrantzitsua eta arduradun politikoei aintzat hartu beharrekoa, inolaz ere, ezen lurralde batzuetan ondasun atxiki eta partaidetzak salbuetsita daudela eta lurralde mugakidean salbuespen hori ez dutela (nahiz 100eko 75eko hobaria baden), gerta daitekeela zenbait zergadunek baloratzea lurraldez aldatzea komeni ote zaien, bere zerga ahalmen guztiaz (ez bakarrik AFHZri dagokionez, baizik eta baita PFEZri dagokionez ere). Eta horrek, seguruenik, eskumen ereduari buruzko eztabaidara eramango gaitu, interes handiko gaia bera, baina lan honen xedetik kanpo dagoena.

Bestetik, ezin dugu ahanzi beste lurralde batzuk ere badirela, ez mugakideak baina bai oso hurbilekoak, ondasun atxiki eta enpresa-partaidetzentzako salbuespenik mantentzearen inguruko arazorik ere ez dutenak, zeren eta ondarearen gaineko zergarik (eta noski, ezta aberastasunaren gainekorik ere) ere ez baitute; horrenbestez, zergadunek helbidea aldatze horren arazoa ez litzateke konponduko ondasun atxiki eta enpresa-partaidetzei salbuespena aplikatzearen bidez.

Aurrekoa esan ondoren, segitu aurretik komeni da argitzea ondorio hauetarako zer hartu behar den jarduera ekonomikotzat eta zer ondasun atxikitzat. Bada, jarduera ekonomikoa izango da PFEZren araudian horrelako izaera aitortzen zaiona. Eta hemen nabarmendu behar dugu ezen, 3/2014 Foru Arauak, Gipuzkoan PFEZ erregulatzen duenak, aurreikusten

duenarekin bat, ulertuko dela higiezinak errentatzea edo salerostea jarduera ekonomikotzat hartzen dela, jarduera horretarako gutxienez pertsona bat dagoenean lan kontratu bidez kontratatuta, lanaldi osoan eta jarduera horretarako dedikazio eskusiboarekin. Ondorio horietarako ez dira kontuan hartuko ez senideak ez zergadunari lotutzat jotzen diren pertsonak. Horrenbestez, jarduera honetan PFEZren araudia, alderdi batzuetan, aurrekoa baino laxoagoa da arlo honetan jarduera bat ekonomikotzat hartzeko unean (jada ez da lokalik eskatzen), eta higiezinaren errentamendu edo salerosketa jarduerako hobariaren aplikazioaren esparrua zabaltzen du halaber. Horrela, aurreko araudiaren arabera OZko salbuespena aplikatzerik ez zeukan zenbait pertsonak aukera izango du, orain, AFHZko hobaria aplikatzeko.

Jarduera ekonomiko baten aurrean gaudela jakin orduko, kontuan hartu beharko dugu ondasun atxikitzat hartuko direla PFEZn horrelakotzat hartzen direnak.

Komeni zaigu gogoratzea, gainera, hobaria hobeto uler dezagun, lan hau erredaktatzeko unean indarrean segitzen duela (eta ez da aurreikusten epe laburrean indarrean egoteari lagako dionik) abenduaren 21eko 118/1999 Foru Dekretuak, Ondarearen gaineko Zergaren salbuespena aplikatzeko enpresa eta lanbide jarduerak eta entitateetako partaidetzek bete beharreko beharkizun eta baldintzak zehazten dituenak, 2008ko abenduaren 31n indarrean zuen erredakzioaz, hain zuzen AFHZFAren Amaierako Zazpigarren Xedapenak xedatzen duenaren arabera. Horrenbestez:

I.- Hobaria izango dute pertsona fisikoen ondasun eta eskubideek, beraien jarduera ekonomikoari lotuek. Horretarako, eskatzen da zergadunak jarduera ekonomiko hori ohikotasunez zertzea, modu pertsonal eta zuzen batez, eta gainera horixe izatea zergadunaren errenta iturri nagusia.

Gainera, adierazi behar da ezen ulertuko dela jarduera zergadunaren sarrera iturri nagusia dela, PFEZren zerga-oinarriaren 100eko 50 gutxienez jarduera horren etekin garbietatik datorkionean. Portzentaje horretara iristen den zehazteko, ez dira konputatuko entitateetako partaidetzetatik sortzen diren ordainsariak, horiek ere, bere aldetik, AFHZren hobaria aplikatzeko betekizunak betetzen dituztenean. Zergadunak hainbat jarduera garatzen dituenean, errenta iturri nagusia ote diren zehazteko kontuan hartu beharko dira jarduera guztiak, oro har, eta hobaria, hala badagokio, guztien gainean aplikatuko da.

II.- Hobariaren gai izango dira, halaber, zergadunaren titularitatepeko akzioak edo partaidetzak, betiere ondoko baldintza hauek betetzen badira:

- Entitatearen zeregin nagusia ez izatea ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzea.

- Zergadunak entitatearen kapitalean duen partaidetza gutxienez 100eko 5koa izatea, indibidualki konputatzen bada, edo 100eko 20koa famili multzoarekin konputatzen bada.

- Zergadunak zuzendaritza-lanak egitea entitatearen barruan, eta horregatik bere lanaren eta bere jarduera ekonomikoen etekin guztien 100eko 50etik gorako ordainsaria jasotzea. Ondorio horietarako, honako karguok hartzen dira zuzendaritza-lantzat: lehendakaria, zuzendari nagusia, gerentea, administratzailea, departamentuko zuzendaria, kontseilaria, eta administrazio kontseiluko edo antzeko administrazio organo bateko kidea. Kargu horietako edozein betetzeak enpresaren erabakietan benetan esku hartzea ekarri behar du berekin. Entitatean dagoen partaidetza famili multzoarekin baterakoa baldin bada eskatzen den 100eko 20ra iristeko, zuzendaritza-lanei eta ordainsariei buruz adierazia gutxienez multzo horretako pertsona baten kasuan bete beharko da. Famili multzoko pertsonetako batek baldintza biak betetzen dituenean, multzoko kide guztiek izango dute hobarirako eskubidea.

Era berean, komeni da aipatzea ezen hobarirako kontuan hartuko dela jarduera ekonomiko bati atxikitako aktiboen balioaren eta entitatearen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioa. Horrela saihestu egin nahi da jarduera ekonomiko batean ari den sozietate baten titularitatekoak diren ondasunen gainean aplikatzea zerga hobaria, egiaz ondasun horiek inongo jarduera ekonomikori atxikirik ez daudenean.

Ondoren, hobari honek zergaren likidazioan daukan eraginaren adibide batzuk ikusiko ditugu. Horretarako, balizko hiru egoera desberdin alderatuko ditugu, hobaria aplikatu ahal izateko baldintzak betetzen dituzten zergadunaren partaidetzek (edo elementu atxikiak) haren aberastasun osoarekiko hartzen duten portzentajearen arabera. Eta,aldi berean, alderatu egingo ditugu pertsona horiek lehengo OZren araudia aplikatuz gero tributatu beharko zutenarekin. Ikusiko dugu enpresa-partaidetzek aberastasun osoaren gainean hartzen duten portzentajeak gora egin ahala zergadunak gehiago tributatu duela lehengo OZrekin baino. Eta hori lehengo OZn aurreikusita zegoen salbuespena desagertu eta AFHZko 100eko 75eko hobaria aplikatzeagatik gertatzen da. Alabaina, ikusten da ezen partaidetzen portzentajea zenbat eta txikiagoa izan aberastasun osoarekiko, zergadunak gutxiago ordainduko duela AFHZrekin lehengo OZrekin baino. Horren atzean zerga-tasetan izan den mamizko jaitziera dago.

Ondoko taulan hiru balizko planteatzen dira: "A", "B" eta "C". "A" balizkoan, zergadunaren partaidetzak beraren aberastasun osoaren 100eko 80 dira; "B" balizkoan, partaidetzek aberastasun osoaren 100eko 50 egiten dute; eta "C" balizkoan, bakar-bakarrik 100etik 20 egiten dute. AFHZrekin lotutako bi zutabe ere jasotzen dira, zeren eta hobaria kuota osoa kalkulatu ondoren aplikatu behar denez, kuota likidoa eta kuota osoa ez baitira bat etorriko. Alabaina Ondare Zergan, ondasun salbuetsiak izaki zerga-oinarrian sartzen ez zirenez, enpresa-partaidetzak egoteak ez zuen kuota osoan eraginik.

Aberastasuna (mila euro)	AFHZ kuota osoa eurotan	AFHZ kuota likidoa eurotan	2012ko OZ kuota osoa eurotan
2.000 A	5.250	2.100	0
2.000 B	5.250	3.281,25	700
2.000 C	5.250	4.462,50	3.900
5.000 A	30.500	12.200	700
5.000 B	30.500	19.062,50	12.800
5.000 C	30.500	25.925	32.700
10.000 A	80.500	32.200	7.500
10.000 B	80.500	50.312,50	49.700
10.000 C	80.500	68.425	104.300
25.000 A	230.500	92.200	49.700
25.000 B	230.500	144.062,50	198.800
25.000 C	230.500	195.925	382.300

6. Zergaren sortzapena eta kudeaketa

AFHZ urte bakoitzeko abenduaren 31n sortzen da, eta zergadunak data horretan bere titulartasunpean duen aberastasunari eragiten dio. Beraz, urtean zehar hilez gero, ondorengoek ez dute pertsona zenduaren autolikidaziorik zertan aurkeztu, heriotza gertatu den urteari dagokionez. Dena den, ondorengo horiek dagokien jaraunspen zatia sartu beharko dute, noski, eta hala dagokionean, egiten dituzten zerga honetako autolikidazio pertsonaletan.

Obligazio pertsonalaren kasuan, zerga honetan autolikidazioa aurkeztera behartuta egongo dira kuota likidoa ordaintzeko ateratzen zaien zergadunak. Era berean, autolikidazioa aurkeztu beharko dute, horretatik ordaintzeko kuota likidatorik atera ez arren, dituzten ondasun eta eskubideen balioa, salbuetsiak barne, 3 milioi eurotik gorakoa denean.

Obligazio errealaren kasuan, autolikidazioa aurkeztu beharko da likidazio-oinarria 200.000 eurotik gorakoa denean.

7. Ondare zergaren kuota osoa gehi PFEZren kuota osoa, baterako muga: babes fiskala edo konfiskaziozkoa ez izateko klausula? Gai eztabaidagarria

Lan honen sarreran adierazi dudan moduan, AFHZk ez du jasotzen OZk aurreikusten zuen baterako muga; gaur egun baterako muga hori mantentzen da OZ indarrean duten lurraldeetan. Horrexegatik, AFHZk ez duenez muga hori, begi-bistakoa da zergatik ez dudan aztertu zergari buruz aurreko ataletan egin dudan errebasoan zehar. Hala eta guztiz, gaiaren garrantzia dela eta, horren inguruko gogoeta bat egitea komeni da.

Ezinezkoa da analisi sakonik egitea, daukadan tartean baterako mugaren (edo babes fiskalaren edo konfiskaziozkoa ez izateko klausularen, irakurleak nahi duen moduan) gai izugarri interesgarriari eta AFHZren eskematik desagertzeak izango dituen ondorioei buruz. Baina espazio hori nahikoa izan daiteke iruzkin batzuk egiteko, esparru teknikoan, politikoan, are komunikabideetan ere garatzen ari den eztabaidaren inguruan. Izan ere, baliteke etorkizun ez urrun batean auzitegietara ere heltzea kontua. Eta diot bereziki interesgarria dela, ez bakarrik gai noski eztabaidagarria izan daitekeelako eta ñabardura, esan dezagun, akademiko ugariz hornituta dagoelako, baizik eta baita, eta honek askoz dimentsio praktikoago batean kokatzen du gaia, Gipuzkoan zergadunen aberastasuna kargatzen duen zergak (ondorio hauetarako berdin zaizkigu aberastasun kontzeptua edo ondare kontzeptua), gure inguruan lehen aldiz, ez duelako ere aipatutako baterako muga hori. Beraz, eztabaida geletatik "hondarretara" jaitsi da.

Figura honen mugari garrantzitsuenen gaineko errepasso bizkor bat eginez, azaroaren 14ko 50/1977 Legera, zerga erreformarako premiazko neurriei buruzkora, egin behar dugu atzera. Lege hartako I. kapituluak arautzen zuen pertsona fisikoen ondarearen gaineko aparteko zerga. Hurrengo urtean, 1978an (urte horretan onartu zen, hain zuzen ere, indarrean dagoen konstituzioa), "Trailaren 8ko 44/1978 Legea" onartu zen, "Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena". Lege horrek 38 artikulua, 5 xedapen gehigarri, 4 xedapen iragankor eta amaierako 3 dauzka. Guztira, "zortzi folio eta erdi" lege. Lege horrek, hogeita zortzigarren artikuluko bigarren apartatuan, honakoa dio: "*Obligazio pertsonala duten subjektuentzat zerga honen kuota osoa, eskala aplikatuz ateratzen dena, ezin da izan zerga-oinarriaren ehuneko berrogei baino handiagoa, ezta, Ondare Garbiaren gaineko Zergari dagokion kuotarekin batera, zerga-oinarri horren berrogeita hamabostetik gorakoa ere...*"

Hainbat arau gorabeheraren ondotik (ez gara horietaz arituko), 1991n, araugintzako eskumenak itundu ostean, Gipuzkoan 14/1991 Foru Araua onartu zen, Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27koa; honek 31. artikuluan ("Kuota osoaren muga"), bere inguruko zerga baliokideen antzera, hurrena jasotzen zuen

"Bat. Zerga honen kuota osoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenarekin batera, betebeharrak pertsonalaren bitartez Zergaren pean dauden subjektu pasiboentzat ezin izango da azken honen oinarri zergagarri osoaren 100eko 70etik gorakoa izan.

Ondorio hauetarako:

...

b) *Bi kuoten batuketara aurreko muga gainditzen duen kasuetan, Ondarearen gaineko Zergaren kuota aipatu muga arte murriztu ahal izango da, 100eko 80ko murrizketa pasatzerik izango ez duelarik.*

Eskema hori, hainbat ñabarduraz izan arren PFEZ gero eta konplexuago egiten joan baita, 2012 arte mantendu da Gipuzkoan, muga hori 100eko 70etik 60ra jaitsita izan bada ere. Mantendu zen, halaber, murrizketa ezin zela OZren kuotaren % 80tik gorakoa izan. Beste modu batean esanda, eta nire iritziz oso garrantzitsua da hau, gutxienez OZren kuotaren 100eko 20 ordaindu behar zen, PFEZko zerga-oinarria zenbatekoa zen kontuan hartzeke. Erreferentzia izango dugu, halaber, gaur egun Bizkaian eta Araban indarrean dauden OZri buruzko foru arauetan mugaren diseinua mantendu egiten dela, nahiz OZren eta PFEZren kuota osoen baturak ezin duen PFEZko zerga-oinarriaren 100eko 65tik gora egin, eta (hau garrantzitsua da) murrizketak ezin duen OZren kuotaren 100eko 75 gaintitu (hau da, gutxienez 100eko 25 ordaindu beharko da).

Doktrina bat dator, esateko zerga bien baterako muga konfiskazioan erortzea saihesteko diseinatu zela, 1978ko Konstituzioak galarazita baitauka. Baina halako xedapen bat konfiskaziozkoa izan daitekeen zehazteko, aurrez argitu egin beharko dugu zer den konfiskazio kontzeptu hori. Horretarako, ezin dugu ahantzi ezen Auzitegi Konstituzionalak berak, 1990eko urriaren 4ko epai izugarri interesagarrian, Madrilgo Autonomia Erkidegoaren Biltzarrak onartutako errekargu jakin bat konfiskaziozkoa zen analizatzean, hurrena zioela: *"...alegazio honen azterketa baldintzatuta dago, hain zuzen ere zerga arloan ez-konfiskazio printzipioari eman behar zaion interpretazioarengatik; eta kontu hori urrun dago doktrinak argituta egotetik... Izan ere zerga arloan konfiskazioak ez dakar jabetza, ondare-eskubide edo errenten ordainik gabeko aginduzko gabetzerik (nahiz gabetze partziala izan), zeren eta gabetze edo ordainarazpen mota hori, oro har, zerga-ahalmena baliatzeari eta gastu publikoak mantentzeko betekizun korrelatiboari lotua baita... Auzitegi honek deklaratu du... ahalmen ekonomikoak, gastu publikoetarako ekarpena egitearen ondorioetarako, esan nahi duela eskakizun logiko bat eransten dela, eta horrek behartu egiten duela aberastasuna dagoen lekuan bilatzera. Horri erants dakioke orain ezen konfiskaziozkoa izatearen debekuak beste eskakizun logiko bat eranstea dakarrela, hain zuzen ere zergapean jar daitekeen aberastasun guztia ez agortzea ekarpena egin behar delako aitzakiaz, horixe baita ezarpen orenen substratu, oinarri edo exijentzia; horretatik, hain zuzen, ezarpenaren gehienezko muga konstituzionalki zifratua egotea, ezarpenaren konfiskazio izaeraren galarazpenean. Eta... galarazten dena ez denez konfiskazioa, baizik eta ezarpenak "konfiskazio irismena" izatea, begi-bistakoa da ezen zerga sistemak ondorio hori izango lukeela, indarrean dauden zerga figurak aplikaturik subjektu pasiboa bere errenta eta jabetzez gabetuko balitz; eta horrela eginez gero, gainera, urratzen ariko litzateke, zeharkako bide fiskalaz, Konstituzioaren 31.1 artikuluan aurreikusitako bermea... onartuz bide batez progresiboa, edo agian hobeto esanda, bidezkoa konfiskaziozko bihurtzen den muga irizpide teknikoki operatiboz finkatzearen zailtasuna, posible izango litzateke atzera botatzea..."*

Beraz, Auzitegi Konstituzionalaren planteamenduari jarraiki, kontua litzateke ikustea ea baterako mugarik ezean, eta indarrean dauden zerga figurak aplikaturik, subjektu pasiboari azkenean bere errenta eta jabetzak kentzen zaizkion. Edo, beste era batean esanda, progresibotasun eta justiziaren izenean konfiskaziozko bihurtzen den egoera bat eragiten den.

Hasteko, eta Auzitegi Konstituzionalak planteatutako baldintzetan, zail da defendatzen baterako mugarik eza konfiskaziozko bihurtzen denik, AFHZren batez besteko ezarpen-tasa sekula ez denean 100eko 1era iristen. Baina, gainera, Auzitegi Konstituzionalak berak 31.1 artikuluan bertan jasotako beste bi kontzeptu aipatzen ditu, eta horiek ere kontuan hartu behar dira printzipio konstituzionalekin bat datorren zerga sistema bat eduki nahi izanez gero.

Izan ere 31.1 artikulua, Konstituzioaren lehen tituluko bigarren kapituluko bigarren atalean kokatuak ("Herritarren eskubideak eta eginbeharrak"), honakoa xedatzen du: *"Guztiek gastu publikoei aurre egiten lagunduko dute, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidearen arabera; horretarako, zerga-sistema zuzena ezarriko da, berdintasun- eta progresibitate-printzipioetan oinarriturik; sistema hori ez da inoiz konfiskagarri izango"*. Beraz, eta ahantzi gabe zerga sistema konfiskagarri bat inkonstituzionala izango litzatekeela, funtsezkoa da halaber kontuan hartzea Konstituzioak eskatzen duela denek parte hartzea gastu publikoak mantentzeko; duten ahalmen ekonomikoaren arabera egitea; zerga sistema bidezkoa izatea; eta berdintasun eta progresibotasun printzipioetan oinarrituta egotea.

1978an asmatu zen baterako mugak abiapuntu zuen egoeran, OZ zein (eta batez ere) PFEZ gaur egun baino askoz zerga sinpleagoak ziren. Gaur egun PFEZren kasuistika eta konplexutasunak batere zerikusirik ez 1978ko zergarekin. Zeren eta une horietako errealitate sozial eta ekonomikoak oso-oso desberdinak baitira. Gaur egun diren produktu finantzario ugariak, maila ertaineko herritar ororentzat irisgarriak eta zeharo zerga tratamendu desberdinak dituztenak, ia-ia zientzia fikzioa ziren 70eko urteetan. Pentsa dezagun inbertsio fondoetan, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetan, pentsio planetan, aurrezki sistematikoko banakako planetan, mota guztietako aseguruetan... eta hori konplexutasun handiagoko beste hainbat produktu finantzario ez aipatzearen, ezen zoritxarrez oso oihartzun handia izan dute azkenaldi honetan sortu diren egoera ez desiratuengatik. Gertatu den eboluzioa, nire iritziz, kontuan hartu behar da gai honi heltzeko unean. Ezin dugu ondorioztatu konfiskaziozko izatea saihesteko aterabide bakarra orain ia-ia berrogei urte pentsatutako irtenbideak mimetikoki aplikatzea dela. Are gutxiago errealitateak eta egungo herritar ertainari aplikatu dakiokeen araudi finantzario eta fiskalak inolako zerikusirik ez dutenean duela berrogei urteko errealitatearekin eta araudi finantzario eta fiskalarekin.

Nire iritziz, AFHZk baterako mugarik ez edukitzeak zergak konfiskazio irismena izatea dakarrela diotenek ez dute kontuan hartzen hemen aipatu berri dudana. Jarrera hori mantentzen dutenek, bere jarreraren sostengu nagusi aipatzen dute (sinplifikatzen ari naiz) ezen pertsona batek AFHZrengatik bere urteko errenta baino handiagoko kopuru bat tributatu behar badu (urteko errenta kontzeptua PFEZko zerga-oinarriarekin identifikatzen dute) zergak konfiskazio irismena duela. Alabaina, tesi horrek bereziki garrantzitsuak diren ahulune batzuk dauzka:

- Lehenik, harrigarri gertatzen da kontu hau bakar-bakarrik Gipuzkoan aplikagarria den AFHZren aurrean planteatzea, OZren mugaren arazo kontzeptuala, beste lurralde batzuetan planteatuta dagoen moduan, berbera denean funtsezkoan, zeren eta aipatu azken zerga horretan gutxieneko tributazio bat exijitzen baita edonola ere, zergadunaren errenta (PFEZko zerga-oinarrizat ulertua) dena dela. Pentsa dezagun, esaterako, bere ondarearekin alderatuta oso errenta baxuak dauzkan pertsona bat (egoera hori, ez dezagun geure burua engaina, zergadunak berak bilatu ohi du, zerga gutxiago ordaintzen saiatzearren). Baterako muga izan arren ezinbestean ordaindu beharreko gutxieneko bat badagoenez (lehen OZren kuota osoaren 100eko 20, eta orain kasu batzuetan 100eko 25, lehen adierazi moduan), ordaindu beharreko gutxieneko horrek PFEZko zerga-oinarria gainditzen duen neurrian beti izango dugu, tesi horren arabera, konfiskazio balizko bat. Eta, hala eta guztiz, jarrera hori defendatzen dutenek ez dute ezer irregularrik ikusten (edo behintzat ez dute adierazten) OZ "tradizionalaren" baterako mugan. Are gehiago, zenbaitetan konfiskaziozkoa ez izatearen panazeatzat aldarrikatzen dute; eta hori, nire ikuspegitik behintzat, kontraesankorra da.

- Konfiskaziozkoa ez izatearen mugatzat jarriko balitz AFHZrengatik (edo OZrengatik, ondorio hauetarako gauza bera baita) PFEZko zerga-oinarria baino handiagoko kopururik ez ordaintzea, kontuan harturik gaur egun oso erraza dela PFEZren ondorioetarako errentarik sortzen ez duten produktuetan inbertitzea, benetan zergadunaren esku ariko ginateke uzten tributatzeko erabakia. Hau da, esate baterako inbertsio fondo batean inbertitzen bada (horren balio handitzeak ondare irabazitzat tributatzen du saltzen den unean), PFEZren ordainketaren geroratze bat lortuko litzateke, eta gainera ez litzateke AFHZrengatik tributatuko. Hau da, ez litzateke ordainduko ez PFEZn ez AFHZn. "Zergadunaren gusturako" tributazioa aipa genezake orduan.

- Aurreko puntuaren jarraipen gisa, esan genezake ezen, agian, baterako mugak balioko zuela PFEZren araudiak tributazioaren geroratzea eragin zezaketen produktu askotarikoak aurreikusten ez zituen une batean. Hau da, funtsean etekin guztiak, ez etekin batzuk bai eta beste batzuk ez, PFEZren zerga-oinarrian sartzen ziren egoera batean ari zen pentsatzen.

- "Konfiskaziozkoa ez izatearen" ideiaaren helburua da zergadunari bere errenta eta jabetzak kentzea saihestea, ez kontzeptu hori zerga plangintzarako baliabidetzat erabiltzea. Izan ere, errealitate finantzario-fiskalaren egungo egoeran, duela 40 urte balio zezaketen kontzeptuek eguneratze bat behintzat behar dute. Gerta daiteke pertsona batek izugarri irabazi handiak lortzea inbertsio fondoetan, aseguruetan edo beste produktu askotan, eta horiengatik zergapetuta ez egotea geroagoko une bat arte; edo agian inoiz ez, ezta zergadunak urteetan zehar sortutako "errentengatik" ere, bere inbertsioak "gauzatu" (ongi ulertzeko, saldu) aurretik hiltzen bada. Alabaina, horrek ez du esan nahi orain esku artean daukagun kontua analizatzera begira ez denik ari ikuspegi ekonomiko batetik errentarik lortzen.

- Doktrinak hiru tributazio iturri desberdin aipatzen ditu funtsean: errenta (irabazten duguna), jabetza (daukaguna) eta kontsumoa (gastatzen duguna). Baterako muga muturrera eramanda, eta indarrean dagoen zerga araudia erantsita, erraz samarra izango litzateke ez tributatzea, ez irabazten dugunagatik ezta daukagunagatik ere. Eta zenbait eta gehiago eduki (eta seguruenik zenbat eta gehiago irabazi), errazago. Hau da, baliabide ekonomiko gehien dituzten pertsonak izugarri erraz saihestu ahal izango lukete tributazioa.

- Aurrekoaren ondorioz, oso zalantzan geratuko lirateke ahalmen ekonomiko, justizia, berdintasun eta progresibotasun printzipioak, guzti-guztiak Konstituzioaren 31.1 artikuluan aurreikusiak. Eta artikulua horixe da, hain justu, zerga-sistema konfiskaziozkoa ez izatea aurreikusten duena.

Ikus ditzagun adibide batzuk, kasuistika amaierarik ez badu ere. Kasu bakoitzean tributazioa oso desberdina izan daiteke, kenkarien eta hobarien arabera. Horregatik, eta kontuan harturik adibide hauekin bakar-bakarrik erakutsi egin nahi dugula tributazioa desberdina dela zergadunak hartzen dituen erabakien arabera, bakar-bakarrik kuota osoaren kontzepturaino iritsiko gara alderaketak egin ahal izatearren.

Hiru pertsona desberdin hartuko ditugu kontuan. Hirurak dira 15.000.000 euroko aberastasun baten titular. Alabaina, "A" andreak, goi mailako exekutiboa bera, soldata bat jasotzen du, eta horrek 300.000 euroko likidazio-oinarri orokor (LOO) bat sortzen dio. Gainera, bere aberastasuna gestionatzen duen moduagatik, 100eko 4ko errentagarritasuna ateratzen dio, eta horrek (gauzak simple esatearren) 600.000 euroko aurrezkiaren likidazio-oinarri (ALO) bat sortzen dio. "B" jaunak ez du inoren kontura lan egiten eta ez du jarduera ekonomikorik, baina bere ondarearen gestioari 100eko 4koa ateratzen dio halaber (hau da, 600.000 euroko ALO bat). Azkenean, hirugarren pertsonak, "C" andreak, ez du inoren kontura lan egiten eta ez du jarduera ekonomikorik zertzen, eta bere ondarea gestionatzen du eta antzeko (edo handiagoko) errentagarritasuna ateratzen dio, baina PFEZn errentarik sortzen ez duten produktu finantzarioen bidez (inbertsio fondoak, aseguru jakin batzuk, etab.).

Ikus ditzagun hiru kasu hauetako zerga ondorioak:

1.- "A" andreak PFEZn tributatuko luke, parte bat likidazio-oinarri orokor gisa eta beste parte bat aurrezkiaren likidazio-oinarri gisa. Bere LOOrengatik (300.000 euro) 132.638 euroko kuota osoa izango luke. Eta bere ALOrengatik 149.125 euro. Guztira, PFEZren kuota osoa 281.763 eurokoa izango luke.

Gainera, "A" andreak AFHZn tributatuko luke 14.300.000 euroko likidazio-oinarri batez (15.000.000 euro ken 700.000 euro, hau baita minimo salbuetsi kontzeptuagatik murrizpena). Likidazio-oinarri horri 130.500 euroko kuota osoa dagokio AFHZn. Horrenbestez, zerga bi horien baturak 412.263 euro egingo litzuke, kuota osoak batuta alegia.

2.- "B" jaunak 149.125 euroko kuota osoa izango luke PFEZn (bakarrik ALO dauka). Eta AFHZn, 130.500 eurokoa. Horrenbestez, kuota oso biak batuta 279.625 euro izango liriteke.

3.- "C" andreak ez luke ezer tributatuko PFEZn desinbertsiora jo bitartean (edo inoiz ez, "C" andrea desinbertsioa gauzatu aurretik hiltzen bada) eta 130.500 euro ordainduko lituzke AFHZn.

Adibide hauek ikusita, galdera batzuk datozkit burura: konfiskaziozkoa al da "C" andrearen tributazioa, bere inbertsioek "errentarik" sortu ez dutelako PFEZren ondorioetarako, zertzelada guztiak kontuan hartuz gero? Konfiskaziozkoa izatearen muga ezartzea marra bat marraztea bezain erraza balitz, marra hori gaindituz gero argi eta garbi konfiskazioa aipatu ahal izateko moduan alegia, hiru horietatik zein legoke marratik hurbilago? "C" andrea? "B" jauna? "A" andrea agian? Edo, beste adibide bat jartzearen, familiaburu bat, soldata batetik datorren 25.000 euroko likidazio-oinarri batez eta eskatu duen mailegu batengatik aberastasun "negatiboa" duela, PFEZn 6.230 euroko kuota osoari erantzun behar dionean? Azken kuota oso honi, kasuen arabera, zergadunak dagozkion kenkariak egin ahal izango dizkio (seme-alabaren bat baldin bada, etxea ordaintzen ari baldin bada, etab.). Baina, edonola ere, uste dut adibideek balio dezaketela alderaketak egiteko. Goian proposatutako galderei, irakurleak bere irizpideen arabera erantzun ahal izango die.

Planteatutako balizkoarekin jarraituz, bada, baterako muga baten aplikazioaz benetan onura aterako lukeena "C" andrea izango litzateke, zeren eta "A" andreari eta "B" jaunari baterako muga horrek ez balieke eragingo. Izan ere, "C" andreak "B" jaunak ordainduko lukeenaren erdia baino gutxiago ordainduko luke, ondare egoera eta etekin berdinez (zerga ondorioak alde batera utzita), eta "A" andreak ordainduko lukeenaren herena baino gutxiago. Eta "C" andreak aukera izango balu baterako muga bat aplikatzeko, eta horren indarrez bakar-bakarrik AFHZren % 20 tributatu beharko balu (ez dezagun ahantzi adibidean zerga hori bakarrik ari dela ordaintzen), 27.100 euro ordainduko lituzke. Beste era batean esanda, ez luke "A" andreak ordainduko lukeenaren herena baino gutxiago ordainduko, baizik eta "A" andreak ordainduko lukeenaren hamabosten bat. Egia da "A" andreak oso soldata handia duela eta "C" andreak ez, baina hamabosten bat izateak (100eko 6,56) gehiegizko aldea ematen du tributazioan, ekonomikoki hain urruti ez dauden bi egoera horientzat. Eta nire iritziz are larriagoa da "B" jaunaren tributazioaren erdiaren pare egotetik "B" jaunaren tributazioaren bosten batera igaroko litzatekeela, ondare eta errentagarritasun ekonomiko egoera berdinetan daudenean.

Gauzak horrela, eta adibideak aztertu ondoren, berriro heldu behar diogu lehen aipatu dudan Konstituzioaren 31. artikuluari. Gerta baitaiteke konfiskaziozkoa ez izatearen printzipioaren defentsa literal eta, agian, zaharkitu batek pikutara bidaltzea 31. artikuluan jasotako printzipioak, ez baitira, inolaz ere, hura baino garrantzi txikiagokoak. Artikulu horrek aipatzen duenez, guztiek gastu publikoei aurre egiten lagunduko dute, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidearen arabera; horretarako, zerga-sistema zuzena ezarriko da, berdintasun- eta progresibitate-printzipioetan oinarriturik.

Begi-bistakoa da konfiskaziozkoa ez izatearen printzipio konstituzionalaren garrantzia egundakoa dela. Hori ez dago zalantzan. Zalantzan dagoena, nire iritziz, zera da, baterako mugarik gabeko AFHZren diseinua, hain zuzen ere baterako muga hori ez duelako eta bakarrik horregatik, ezinbestean konfiskaziozkoa ote den. Aitzitik, ez dezagun bistatik galdu sektore batzuek bultzatzen duten baterako mugaren analisia, gure inguruko ondarearen gaineko zergetan erabiltzen den ereduaren antzeko batean oinarritua, ezen, analisi hori ez ote da laguntzen ari zerga-sistema berdintasun eta progresibotasun gutxiagokoa izan dadin?; ez ote da ahalbidetzen ari denek ez dezaten tributatu, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidearen arabera ez dezan tributatu eta, horren guztiaren eraginez, ez ote da ari zerga-sistema zuzentasun gutxiagokoa izatea eragiten?

Bestetik, kasuistikak ez du mugarik, lehen aipatu dudan moduan. Ondare handiko adibideak planteatu ditut. Baina kontuan harturik, lehenago aipatu dugun moduan, AFHZn zerga-tasak nabarmen murriztu direla OZrekin alderatuta, zaila da askoz ondare txikiagoko balizkoetan pentsatzea, analisi lasai eta objektibo batetik AFHZn konfiskaziozkotzat har daitezkeen egoerak sortzeari dagokionez. Jo dezagun, esaterako, 2.000.000 euroko ondare batek 5.250 euroko kuota oso bat sortzen duela; ez dirudi konfiskaziozkotzat har daitekeenik, "daukagun" kopuru hori "ordaintzen denarekin" alderatuz gero.

Azkenik, adibide batzuk jasotzen dituen taula bat sartuko dut. Horretan, lehen azaldutako adibidearen ildotik, hiru balizko desberdin alderatzen dira, kontuan hartuta AFHZren araudi aplikagarria eta 2012an aplikagarria zen lehengo OZrena. Hau da, kasu bakoitzean zergadunak gaur egun AFHZn tributatuko lukeena 2012an indarrean zegoen OZk gaur egun indarrean segituz gero tributatuko zuenarekin alderatzen da. "A" kasuan, zergadunak errenta altuak sortzen ditu eta, beraz, ezin izango zuen aplikatu 2012ko OZko baterako muga. "B" eta "C" kasuetan, jotzen da ondarearen osaketaren 100eko 50 higiezinak dagokiela, eta 100eko 50 altxortegiari. Zehazki, "B" kasuan jotzen da higiezinak 100eko 2ko etekin garbia sortu dutela urtean, eta altxortegiak PFEZn tributatu behar duen 100eko 4ko errentagarritasuna. "C" kasuan, bere aldetik, abiapuntuko hipotesiaren arabera higiezinak hutsik daude, eta altxortegia PFEZren ondorioetarako errentarik sortzen ez duten produktuetan inbertitu da (esate baterako inbertsio fondoetan). Ikus dezagun:

Aberastasuna (mila euro)	AFHZ ordaintzekoa eurotan	2012ko OZ kuota osoa eurotan	2012ko OZ ordaintzekoa eurotan
2.000 A	5.250	7.500	7.500
2.000 B	5.250	7.500	7.500
2.000 C	5.250	7.500	1.500
5.000 A	30.500	49.700	49.700
5.000 B	30.500	49.700	49.700
5.000 C	30.500	49.700	9.940
10.000 A	80.500	146.300	146.300
10.000 B	80.500	146.300	105.875
10.000 C	80.500	146.300	29.260
25.000 A	230.500	507.300	507.300
25.000 B	230.500	507.300	263.375
25.000 C	230.500	507.300	101.460

Aurreko taulak AFHZri dagokion zutabe bat jasotzen du, zehazki ordaindu beharreko zenbatekoarena. Bakarrik zutabe bat ageri da, AFHZn ez baitago PFEZrekiko baterako mugarik, lehenago azaldu dugun moduan. Alabaina, OZri dagozkion bi zutabe ageri dira, kuota osoari dagokiona bata eta ordaindu beharreko kopuruarena bestea. Batzuetan zutabe bietako zenbatekoa bat dator (baterako muga ezin zenean aplikatu), baina beste batzuetan ez.

Kasu guztietan, AFHZrengatik ordaindu beharreko zenbatekoa OZren kuota osoa baino txikiagoa da. Dena den, baterako mugaren eraginez kasu batzuetan OZrengatik ordaindu beharreko zenbatekoa txikiagoa zen AFHZri dagokiona baino. Ikusten da ezen, adierazi den moduan, "A" kasuak sekula ezingo lukeela baterako muga aplikatu, PFEZren zerga-oinarrian konputatzeko errenta altuak edukitzeagatik; beraz, 2012ko OZko zutabe biak bat datoz beti. "B" kasuan batzuetan, eta askoz gehiagotan "C" kasuan, kuota osoa ez dator bat ordaindu beharreko zenbatekoarekin. Eta aldea atal honetan aipatu dudan baterako mugaren aplikazioaren emaitza da. Ikus dezakegu kasu batzuetan aldeak oso handiak direla. Baita aberastasun zenbateko berberaz ere "B" eta "C" balizkoetan. Horrek, nire iritziz, zerga justizia horizontala urratzea dakar, eta urratze hori ezin da justifikatu sistemaren ustezko konfiskazio irismen bat saihesteko ideiaz.

Hain alde handiei gehitzen badizkiegu etekin batzuek tributatzen dutelako eta beste batzuek tributatzen ez dutelako PFEZn sortzen diren aldeak, zerga tratuko aldeak are handiagoak gertatzen dira. Are gehiago, ez dezagun ahantzi PFEZren sistema dualak bi tarifa desberdin aurreikusten dituela etekinentzat, zein errenta iturriri dagozkion; horrekin ere aldeak gero eta handiagoak dira. Azken gai hau ez da lan honen xedea. Baina beharbada aipatzen ari naizen tributazio aldeek balio diezagukete, ikus dezagun nolako tarte zabala dagoen arau aldaketak planteatzeko, progresibotasunaren esparruan, zergadun bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera tributazioarenean eta, azken batean, zerga arloko ekitate eta justiziarenean aurrera egiteko.

Beraz, eta konklusio gisa, nire ikuspegitik ez dirudi PFEZren eta AFHZren baterako mugarik ez egote horrek berez eragiten duenik zerga sistemak konfiskazio irismena izatea. Aitzitik, gerta liteke baterako muga horrek, egongo balitz, atzerakada bat eragitea berdintasun eta progresibotasun printzipioetan, zergadunaren ahalmen ekonomikoaren arabera tributazioari dagokionean bezalaxe. Eta horrek guztiak zerga egoera bidegabeak ekar litzake. Ikuspegi honetatik, komeniko litzateke, agian, beharrezko zerga aldaketetan aurrera egitea, ez bakarrik aberastasunaren gaineko tributazioari dagokionez, baizik eta baita PFEZri dagokionez ere, egoera parekagarrien kasuan zergadunen tributazioa ere parekoa izatea lortzearren.

Aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga berriaren bilketaren analisia (Gipuzkoa 2013)

Sebas Zurutuza

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko
Erakundeekiko Konpromisoen eta Udalenzako Laguntzaren Zerbitzuko
burua

1. Aurkezpena
2. Testuinguru ekonomiko eta soziala
3. AFHZren HELBURUAK

1. Aurkezpena

Lan honen helburua Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga (AFHZ) berriaz lortutako emaitzak aztertzea eta baloratzea da. Horretarako, zerga berriaren diseinu eta definizioaz iritsi nahi diren helburuetatik abiatu behar dugu. Era berean, diseinu hori zerga sistema batean txertatzen da, honen osagaiak zerga multzo bat eta kudeaketa-praktika jakin batzuk dira, eta horien bidez, modu koordinatu eta osagarri batez, helburu komun batzuk lortzeko ahalegina egiten da. AFHZ erregulatzen duen foru arauko zioen azalpenean bertan adierazten denera jotzen badugu, helburuok genituzke, laburbildurik, zerga sistema ekitatezkoago eta progresiboagoa lortzea, behar bestekoa gainera politika publikoak finantzatzeko. Zerga berriak lortzen lagundu nahi duen helburu orokorra aipatu hori delarik -eta aberastasuna kargatzen duen figura orok berekin dauzkan muga guztiez jardungo du horretan-, AFHZren helburu zehatzen definizioa testuinguru ekonomiko eta sozial jakin batean gertatu da, eta horrek azaltzen edo justifikatzen ditu zergaren irismena eta edukia.

Horregatik guztiagatik, hurrengo atalean lan honek azertu egiten ditu zergari buruzko eztabaida eta definizioa zertu den testuinguruaren ezaugarriak. Horretarako, zerga-presioaren bilakaera konparatua, Atzeraldi Handiaren hasieraz geroztik Gipuzkoan zerga itunduen bilketak izan duen bilakaera, eta errentaren banaketan desberdintasunak izan duen bilakaera aztertzen dira.


Hirugarren atalean foru arauak AFHZri esleitzen dizkion helburuak jasotzen dira, eta laugarren atalean zerga berriari dagokionez 2013ko ekitaldirako aitortutako emaitzen analisia abiatzen da. Zehazki, analisi horretan datu aitortu orokorren aurkezpen bat eta 2012ko ekitaldian Ondarearen gaineko Zergan (OZ) deklaratuetikiko alderaketa bat egiten dira, genero ikuspegitiko eta kolektibo jakin batzuen gainean izan duen eraginaren analisi batekin batera. Gainera, 2012ko ekitaldian Ondare Zergaren aitorpenean "babes fiskal" deitua aplikatu zuten aitortzaileen kolektiboa aztertzen da. Amaitzeko, atzeneko atalean analisi labur bat eskaintzen da, egindako analisitik ondorioztatzen diren konklusio nagusietako batzuez.

2. Testuinguru ekonomiko eta soziala

2.1. Presio fiskal baxua Europar Batasuneko 2000-2012 bitarteko batez bestekoarekin alderatuta¹

Presio fiskalak hainbat lurralde esparrutan izan duen bilakaera azterturik, ikusten da ezen Gipuzkoan, oro har Euskal Autonomia Erkidegoan eta espainiar estatuan bezalaxe, presio fiskalaren maila EB27koaren batez bestetik nabarmen beherago dagoela. Zehazki, 2000-2012 epean zehar Gipuzkoako Lurralde Historikoan presio fiskala % 34,18koa izan zen, eta EB27an % 40,25koa, hau da, kontuan hartutako epean zehar batez besteko aldea 5,07 puntukoa izan zen. Alabaina, alde hori nabarmen hazi da Atzeraldi Handiaren hasieraz geroztik: 5,27 puntuko aldea bazen 2000-2007 epean zehar, 7,38 puntukora igaro da 2008-2012 epean.


1. grafikoa – Presio fiskalaren bilakaera (epeko batez bestekoa, BPGarekiko ehunekotan)



¹ Autoreak prestatuta, datu ofizialetatik abiatuta

Erreferentzia Gipuzkoako datuak harturik, ikusten da presio fiskala egonkor mantendu zela, % 35 inguruan, 2007 arte, eta 2008 eta 2009ko urteetan jaitsiera nabarmena izan zela, ezen presio fiskala ia-ia lau puntu jaitsi zen, 2007ko % 35,90etik 2009ko % 31,92ra. 2010eko urtean 1,73 puntuko errekupeazioa izan zen, eta 2011 eta 2012ko urteetan egonkor mantendu da.

2. grafikoa – Presio fiskala Gipuzkoan BPGarekiko ehunekoetan



Alde horren parte handiena euskal erakundeek araugintzako eta kudeaketako eskumenak dauzkaten presio fiskalaren osagaietan gertatzen da (zerga itunduetan eta zerga lokaletan), zeren eta Gizarte Segurantzako kotizazioei dagokien presio fiskalaren maila, europar batez bestekotik behera egon arren, hartatik hurbil baitago. Beraz, aldea, batez ere presio fiskala osatzen duten beste kontzeptuetan biltzen da, hau da, zerga itunduen (PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga, BEZ, zerga bereziak...) bilketan eta zerga lokalen (OHZ, JEZ, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, tasa lokalak...) bilketan. Horregatik, helburu orokor planteatzen bada politika publikoak finantzatzeko behar adina sarrera bermatzea, eta helburu hori definitzeko erreferentzia Europar Batasuna baldin bada, bistan da presio fiskalaren mailako aldeak murriztu beharra dagoela; beraz, krisi ekonomikoa hasi aurretiko posizio erlatiboa berreskuratzea urte batzuetan zehar lortzeko helburu izatea komeni, itxura.

2.2. Zerga itunduetako bilketaren bilakaera Gipuzkoan 2007-2013²

Alde batetik behin egiaztatu ondoren presio fiskal baxua, konparazio terminoetan, lurralde historikoetako erakunde eskumendunek, hau da, batzar nagusiek eta foru aldundiek bere eskumenez kudeatu eta arautu behar dituzten zerga itunduetan biltzen dela, eta bestetik ikusirik alde hori nabarmen areagotu dela krisi ekonomikoaren osteko epean zehar, aztertu egin behar da, interesgarria baita, zerga horiengatik bilketak krisi ekonomikoaren ondotiko epean zehar izandako bilakaera.

2007-2013 epean zehar zerga itunduengatik bilketa % 14,5 murriztu da (hau da, 633 milioiko murrizpena izan da); aldiz, BPGa % 3,1 besterik ez da murriztu, eta horrexetatik dator presio fiskalaren ratioaren jaitsiera. Zerga kontzeptu garrantzitsuenen bilakaera aztertzen badugu, ondoko gertakariak nabarmentzen dira: a) Sozietateen gaineko Zergan jaitsiera handia, % 53,3 egin baitu behera, 296 milioi euroko jaitsiera batez zehazki (honexek azaltzen du zerga-bilketak izandako jaitsiera osoaren % 46,7); b) Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergagatik bilketak barrena jo du, % 75,6 jaitsi baita (127 milioi) (honek azaltzen du zerga-bilketaren jaitsiera osoaren % 20); c) PFEZrengatik bilketa mantendu egin da (% 0,4ko murrizketa, hau da, 6 milioi euro besterik ez); eta BEZari dagokionez batez bestekoaren azpitxetik jaitsiera gertatu da, zergako tasetan igoera izan bada ere (bilketak % 11,4 egin du behera, hau da, 182 milioi gutxiago izan dira, eta honek jaitsiera osoaren % 28,7 egiten du).

1. taula - Zerga itunduen bilakaera Gipuzkoan 2007-2013

Zerga	2007	2013	Aldea	
			Absolutua	%
PFEZ	1.408	1.402	-6	-0,4
SOZIJETATE ZERGA	556	260	-296	-53,3
BEZ	1.594	1.413	-182	-11,4
OE ETA EJD	168	41	-127	-75,6
BESTEAK	642	619	-23	-3,5
GUZTIRA	4.368	3.734	-633	-14,5
BPG mp	21.777	21.103	-674	-3,1


zenbatekoak milioi eurotan

Beraz, oso portaera desberdina ikusten da zerga zuzen nagusi bien artean: Sozietateen gaineko Zergak jaitsiera handia izan du (% 50etik gora) eta PFEZ mantendu egin da (-% 0,4). Alde hori kontrastatzen badugu zerga horien bilketa loturik dagoen aldagai makroekonomikoen bilakaerarekin, are deigarriagoa egingo zaigu portaera desberdin hori. Hala, ikusten da PFEZren osagai nagusiak, laneko atxikipenek alegia, soldatek eta lansariek izan dutenaren pareko bilakaera izan duela. Zehazki, soldatek eta lansariek

² Autoreak prestatuta, datu ofizialetatik abiatuta


% 32,4ko igoera izan dute 2004 eta 2011 bitartean, eta laneko atxikipenengatiko bilketak % 37,8 egin du gora; aldiz, enpresen ustiapen soberakin garbiak % 26,9 egin du gora epe horretan bertan zehar, eta Sozietateen gaineko Zerga % 54,4 jaitsi da.

3. grafikoa – Zerga-bilketaren eta lotutako aldagai makroekonomikoaren bilakaera metatua (%)



Gainera, PFEZren zerga-oinarriaren osagai nagusiak aztertzen baditugu laneko etekin, kapital etekin eta jarduera ekonomikoaren etekin gisa bilduz, ikusten da osagaietako lehenaren pisuak, hau da, laneko etekinenak, gorantz egin duela 2007 eta 2012 bitartean, zeren eta lehen urtean zerga-oinarri osoaren % 77,8 zirela etekin horiek, 2012an % 83,5 izatera igaro baitziren. Aitzitik, kapital etekinek eta jarduera ekonomikoaren etekinek pisua galdu dute zerga-oinarriaren guztizkoan, ezen lehenak 2007an % 14,7 izatetik 2012an % 10,9 izaera igaro dira, eta bigarrenak, urte horietan halaber, % 7,5etik % 5,6 izatera.

4. grafikoa – Gipuzkoan PFEZren zerga-oinarriaren osagai nagusiek 2007/2012 epean izan duten bilakaera (%)



Aurrekotik ondorioztatzen denez, zerga itunduengatiko bilketaren barnean kapital tributazioari eta higiezin burbuilari lotutako zerga-bilketak barrena jo du; horrexek azalduko lituzke guztirako zerga-bilketan izandako jaitsieraren bi heren. Aitzitik, lanari eta kontsumoari lotutako zerga-bilketak pisua irabazi du, nabarmen gainera.

2.3. Desberdintasunaren hazkundera errentaren eta aberastasunaren banaketan

Bestetik, azken urteotan zabaldu egin da errentaren eta aberastasunaren banaketako desberdintasuna areagotzeari eta horrek gizarte kohesioan eta hazkunde ekonomiko iraunkorrean dituen ondorio kaltegarri buruzko eztabaida. Ildo honetatik, gai hau aztertu duten hainbat erakundek (ELGA, NDF...) eta mundu akademikoak (Piketty...) prestatutako txosten eta azterketa zenbait argitaratu dira. Azterketa horietan ikusten denez, joan zen mendeko 80ko urteez geroztik igo egin dira, orokorrean, errenta eta aberastasunaren arloko desberdintasunak: gutxi batzuen aberastasuna neurrigabe hazi da, eta aberastasun horren portzentaje oso handi bat biztanleria aberatsenaren % 1en esku gelditu da.

Ildo honetatik, Eusko Jaurlaritzak egindako azterlan baten arabera³ Euskadin errentaren banaketa Europar Batasuneko herrialdeetakoaren mailan dago, banaketa berdintasunezkoago batez alegia. Zehazki, Gini indizea, 2011n, % 25,3koa zen Euskadin, Suedia (% 24,4), Finlandia (% 25,8) eta Herbeheretakoaren (% 25,8) antzera, EB15eko batez bestekoaren nabarmen azpitik (% 30,8) eta espainiar estatukotik oso-oso behera (% 34,0). Sarrera handienak dauzkan biztanleriaren % 20ren sarrerak alderatzen baditugu sarrera txikiak dauzkan biztanleriaren % 20ren sarrerekin (muturreko kintilen arteko koizientea: S80 / S20), ratioa Euskadin, 2011n, 3,7koa da, lehen aipatutako herrialdeetakoaren antzekoa, eta EB15eko (5,1) eta espainiar estatuko (6,8) batez bestekoaren oso azpitik dago.

2. taula – Desberdintasun adierazleen arteko konparazioa

Gini indizea - 2011		S80 / S20 - 2011	
Suedia	24,4	Suedia	3,6
Euskadi	25,3	Euskadi	3,7
Finlandia	25,8	Finlandia	3,7
Herbehereak	25,8	Herbehereak	3,8
EB - 15	30,8	EB - 15	5,1
Espainia	34,0	Espainia	6,8

³ "La desigualdad en la distribución de la renta en Euskadi (1986 – 2012)" Ikerketak – Ekonomia / Eusko Jaurlaritza. 2013ko azaroa

Beraz, datu hauek eskuan ondorioztatzen da errentaren banaketa berdintasunezko hori etorkizunean babestu beharreko balio bat dela. Alabaina, errenten banaketaren bilakaera aztertzen badugu, banaketa berdintasunezko horren hondatze bat ikusten da orduan. Konklusio horretara iristeko, aztertu egin dira atxikipenen urteko laburpena jasotzeko 190 aitopen-ereduan 2003-2013 epean zehar Gipuzkoan aitortu diren soldatak eta lansariak, eta ikusten da ezen krisi ekonomikoaren aurretiko epean, hau da, 2003 eta 2008 bitarteko urteetan ez zela aldaketa adierazgarririk izan errenta horien tarte desberdinetako soldata eta lansarien pisuan. Alabaina, desberdintasunaren areagotze bat ikusten da 2008-2013 epean zehar, beheko deziletako (D1etik D6ra bitartekoetako) soldata eta lansarien jaitsiera esanguratsuz eta goiko dezileetako (D7tik D10era) igoerez.

3. taula – Soldaten bilakaera Gipuzkoan, dezilen arabera

	Guztirako soldaten gaineko %			Soldaten aldaketa (%)		
	2003	2008	2013	2003/2008	2008/2013	2003/2013
D1	0,7	0,7	0,5	-1,2	-20,7	-21,7
D2	2,6	2,7	2,3	0,2	-13,0	-12,8
D3	4,8	4,9	4,4	0,8	-9,6	-8,8
D4	6,8	6,8	6,5	0,2	-5,4	-5,2
D5	8,5	8,4	8,2	-0,6	-2,4	-3,0
D6	10,0	9,9	9,8	-0,7	-0,6	-1,3
D7	11,6	11,6	11,7	-0,4	1,4	1,0
D8	13,5	13,5	13,9	0,1	2,7	2,8
D9	16,0	16,1	16,6	0,3	3,4	3,7
D10	25,5	25,5	26,0	0,2	2,0	2,2

2.4. Laburpena

Horregatik guztiagatik, AFHZ prestatzen eta diseinatzen den testuinguruan hainbat ezaugarri bereiz daitezke, honakoak: a) presio fiskala, Gipuzkoan, europar batez bestekotik nabarmen behera dago eta, horrenbestez, badago presio hori areagotzeko tarterik; b) Atzeraldi Handiaz geroztik presio fiskalaren mailaren hondatzea kapital tributazioari lotutako zerga-bilketan bildu da nagusiki, laneko errentei eta kontsumoari lotuek, aldiz, nabarmen areagotu dute bere garrantzi erlatiboa; c) horrekin batera, eta errentaren banaketa, Euskadin, Europa iparraldeko herrialdeetakoaren ildotik doan arren, desberdintasunaren areagotze txiki bat gertatu da krisialdiaren hasieraz geroztik.

Testuinguru honetan planteatzen da zerga berriaren definizioa, ezen hasiera batean zuzendu egin nahi ditu lehen aipatutako gabeziak, beste zerga batzuetan har daitezkeen beste neurri osagarri batzuekin koordinaturik. Ildo honetatik, aipatzekoa da aberastasunaren gaineko zerga batek zerga sistema batean bereganatzen duen eginkizun osagarria, zehazki pertsona fisiko eta juridikoen errentak kargatzen dituzten beste zergekin batera.

Bestetik, merezi du aipatzea zerga berriaren diseinua ongi egokitzen zaiola esparru ezberdinetan proposatutako zerga-erreformarako lerro desberdinetan beti agertzen den proposamen orokorretako bati: presio fiskal teorikoa behar bestekoa dateke, horregatik zerga-oinarri kargatuak zabalagotu eta kenkari eta hobari gehienak kendu behar dira, zerga-iruzurraren kontrako borroka sendotzeaz gain inolaz ere. AFHZ berriko inpaktu handieneko neurriak, hala nola "babes fiskala" eta jarduera ekonomikoei atxikitako elementuen eta famili enpresetako partaidetzen salbuespena kentzea, ongi egokitzen dira erreforma joera honetan.

Horrekin batera, badira zergaren definizioa eta, batez ere, zergaren beraren inguruko eztabaida baldintzatu duten beste elementu edo faktore batzuk. Alde batetik, mundu globalizatu eta jarduerak eta errentak kokatzeko mugikortasun handiko batean, deslotalizazioa faktore bat da, eta hartu beharreko neurrien bidezkoitasun handiago edo txikiagotik haratago, baloratu eta kontrolatu egin behar da halaber. Bestetik, enpresa-ekimena sustatzeak duen garrantzia harturik abiapuntu, zalantzak planteatzen dira, kontuan harturik bateragarri egin behar direla aberastasuna edukitzea bere adierazpen ezberdinetan kargatzen duen zerga baten tributazio bidezkoa eta tributazio bidezko horrek, aldi berean, enpresa-jarduerari pizgarria ez kentzea. Ildo honetatik, zerga berriak oreka lortu nahi du, famili enpresei atxikitako partaidetzak eta jarduera ekonomikoei atxikitako ondasunak kargatuz, baina kuotan % 75eko hobari bat aplikatuz.

3. AFHZren helburuak

Testuingurua eta AFHZren definizioa baldintzatu duten faktore nagusiak aztertu ondoren, zerga horren bidez lortu nahi diren helburuak ezagutzea komeni da. Hala, foru arauaren hitzaurreak zergaren helburutzat jasotzen dituenak honakoak dira:

- Eduki ekonomikoa duten ondasun eta eskubideen efizientzia hobetzea, haiek erabili gabe egotea edo espekulaziozko erabilera izatea saihestuta.
- Zentsu eta kontrol helburua.
- Zerga sistema progresiboagoa izatea, eta politika publikoak finantzatzea ahalbidetzea.

Lehen helburua argi eta garbi lotzen zaio "babes fiskala" kentzeari. Horregatik, konklusioen aurretiko apartatuan horretara jotzen zuten zergadunen ezaugarriak aztertuko dira; horrek aukera emango digu neurriaren eta horri lotutako helburuaren interesa eta koherentziaren zenbaterainokoa ezagutzeko.

Helburretako bigarrena zergaren helburu klasiko bat da, eta zerga sistema osatzen duten figuren artean bilatu behar den osagarritasunarekin dago lotuta.

Hirugarrena argi eta garbi lotzen zaie apartatu honetan deskribatu den testuinguru ekonomiko eta sozialaren ezaugarriari. Ildo honetatik, AFHZren helburua sistemari zerga-bitarteko gehiago ematea da, ahalmen ekonomiko handia duen kolektibo bati karga bat aplikatzeko -kolektibo horren errenta motak, krisi ekonomikoaren urteetan, pisua galdu du tributazioan- eta zerga karga modu ekitatibo eta progresiboago batez banatzeko.

4. AFHZren zerga-bilketaren analisia⁴

Lehenik, datu aitortuen ikuspegi global bat emango dugu eta, bigarrenik, 2012ko urtean ondarearen gaineko aurreko zergarekin aitortuekin alderatuko ditugu. Hurrena AFHZren analisi bat egingo dugu genero ikuspegitik, eta kolektibo jakin batzuetan izan duen eraginaren gaineko errepaso bat halaber.

4.1. Aberastasunaren osaketa eta tarte eta ondasun moten araberako banaketa, portzentajeetan

Ateratako emaitzek hobetu egin dituzte egindako aurreikuspenak, bai aurkeztutako aitorten kopuruari bai ordaindutako zenbatekoari dagokienez. Zehazki, 7.818 aitorten aurkeztu dira eta ordaindutako kopurua 57,0 milioi eurokoa izan da; batez beste ordaindua, beraz, 7.398 euro izan dira.

Aitortutako aberastasun garbia, guztira, 17.078 milioikoa izan da, eta aberastasunaren batez bestekoa, berriz, 2,18 milioikoa. Aberastasunaren egitura honela banatzen da: "hobaririk gabeko aktibo finantzarioak eta jarduera ekonomikoak" (% 40,0); "ondasun higiezinak" (% 23,4); "aktibo finantzario eta jarduera hobaridunak" (% 22,3); "gordailuak" (% 10,3); eta "beste ondasun eta eskubideak" (% 4,0).

Beraz, zerga berriarekin onartu den neurri garrantzitsuenetako batek, jarduera ekonomikoari atxikitako elementuak eta erakunde jakin batzuetako partaidetzak ("famili enpresetako partaidetza eta aktiboak") kargatzekoak zehazki, lagundu egin du zerga-oinarria oso modu garrantzitsu batean areagotzen (% 28,7); horrela, zerga-oinarrien guztizko kopurua 3.871,9 milioitara iritsi da.

⁴ Erabili diren datuak aitortena aurkezteko epea amaitzean (2014ko ekainak 25) eskura zirenak dira, eta kasu batzuetan datu-baseetan jasotako hainbat informazio gurutzatu behar izan dira, datu aitortuekin simulazioak egitearekin batera. Beraz, puntu honetan egindako analisiak gaurkotze eta doiketak izan ditzake.


4. taula – AFHZn 2013an aitortutako aberastasuna

Aberastasunaren banaketa		Zenbatekoa	%	Batez beste
1	Ondasun higiezinak	4.053.450.433	23,4	518.477
2	Hobaririk gabeko jarduera ekonomikoak	29.749.854	0,2	3.805
3	Jarduera ekonomiko hobaridunak	198.094.670	1,1	25.338
4	Gordailuak	1.775.987.987	10,3	227.167
5	Hobaririk gabeko aktibo finantzarioak	6.895.994.538	39,8	882.066
6	Aktibo finantzario hobaridunak	3.673.823.401	21,2	469.919
7	Beste ondasun eta eskubideak	693.068.860	4,0	88.650
8	Aberastasun gordina guztira (1+2+3+4+5+6+7)	17320.169.742	100,0	2.215.422
9	Zorrak	242.966.272		31.078
10	Aberastasun garbia guztira (8-9)	17078.237.288		2.184.477

zenbatekoak eurotan

Alabaina, mamizko aldeak daude aberastasunaren banaketan, horren tarteei erreparatuz gero behintzat. Hala, ondare tarte baxuetan (0 eta 500.000 euro bitartean) ondare horren parte nagusia ondasun higiezinetan biltzen da (% 49,0), eta tarteetan gorantz egin ahala ondasun horiek garrantzia galtzen dute, modu progresibo batean, harik eta % 5,2 besterik egiten ez duten arte, guztira 10 milioi eurotik gorako aberastasuna duten zergadunen kasuan. Bestetik, aberastasunaren goiko tarteetan aktibo finantzarioak dira nagusi, aberastasun gordinaren % 87,7ra iristen baitira; eta horien barnean hobaririk gabeko aktibo finantzarioak % 45,1 eta hobaridunak % 42,6 dira.

5. grafikoa – Ondasunen banaketa aberastasun gordinaren tarteen arabera



4.2. Zerga-oinarria, oinarri likidagarria, ordaintzeko kuota eta batez besteko tasa

Aitorpen kontsolidatuko datuak aztertzen baditugu, ikusten dugu 2013ko ekitaldiko zerga-oinarria 17.078,3 milioi eurokoa izan dela (batez beste 2,2 milioi aitorpeneko). Lehenago aipatu dugun moduan, horren barnean "famili enpresetako partaidetza eta aktiboak" atalaren garrantzia nabarmentzen da, zerga berriaz utzi egin baitiote salbuetsita egoteari; jarduera ekonomikoari atxikitako elementuak 198,1 milioitara iritsi dira eta 363 zergaduni eragin diete (0,55 milioi zergaduneko), eta erakunde jakin batzuetako partaidetzen atala 3.673,8 milioikoa izan da eta 1.992 zergadunek aitortu dituzte horrelakoak (1,84 milioi, batez beste, mota horretako aktibo finantzarioak dauzkan zergadun bakoitzeko).

Zerga-oinarriaren zenbatekoari obligazio pertsonalagatiko zergadunek kopuru bat kentzen diote, "gutxieneko salbuetsia" kontzeptuan (700.000 euro), eta horrela likidazio-oinarria ateratzen da; azken hau 11.649,0 milioikoa izan da (1,51 milioi batez beste).

Likidazio-oinarria kalkulatu ondoren, karga-eskala⁵ aplikatzen da kuota osoa ateratzeko; hau 75,5 milioikoa izan da. Kantitate horri kenkariak edo hobariak kentzen zaizkio, eta azken emaitza da ordaintzeko kuota (57,0 milioi, 7.398 euro batz besteko zergaduneko). Zehazki, 7.056 euroko hondar kopuru bat kendu da atzerrian zergak ordaintzeagatik, eta 18,5 milioi euro "famili enpresetako partaidetza eta aktiboengatik" hobari kontzeptuan.

Horrenbestez, batez besteko tasa nominala (kuota osoaren eta likidazio-oinarriaren arteko zatidura) % 0,65ekoa izan da, eta batez besteko tasa efektiboa (ordaintzeko kuotaren eta likidazio-oinarriaren arteko zatidura) % 0,49koa.

5. taula – 2013ko AFHZn aitortutako aberastasuna. Aitortzaile kopurua eta zenbatekoak (eurotan)

	Aitorpen kontsolidatua	Kopurua	Zenbatekoa	Batez beste
1	Ondasun higiezinak	7.377	4.053.450.433	549.471
2	Hobaririk gabeko jarduera ekonomikoak	160	29.749.854	185.937
3	Jarduera ekonomiko hobaridunak	363	198.094.670	545.715
4	Gordailuak	7.601	1.775.987.987	233.652
5	Hobaririk gabeko aktibo finantzarioak	7.117	6.895.994.538	968.947
6	Aktibo finantzario hobaridunak	1.992	3.673.823.401	1.844.289
7	Beste ondasun eta eskubideak	3.081	693.068.860	224.949
8	Zorrak	2.184	242.966.272	111.248
9	Zerga-oinarria (1+2+3+4+5+6+7-8)	7.817	17.078.237.288	2.184.756
10	Murrizpena	7.789	5.429.338.263	697.052

⁵ AFHZk sartutako aldaketa nagusietako beste bat izan da zergako tarifa nabarmen murriztea, 2013ko ekitaldiko emaitzak 2012an OZrekin lortutakoekin alderatzen diren hurrengo atalean ikusiko dugun moduan.

11	Zerga-oinarria (9-10)	7.703	11.648.899.025	1.512.255
12	Kuota osoa	7.703	75.472.272	9.798
13	Atzerrian ordaindutako zergak	19	7.056	371
14	Jarduera ekonomikoengatiko hobaria	363	618.761	1.705
15	Aktibo finantzarioengatiko hobaria	1.958	17.858.457	9.121
16	Ordaintzeko kuota (12-13-14-15)	7.703	56.987.998	7.398
17	Batez besteko tasa nominala % (12 / 11)		0,65	
18	Batez besteko tasa efektiboa % (16 / 11)		0,49	

zenbatekoa eurotan

AFHZren aitorten kontsolidatuaren azterketa tartekako banaketaz osatzen badugu, honakoak azpimarratu behar dira: a) 155 zergadunek (guztietatik % 2), aberastasun gordin osoaren % 19,3 biltzen dute (21,6 milioi batez beste); b) 837 zergadunek (guztietatik % 10,7) ordaindutako guztiaren % 67,8 egiten dute (46.218 euro zergaduneko); beste 6.981 zergadunek (guztietatik % 89,3) 2.622 euro ordaindu dituzte, batez beste.

6. taula – AFHZn 2013an aitortutako aberastasuna, aberastasun gordinaren tarteen arabera

Aberastasun gordinaren tartekak (eurotan)	Aitortenak		Aberastasuna		
	Kopurua	%	Guztira	%	Batez beste
0 - 500.000	51	0,7	16.413.251	0,1	321.828
500.000 - 1.500.000	4.470	57,2	4.672.926.632	27,0	1.045.397
1.500.000 - 3.000.000	2.151	27,5	4.400.746.397	25,4	2.045.907
3.000.000 - 10.000.000	991	12,7	4.883.674.520	28,2	4.928.027
> 10.000.000	155	2,0	3.346.408.942	19,3	21.589.735
GUZTIRA	7.818	100,0	17.320.169.742	100,0	2.215.422

Zenbatekoak eurotan

7. taula – 2013ko AFHZn ordaintzeko kuota, likidazio-oinarriaren tarteen arabera

Likidazio-oinarriaren tartekak (eurotan)	Aitortenak		Ordaintzeko kuota		
	Kopurua	%	Guztira (euro)	%	Batez beste (euro)
0 - 500.000	3.392	43,4	1.841.633	3,2	543
500.000 - 1.500.000	2.647	33,9	7.804.306	13,7	2.948
1.500.000 - 3.000.000	942	12,0	8.657.238	15,2	9.190
3.000.000 - 10.000.000	701	9,0	19.284.341	33,8	27.510
> 10.000.000	136	1,7	19.400.479	34,0	142.651
TOTAL	7.818	100,0	56.987.998	100,0	7.289

Zenbatekoak eurotan

4.3. 2012ko Ondarearen gaineko Zergarekiko alderaketa

Aurkeztutako aitorten kopuruak 1.170eko gorakada izan du (% 17,6ko gorakada). Igoera horretarako arrazoiak bi dira: alde batetik, "famili enpresetako partaidetza eta aktiboak" salbuesirik egoteari laga izanak ekarri du 570 aitorten berri aurkeztea, eta, bestetik, aberastasunaren beste osagaien balorazioan izandako gorakadak igoyeraren beste partearen azalpena emango liguke, zehazki 600 aitorten gehiago eragin baititu.

Era berean, kargatutako aberastasuna nabarmen handitu da, % 45,3, hau da, 5.325,7 milioi. Horietatik, aurreko atalean ikusi dugun bezala, 3.871,9 milioi dagozkio lehen aipatutako salbuespena kentzeari. Beraz, beste aktiboek ere balio handitze aipagarria izan dute (1.453,8 milioi, % 12,4ko hazkundera). Bilakaera positibo honen arrazoietakoa bat erreferentziatzat burtsa merkatuak dauzkaten aktiboek izan duten bilakaera da. Edonola ere, ezin da baztertu zerga administratibotik bultzatutako beste jarduera batzuen inpaktua (atzerriko ondasunak eta aktiboak deklaratu beharra, zerga erregularizazioak, salbuespena kentzeak lagunduko zuen agian enpresetako partaidetza batzuk azaleratzen...).

8. taula – 2012ko OZren eta 2013ko AFHZren arteko konparazioa

Kontzeptua	Ondarearen gaineko Zerga	Aberastasun eta Fortuna Handien gaineko Zerga	Aldea	
	2012	2013	Guztira	%
Aitorten kopurua	6.648	7.818	1.170	17,6
Ondare kargatua	11.752.513.208	17.078.237.288	5.325.724.080	45,3
Likidazio-oinarria	7.155.704.794	11.648.899.025	4.493.194.231	62,8
Likidazio-oinarri kargatua (*)	7.155.704.794	9.565.836.687	2.410.131.893	33,7
Kuota osoa	71.645.203	75.472.272	3.827.068	5,3
PFEZrekiko muga	32.824.322	-	-32.824.322	-
Hobaria (jarduerak eta partaidetzak)	-	18.477.218	18.477.218	-
Ordaintzeko kuota	38.808.411	56.987.998	18.179.587	46,8
Batez besteko tasa nominala (kuota osoa / LO)	1,00	0,65		
Batez besteko tasa efektiboa (ordaintzeko kuota / LO)	0,54	0,49		
Batez besteko tasa efektibo doituia (ordaintzeko kuota / LO*)	0,54	0,60		

Zenbatekoak eurotan

(*) Likidazio-oinarri zenbatesia, benetan kargatutako jarduera eta aktibo finantzario hobaridunen partea hartuz kontuan.

Bestetik, likidazio-oinarria (11.649,0 milioi) nabarmenago handitu da (% 62,8) zerga-oinarria baino (% 45,3), zerga-oinarriaren gainean aplikatu den gutxieneko salbuetsiagatik murrizketa 700.000 eurotan mantendu delako ekitaldi bietan; horregatik, murrizketa horrek zerga-oinarrian izandako eragina handiagoa zen, termino erlatiboetan, 2012an 2013an baino.

Alabaina, eta zergako tarifa nabarmen murriztu izanaren ondorioz, kuota osoa bakar-bakarrik % 5,3 igo da, eta 2012ko ekitaldian 71,6 milioikoa izatetik 2013ko ekitaldian 75,5 milioikoa izatera igaro da.

9. taula – Zergako tarifak

2012ko Ondare Zergako tarifa			
Likidazio-oinarria (zenbateraino)	Kuota osoa	Likidazio-oinarriaren gerakina (zenbateraino)	Tasa
0	0	200.000	%0,20
200.000	400	200.000	%0,30
400.000	1.000	400.000	%0,50
800.000	3.000	800.000	%0,90
1.600.000	10.200	1.600.000	%1,30
3.200.000	31.000	3.200.000	%1,70
6.400.000	85.400	6.400.000	%2,10
12.800.000	219.800	6,4M-tik gora	%2,50


2013ko AFHZko tarifa			
Likidazio-oinarria (zenbateraino)	Kuota osoa	Likidazio-oinarriaren gerakina (zenbateraino)	Tasa
0	0	500.000	%0,25
500.000	1.250	1.000.000	%0,50
1.500.000	6.250	1.500.000	%0,75
3.000.000	17.500	1,5M-tik gora	%1,00

Hala eta guztiz, ateratzen den ordaintzeko kuotak 18,2 milioi egin ditu gora (% 46,8ko igoera), 2012an ordaindutako 38,8 milioiko kopurutik 2013an ordaindutako 57,0 milioikora zehazki. Zergako tarifa murriztearekin batera, zergaren likidazio egitura modu garrantzitsuan aldatu duten beste bi neurri ere sartu dira. Alde batetik "babes fiskala" kentzeak ekarri zuen, 2012an kuota osoa 71,6 milioikoa izan arren, ordaintzeko kuota 38,8 milioikoa izatera igarotzea; beraz, neurri horren inpaktua 32,8 milioikoa izan zen urte horretan. Bestetik, "famili enpresetako partaidetzak eta aktiboak" kargatzeak, kuotan % 75eko hobaria aplikatu arren, ekarri du kuota osoa 18,5 milioi murriztea. Ikusten dugunez, beraz, hobari honen inpaktua babes fiskalaren inpaktua baino dezente txikiagoa da.

Horrenbestez, zergaren batez besteko tasa nominala (kuota osoaren eta likidazio-oinarriaren arteko zatidura) % 35 murriztu da, eta 2012ko % 1etik 2013ko % 0,65era igaro da. Dena den, batez besteko tasa efektiboaren arteko aldea ez da hainbestekoa (% 0,54 2012an, eta % 0,49⁶ 2013an), hain zuzen ere "babes fiskalak" pisu handiagoa duelako kuota osoan, "famili enpresetako partaidetza eta aktiboek" kuotan duten hobariak baino.

Tasa efektiboak likidazio-oinarrien tarteen arabera aztertzean, funtsean bi konklusio ateratzen dira: a) Ondarearen gaineko lehengo zerga ez zen progresiboa bere tartetean, zeren eta "babes fiskala" aplikatzearen ondorioz ondare handi samarrak zeuzkan zergadun kolektibo txiki batek batez besteko tasa efektibotik oso behera zegoen tasa efektibo batez ordaintzen baitzuen -esaterako, batez beste 2-3 milioiko likidazio-oinarria zeukaten zergadunek % 0,71ko tasa efektibo batez tributatzen zuten, eta 9 milioiko likidazio-oinarria zeukaten zergadunek % 0,33ko batez-; b) AFHZ berria progresiboa da, ia-ia tarte guztietan zehar, nahiz "famili enpresetako partaidetza eta aktiboek" kuotan duten hobariaren ondorioz kuota hori arinduta geratzen den 7-9 milioi euro bitarteko likidazio-oinarrien tartean.

6. grafikoa – Tasa efektiboa, likidazio-oinarriaren tarteen arabera




2013 (*) - likidazio-oinarri kargatuaz kalkulaturako tasa efektiboa, hau da, bakar-bakarrik benetan kargatu den jarduera ekonomiko eta aktibo finantzario hobaridunen parte harturik kontuan.

⁶ Erreferentziatutako likidazio-oinarri zenbatetsia hartuko bagenu, benetan kargaturako jarduera eta aktibo finantzario hobaridunen parte hartuz soilik kontuan, batez besteko tasa % 0,60koa izango litzateke.

Bestetik, bilketaren % 46,8ko gorakada hori (18,2 milioi) azaltzen duten faktoreak aztertuz gero, honakoa ikusten dugu: 6,7 milioi ondare aitortu handiagoei dagozkie, 10,9 milioi zerga berriak sartutako arau aldaketen eraginezko ekarpen netoa da, eta 0,6 milioi aitortzaile berriek ordaindu dutenaren eta 2012an aitortzaile izan eta 2013an aitortzen aurkeztu ez dutenek ordaintzeari lagatakoaren arteko aldea litzateke.

7. grafikoa – Bilketaren gorakadaren arrazoiak



Emaitza horiek lortzeko, alderatu egin dira ekitaldi bietan aitortpena aurkeztu duten zergadunek 2012an ordaindutako kuota eta 2013an aitortutako ondareagatik Ondare Zerga zaharraren araudia aplikatu baliote ordainduko zuten kuota. Hau da, simulazioa egiteko ez dira kontuan hartu "famili enpresetako partaidetzak eta aktiboak", zergaren tarifa zaharra aplikatu da, eta balizko horretan aplikatuko zuten "babes fiskalaren" zenbatespena egin da. Eta simulazioak izan duen emaitzak erakusten duenez, zerga-bilketa lehen aipatutako 6,7 milioiko kopuruan igoko zen (hau da, % 17,3ko bilketa-gorakada gertatuko zen). Eta hori horrela da, ondare aitortuaren balioa % 8 inguru handitu delako zergadun kolektibo honetan: ondasun higiezinaren balioa % 1,5, gordailuena % -2,1, eta beste aktibo higigarrien balioa % 18,3 handitu da. Beste aktibo higigarrietan izandako gorakada handi hori ikusirik, pentsa dezakegu ezen, 2013an burtsan izandako balio handitze garrantzitsuaz gain, beste gertakari batzuek eragingo zutela, agian, aurretik deklaratu edo aitortu gabeko aktiboak azalera zea.

4.4. AFHZren genero analisia

AFHZn 2013ko ekitaldian aitortutako datu orokorrak aztertu ondoren, eta 2012an Ondare Zergan deklaraturakoeekin alderatu eta gero, aztertu egingo dugu zerga berriak kolektibo jakin batzuen gainean izan duen inpaktua. Hala, genero analisia abiatuko dugu, zerga berriak emakumeen eta gizonen kasuan izan duen inpaktua ebaluatzeko.

Alde batetik, ikusten da emakumeek pisu handiagoa dutela AFHZn, batez ere aitorten kopuruari dagokionez; izan ere, emakumeek aurkeztutakoak aitorten kopuru osoaren % 53 dira. Hori batez ere biztanleriaren ezaugarri demografikoen indarrez azaltzen da. Bestetik, 75 urtetik gorako pertsonen kolektiboa hartzen badugu, ikusten da emakumeek aurkeztutako aitortenen portzentajea guztiaren % 59,1era iristen dela; gizonetakoek aurkeztuak, beraz, % 40,9 dira.

10. taula – 2013ko AFHZren datu nagusiak, aitortzailearen sexuaren arabera

Sexua	Aitortenak		Likidazio-oinarria		Ordaintzeko kuota		
	Kop.	%	Guztira	%	Guztira	%	Batez beste
Emakumeak	4.142	53,0	5.842.787.166	50,2	29.147.939	51,1	7.037
Gizonak	3.676	47,0	5.806.111.860	49,8	27.840.059	48,9	7.573
GUZTIRA	7.818	100	11.648.899.025	100	56.987.998	100,0	7.289

Zenbatekoak eurotan

Dena den, emakumeek aitortutako aberastasunak guztiaren gainean duen pisua % 50,2raino jaisten da, zeren eta emakumeek aitortutako batez besteko zerga-oinarria 2,11 milioikoa baita, gizonen aitortua baino % 7 txikiagoa alegia (2,27 milioi). Hala ere, kuota osoan duten pisua % 51,1eraino hazten da atzera, "famili enpresetako partaidetza eta aktiboek" aberastasunean duten pisua txikiagoa delako emakumeen kolektiboan; horregatik, kuotan hobaria duen zenbatekoa txikiagoa da emakumeen kasuan. Azkenean, ikusten da emakumeek ordaindutako batez besteko kuota 7.037 eurokoa dela; gizonetakoek, aldiz, 7.573 euro ordaintzen dituzte (emakumeek % 7,1 gutxiago).

11. taula – Aberastasun aitortuaren banaketa sexuaren arabera


Aberastasunaren banaketa	Emakumeak			Gizonak		
	Zenbatekoa	%	Batez beste	Zenbatekoa	%	Batez beste
1 Ondasun higiezinak	2.252.176.766	25,5	543.741	1.801.273.667	21,2	490.009
2 Hobaririk gabeko jardura ekonomikoak	14.612.514	0,2	3.528	15.137.340	0,2	4.118
3 Jardura ekonomiko hobaridunak	78.017.389	0,9	18.836	120.077.281	1,4	32.665
4 Gordailuak	963.759.449	10,9	232.680	812.228.538	9,6	220.954

5	Hobaririk gabeko aktibo finantzarioak	3.573.815.755	40,5	862.824	3.322.178.783	39,1	903.748
6	Aktibo finantzario hobaridunak	1.608.307.771	18,2	388.293	2.065.515.630	24,3	561.892
7	Beste ondasun eta eskubideak	337.315.541	3,8	81.438	355.753.318	4,2	96.777
8	Aberastasun gordina guztira (1+2+3+4+5+6+7)	8.828.005.185	100,0	2.131.339	8.492.164.557	100,0	2.310.164
9	Zorrak	106.316.190		25.668	136.650.081		37.174
10	Aberastasun garbia guztira (8-9)	8.722.722.812		2.105.921	8.355.514.476		2.272.991

Zenbatekoak eurotan

Aberastasun aitortuaren egiturari dagokionez, ikusten da ondasun higiezinak pisu handiagoa dutela emakumeen aberastasunean (% 25,5, eta gizonen kasuan % 21,2), eta "famili enpresetako partaidetza eta aktibo" hobaridunek pisu handiagoa dutela gizonen kasuan (% 25,7, eta emakumeen kasuan % 19,1).

8. taula – Aberastasun aitortuaren banaketa sexuaren arabera



2013an aitortutako datuak 2012koekin alderatzen baditugu, ikusten dugu ezen "famili enpresetako partaidetza eta aktiboek" gizonen aberastasunean duten pisu handiagorearen ondorioz emakumeek AFHZ berriaren ataletan duten pisua murriztu egin dela. Hala, aitorten kopuruari erreparatuz gero, ikusten dugu emakumeek aurkeztutako aitortenak 2012an % 53,8 izatetik 2013an % 53,0 izatera igaro direla. Era berean, emakumeek ordaindutako guztizkoak pisu erlatiboa galdu du (2012an % 52,7 izatetik 2013an % 51,1 izatera igaro da). Horrekin bat, emakumeek ordaindutako batez besteko kopurua (7.037 euro) gutxiago handitu da (% 23,1) gizonen ordaindutako batez besteko kopurua baino (7.573 euro), hauen kasuan igoera % 26,6koa izan baita.

12. taula – Ordaintzeko kuotaren konparazioa sexuaren arabera

Sexua	Aitorpen kopurua				Ordaintzeko kuota						
					2012ko OZ			2013ko AFHZ			
	2012ko OZ		2013ko AFHZ		Guztira	%	Batez beste	Guztira	%	Batez beste	
Mujeres	3.577	53,8	4.142	53,0	20.445.347	52,7	5.716	29.147.939	51,1	7.037	
Hombres	3.071	46,2	3.676	47,0	18.363.064	47,3	5.980	27.840.059	48,9	7.573	
TOTAL	6.648	100,0	7.818	100,0	38.808.411	100,0	5.838	56.987.998	100,0	7.289	


Zenbatekoak eurotan

4.5. Kolektibo berezien analisia

Atal honetan aztertu egingo dugu nolako eragina izan duen zerga berriak kolektibo jakin batzuen gainean.


Horretarako, lehen-lehenik bereizi egiten dira ekitaldi bietan aitorpena aurkeztu duten aitortzaileak (6.219 aitorpen, guztiaren % 79,5 zehazki) eta aitortzaile berriak (1.599, % 20,5). Gainera, ikusten da 2012ko Ondasun Zergako 428 aitortzailek ez dutela 2013ko AFHZko aitorpenik aurkeztu. Lehenek ordaindu duten kopurua, guztirako aitorpen kopuruan % 79,5 badira ere, ordaindutako guztiaren % 93,9ra iristen da, hau da, 53,5 milioi (8.608 euro, batez beste); aitortzaile berriek, aldiz, 2.161 euro besterik ez dute ordaindu batez beste, hau da, guztira 3,5 milioi, ordaindutako guztiaren % 6,1. Bestetik, 2012an aitorpena aurkeztu baino 2013an aurkeztu ez dutenek, urte hartan 2,9 milioi euro ordaindu zituzten guztira, hau da, batez beste 6.867 euro ordaindu zituzten.

9. grafikoa – 2013ko AFHZko aitortzaileen kolektiboa guztira




Arreta zergadun berrietan jartzen badugu, ikusten dugu 1.538 Gipuzkoan bizi zirela jada (guztietatik % 96,2), eta 3,2 milioiko kuota ordaindu zutela, batez beste 2.079 euroko ordainketa eginez zehazki; aitortzaile multzo osoaren batez besteko ordainketatik (7.289 euro) oso behera dago kopuru hori. Bestetik, 61 zergadunek Gipuzkoan finkatu dute bere egoitza 2013an, eta horiek 0,3 milioi euro ordaindu dituzte (4.246 euro, batez beste).

10. grafikoa – 2013ko AFHZko aitortzaile berrien analisia (1)



Era berean, 1.599 zergadunek aitortutako datuak analizaturik, ikusten da ezen horien artean bakar-bakarrik 830 zergadunek aitortu dituztela "famili enpresetako partaidetza eta aktibo" hobaridunak; zergadun horien artean, beste ondasun hobaririk gabeen balioa bakar-bakarrik 570 aitortpenetan da 700.000 euro baino handiagoa. Eta horrek esan nahi du ezen aitortpen kopuru oso horretatik (1.599) bakar-bakarrik 570 zergadunek aurkeztu dutela aitortpena zerga berriak sartu dituen aldaketen ondorioz. Beste era batean esanda, beste aitortzaile guztiek (1.029) aitortpena aurkeztu beharko zuten, halaber, Ondasun Zerga zaharreko erregulazioa aplikatuta; baina, ikusi dugun bezala, kolektibo honek ordaindutako batez besteko kopurua batez besteko orokorretik oso behera dago, eta hori, seguruenik, aitortpena egiteko mugara iristen ez eta 2012an aitortpenik aurkezteko obligaziorik ez zuten zergadunak direlako izango da.


11. grafikoa – 2013ko AFHZko aitortzaile berrien analisia (2)



Aztertzen badugu 2012an ondare aitorpena aurkeztu baina 2013an aurkeztu ez duten pertsonen kolektiboa (428), hainbat puntu bereizten dira: a) 108 pertsona hil egin dira, hau da, guztiaren % 25,2; horiek 2012an 1,1 milioi ordaindu zituzten (guztiaren % 35,9), batez beste 9.776 euro alegia; b) 252 zergadunek (% 58,9), AFHZko aitorpenik aurkeztu ez badute ere, aurkeztu dute PFEZren aitorpena edo Gipuzkoan errolatuta daude. Horiek 0,4 milioi ordaindu zituzten (guztiaren % 13,4), 1.567 euro batez beste; horrenbestez, pentsatzekoa da multzo honetako zergadunek utzi egin diotela AFHZgatiko aitorpena aurkezteko obligazioa izateari; 49 zergadunek (guztiaren % 11,4) 1,1 milioi ordaindu zituzten (% 37,6), hau da, 22.548 euro batez beste; azkenean bada aitorpenik aurkeztu ez duen eta horren arrazoia zein den ez dakigun 19 pertsonako talde bat, 0,4 milioi (% 13,0) ordaindu zuen bat, 20.174 euro batez beste.


Lan honen helburua ez da egoitza aldaketak zergatik gertatu diren aztertzea. Edonola ere, gastu guztietan AFHZk sartutako araudi aldaketen eraginez izan dela alegatzea gehiegizkoa da, badira eta araudi berriarekin Ondare Zerga zaharrarekin baino gutxiago ordainduko zuten kasuak. Eta egoitza Gipuzkoan finkatu duten eta AFHZgatiko aitorpena egin duten pertsonen kasuan ere gauza bera, ezin baitugu esan egoitza aldaketa horren atzean dagoenik zerga berriarekin gutxiago ordaintzea beren jatorrizko lurraldean ordaindu beharko zutena baino.

12. grafikoa – 2012ko Ondare Zerga aurkeztu eta 2013ko AFHZ aurkeztu ez duten aitortzaileen analisia



Hainbat kolektibo aztertzen diren bloke hau amaitzeko, aitorpenak sailkatu egiten dira, araudi berriarekin Ondare Zerga zaharrarekin baino gehiago edo gutxiago ordaindu duten. Horretarako, 2013an aitortutako datuetatik abiatuz, Ondare Zergaren araudia aplikatuta aterako zitzaizkien emaitzaren simulazioa egin da. Emaitza horiek aztertuta, zergadunen artean hainbat multzo egin daitezke, honakoak: a) 2.963 zergadunek, guztiaren % 37,9 dira, gutxiago ordaindu dute araudi berriarekin, zehazki 2.829 euro gutxiago batez beste; b) 115 aitorpenen kasuan (% 1,5) emaitza neutrala da; c) 2.048 pertsonak gehixeago ordaindu dute araudi berriarekin (54 euro batez beste), tarifaren lehen tartean dauden zergadunak direlako eta, ikusi dugun moduan, zerga berriarekin tasa aplikagarria handiagoa delako (% 0,25, Ondare Zergan % 0,20 zen eta; edonola ere aldea pisu gutxiagoa da); d) 2.692 aitortzailek, % 34,4k, gehiago ordaintzen dute araudi berriarekin, zehazki 7.822 euro gehiago batez beste.

13. grafikoa – Gehiago edo gutxiago ordaintzen duten aitortzaileen analisia



AFHZn ordaintzeko emaitza handiagoa izateko arrazoiak hiru dira: "babes fiskala" kendu izana, "famili enpresetako partaidetza eta aktiboen" titular izatea eta, izaera marjinal batez, tarifaren lehen tartean egotea. Logikoa denez, ordaintzeko kuota txikiagoa izango da zertzelada bi horiek (babesa eta partaidetza hobaridunak) eragiten ez diotenean emaitzari, edo, horien eraginpean egonda, tarifa berriagatiko kuota murrizpenak konpentsatzen dituzten. Horren guztiaren arabera, emaitza hauek ateratzen dira:

a) 703 aitortzailek, "babes fiskala" kendu izanaren ondorioz, 7,0 milioi gehiago ordainduko zituzten, 10.018 euro gehiago batez beste.

b) 1763 aitortzailek, "famili enpresetako partaidetza eta aktiboen" salbuespena kendu izanaren ondorioz, 6,2 milioi gehiago ordainduko zituzten, 3.494 euro gehiago batez beste.

c) 226ren kasuan babes fiskala kendu izanak zein "famili enpresetako partaidetza eta aktiboen" titular izateak eragin die. Horiek 7,9 milioi gehiago ordainduko zituzten, 34.752 euro gehiago batez beste.

d) Azkenean, aberastasunez tarifaren lehen tartean dauden zergadunen kolektiboak kantitate handixeago bat ordainduko zuen. Zehazki 2.048 pertsona dira egoera horretan, eta horietako bakoitzak 54 euro gehiago ordainduko zituen, batez beste.

13. taula – Gehiago ordaintzen duten aitortzaileak: arrazoiak

	Kopurua	2012ko OZn ordainduko zuten kuota	2013ko AFHZn ordaindutako kuota	Aldea guztira	Batez besteko aldea
Babes fiskala	703	4.913.843	11.956.743	7.042.900	10.018
Ondare hobariduna	1.763	3.551.793	9.711.030	6.159.237	3.494
Babes fiskala + ondare hobariduna	226	4.455.636	12.309.535	7.853.899	34.752
Besteak(tarifaren lehen tartea)	2.048	884.517	994.483	109.966	54
Guztira	4.740	13.805.788	34.971.791	21.166.002	4.465

Zenbatekoak eurotan

Gutxiago ordaintzen dutenen aitortpenen ezaugarriak gehiago ordaintzen dutenen aitortpenen ezaugarriekin alderatzen baditugu, ikusten dugu likidazio-oinarriaren batez besteko zenbatekoa oso antzekoa dela (1,48 milioi lehen taldearen kasuan, eta 1,53 milioi bigarrenaren kasuan), eta gauza bera kuota ordaindua alderatzen badugu ere (7.430 euro lehen taldekoek, eta 7.378 euro bigarrenekoek). Bigarren taldekoek, likidazio-oinarri handixeago batez, gutxiago ordaintzearen atzean zera dago, kolektibo honen kuota hobariduna nabarmen handiagoa izatea.


14. taula – Gutxiago ordaintzen duten eta gehiago ordaintzen duten aitortzaileak

2013ko AFHZ	Gutxiago ordaintzen dute		Gehiago ordaintzen dute	
	Guztira	Batez beste	Guztira	Batez beste
Jarduera ekonomiko hobaridunak	24.741.214	8.350	173.353.456	36.572
Aktibo finantzario hobaridunak	332.169.334	112.106	3.335.220.904	703.633
Likidazio-oinarria	4.391.362.986	1.482.066	7.257.536.039	1.531.126
Kuota osoa	24.222.130	8.175	51.250.142	10.812
Jarduera ekonomikoengatikoa hobarria	111.987	38	506.773	107
Aktibo finantzarioengatikoa hobarria	2.086.975	704	15.771.482	3.327
Ordaintzeko kuota	22.016.207	7.430	34.971.791	7.378

Zenbatekoak eurotan

Bestetik, kolektibo bi horietako ondasun eta eskubideen banaketak alderatzen baditugu, ikusiko dugu ezen AFHZrekin gutxiago ordaintzen duten pertsonen kolektiboan "famili enpresetako partaidetza eta aktiboen" pisua askoz txikiagoa dela (% 5,4) gehiago ordaintzen dutenen kasuan baino (% 32,8).

14. grafikoa – Gehiago edo gutxiago ordaintzen duten aitortzaileen ondarearen banaketa



4.6. "Babes fiskala" kentzea

Lehengo Ondare Zergan erregulatzen zen "babes fiskal" deituak baterako muga bat ezartzen zuen PFEZrekin; horren arabera, PFEZko eta Ondare Zergako kuota osoen baturak ezin zuen gainditu PFEZko zerga-oinarriaren % 60. Edonola ere, muga horren aplikazioaren ondorioz aplikatu beharreko gehienezko murrizpena Ondare Zergako kuota osoaren % 80koa zen. Baterako muga hori sartzeko arrazoia zerga konfiskaziozkoa izatea saihestea zen. Horregatik, kontuan harturik neurriaren garrantzi kuantitatiboa, eta neurria kentzea konfiskaziozkoa dela alegatu ahal izateak eragindako polemika dela-eta, komeni da "babes fiskalera" jotzen zuten zergadunek 2012an aitortutako datuak ematea eta Ondare Zergako beste zergadunek aitortutakoekin alderatzea, horrela zorroztasun handiagoz baloratu ahal izatearren neurria kentze hori.

Zehazki 675 aitortzaile izan ziren, batez beste 5,52 milioiko ondare aitortuaz eta batez beste 22.976 euroko ordaintzeko kuotaz, ezen baterako mugaren aplikazioaren ondorioz zergadun bakoitzak 48.629 euro gutxiago ordaintzen zituen. Beste aitortenekin (5.973) alderatzen baditugu, ikusten da horien batez besteko ondarea 1,38 milioikoa zela, eta ordaindua 3.901 euro zirela. Horrek erakusten digunaren arabera, babes fiskalaren aplikazioa jotzen zutenek aitortutako batez besteko ondarea besteenaren halako laukoa da, eta kopuru ordaindua ia-ia 6 aldiz handiagoa. "Babes fiskalaren" garrantzi kuantitatiboa baloratzeko, nahikoa da ikustea horren aplikazioarengatik ordaindu ez tako kopurua, guztira, 32,8 milioikoa izan zela, hau da, ia-ia 2012an Ondare Zergagatik ordaindutako kopuru osoaren parekoa, hau 38,8 milioikoa izan baitzen.

15. taula – 2012ko Ondarearen gaineko Zergaren datuak

	Aitorpenak guztira		Aitorpen babes fiskaldunak		Aitorpen babes fiskalik gabeak	
	Guztira	Batez beste	Guztira	Batez beste	Guztira	Batez beste
Aitorpen kopurua	6.648		675		5.973	
Ondarea guztira	11.990.333.363	1.803.600	3.725.625.146	5.519.445	8.264.708.216	1.383.678
Kuota osoa	71.645.203	10.777	48.337.543	71.611	23.307.660	3.902
Babes fiskala	32.824.322	4.937	32.824.322	48.629	0	0
Ordaintzeko kuota	38.808.411	5.838	15.508.602	22.976	23.299.809	3.901

Zenbatekoak eurotan

Kolektibo honen ondarearen egitura aztertzen badugu, ezaugarriak honakoak dira: ondasun higiezinak, ondare aitortuaren % 18,4 dira, beste aitortzaileen kasuan baino askoz pisu txikiagoa dute, azken hauentzat % 37,0 baitira; inbertsio fondoek pisu handiagoa dute (% 22,6 % 13,2ren aurrean); eta beste aktiboen barnean, jarduera nagusitzat ondare higiezin edo higigarriaren kudeaketa duten erakundeetako partaidetzek edo subjektu pasiboak erabakitzeko ahalmenik ez duen erakundeetako partaidetzek pisu handiagoa dute. Zehazki, kolektibo honek aitortutako batez besteko likidazio-oinarria 5,52 milioikoa izan zen, honela banatuta: 1,01 milioi ondasun higiezinetan; 1,25 milioi inbertsio fondoetan; 2,82 milioi beste aktibo finantzario batzuetan; 0,43 beste ondasun eta eskubideetan.

16. taula – 2012ko Ondarearen gaineko Zergako aitortzaileen ondarearen egitura

	Aitorpenak guztira			Aitorpen babes fiskaldunak			Aitorpen babes fiskalik gabeak		
	Guztira	%	Batez beste	Guztira	%	Batez beste	Guztira	%	Batez beste
Ondasun higiezinak	3.742.857.184	31,2	563.005	683.785.192	18,4	1.013.015	3.059.071.992	37,0	512.150
Inbertsio fondoak	1.937.583.338	16,2	291.454	843.244.459	22,6	1.249.251	1.094.338.879	13,2	183.214
Beste kapital higigarria	5.550.331.012	46,3	834.887	1.906.161.018	51,2	2.823.942	3.644.169.994	44,1	610.107
Beste ondasunak	759.561.828	6,3	114.254	292.434.477	7,8	433.236	467.127.351	5,7	78.206
Guztira	11.990.333.363	100,0	1.803.600	3.725.625.146	100,0	5.519.445	8.264.708.216	100,0	1.383.678

Bestetik, hurrenak ikusten dira: a) laneko etekinek pisu txikia dute PFEZko zerga-oinarrian; eta b) kapital higigarriaren eta higiezinaren etekinek pisu txikia dute, halaber, PFEZko zerga-oinarrian, ondare aitortuarekin alderatuta, eta konklusio hori are agerikoagoa egiten da Ondare Zergako beste aitortzaileek PFEZn aitortuarekin alderatuz gero. Eta honek guztiak esan nahi du ezen horien ondare higiezinaren parte bat erabilerarik gabe dagokeela edo titular diren aktibo finantzarioek ez dutela errentaren gaineko zergari lotutako errentarik sortzen; honek ez du, baina, esan nahi errentagarritasunik lortzen ez dutenik. Esate baterako, inbertsio fondoan kasuan horien balio handitzea ez da errenta gisa jasotzen PFEZn. Era berean, irabaziak dauzkaten baina horiek erreserbetara pasatzen dituztelarik banatzen ez dituzten enpresetako partaidetzen titular izateko aukera ere bada. Beste era batean esanda, titular garen aktibo motaren arabera gerta daiteke ondarearen balioa handitzea eta handitze hori PFEZn ez konputatzea errenta gisa eta, horrenbestez, "babes fiskalak" eragina izatea ahalbidetzea.

Kontu honi dagokionez izaera diferentziala egiaztatzeko, alderatu egin dira kolektibo biek (babesdunak eta babesik gabeak) PFEZn aitortutako kapital higigarriaren eta higiezinaren etekinak, 2012ko Ondare Zergan aitortutako ondare higigarri eta higiezinarekin; eta ateratzen den emaitzaren arabera, kapital higiezinaren etekina % 0,84koa besterik ez zen izan babesa aplikatzen duen kolektiboaren kasuan, eta beste aitortzaileen kasuan etekin hori % 2,09koa izan zen. Kapital higigarriaren etekina alderatzen badugu, emaitza are desberdinagoa da, ezen etekina % 0,87koa da lehen kolektiboaren kasuan, eta % 3,68koa bigarrenarenean. Termino agregatuetan, aitortzaile babesdunek lortutako errentagarritasuna (PFEZn aitortua) % 0,86koa izan zen, eta besteena % 2,95ekoa, hau da, bigarren multzoan 3,4 aldiz handiagoa izan zen. Eta horrek konklusio batera garamatza: kontuan harturik batez bestekoei, kolektibo handiei eta ekitaldi berari buruz ari garela, alde horren atzean zergadun babesdunen kolektibo honetan zerga eta finantza plangintzak duen garrantzia dagoke, are gehiago ondare handiak dituen kolektiboa izanik.

17. taula – 2012ko Ondarearen gaineko Zergako aitortzaileen errentagarritasunak

Errentagarritasuna (%)	Aitorpenak guztira	Aitorpen babes fiskaldunak	Aitorpen babes fiskalik gabeak
Kapital higiezinaria (1)	1,86	0,84	2,09
Kapital higigarria (2)	2,72	0,87	3,68
Kapitala guztira	2,37	0,86	2,95

(1) Kapital higiezinaren etekina PFEZn / Ondasun higiezinaren balioa Ondare Zergan

(2) Kapital higigariaren etekina PFEZn / Kapital higigariaren balioa Ondare Zergan (inbertsio fondorik gabe)

Ildo honetatik, babes fiskala kentzearen helburua litzateke "eduki ekonomikoa duten ondasun eta eskubideen efizientzia hobetzea...", horixe delako zergaren helburuetako bat. Gainera zergadunek, bere lehentasunen arabera, bere ondarea hainbat aktibotan bana dezaketela alde batera utzirik, "babes fiskala" kentzearen bidez saihestu egin nahiko litzateke ondaretiko etekinek PFEZri lotutako errentarik sortzen ez dutela-eta horrek eskubidea ematea kasu honetan AFHZgatik ordaindu beharreko kopurua mugatzeko.

Aurreko paragrafoan esana behar bezala baloratzeko, simulazio bat egin da, eta horretan jo da "babes fiskala" aplikatu zuten zergadunek eta babes fiskala aplikatu ez dutenek errentagarritasun berberak lortu dituztela (% 2,95eko batez besteko errentagarritasuna); simulazioan "babes fiskala", lehen ikusi dugun moduan 32,8 milioikoa zen hori alegia, 12,7 milioitaraino jaisten zen. Eta horrek esan nahi du Ondare Zergagatik ordaindutako kopurua 20,1 milioi gehiagokoa izango zela. Bestetik, kontuan harturik PFEZren aurrezkiaren oinarria zenbait handituko zen, PFEZn ordaindu beharreko zenbatekoa beste 22 milioi handiagoa izango zen. Beraz, 2012ko ekitaldian zerga biengatiko bilketak 42,1 milioi gehiago hartuko zituen, Ondare Zergagatik ordaindutako guztizko kopurua 38,8 milioikoa izan zenean. Edonola ere, gogoan hartu behar da simulazio ariketa honen oinarrian dagoen hipotesia, hau da, errentan aitortutako kapital higigariaren eta higiezinaren errentagarritasuna % 2,98koa izatea, ez dela batere zentzugabea, horixe baita 5.973 zergadunetatik bestek lortutako batez besteko errentagarritasuna.

5. Konklusioak

Zerga berria diseinatzean helburua izan da laguntzea zerga sistema, oro har, ekitatibo eta progresiboagoa izan dadin, Ogasunari bitarteko osagarriak ematearekin batera politika publikoak behar duten beste finantzatu ahal izatearren. Horrela, AFHZ berriaren kanpainan 57 milioi euro bildu dira, eta kanpainatik kanpo biltzea aurreikusten den kopuruarekin batera zerga itunduen bidezko bilketa osoaren % 1,65 egiten dute, eta BPGaren % 0,29. Ildo honetatik, komeni da erreferentziatzat hartzea ezen Frantzia Ondarearen gaineko

Zergagatiko bilketa BPGaren % 0,23 dela, Islandian % 0,25, espainiar estatuan 2008an % 0,22 eta 2012an % 0,07, Norvegian % 0,56 eta Suitzan % 1,23, Espainiako Zerga Sistemaren Erreformatarako Adituen Batzordearen Txostenak (2014ko otsaila) jasotako datuen arabera.

Horretarako, zerga berriarekin kolektibo txiki bat kargatzen da (7800 pertsona, PFEZko aitortzaileak 385.770 direnean), ahalmen ekonomiko altuko bat (837 zergadunek ordaintzen dute zergan ordaindutako guztiaren % 67,8). Gainera, zergadun horiek aitortutako errentan garrantzi handia dute aurrezkiaren oinarrian sartzen diren kapital errentek; horiek ez doaz tarifa orokorrera, eta % 23 / % 25 inguruko karga tasa bat aplikatzen zaie.

Bestetik, errenta horiek PFEZn duten tributazioak pisua galdu du, nabarmen, krisiaren hasieraz geroztik; aitzitik, laneko errentek pisua irabazi dute. Kapitala edo enpresa-jardueren irabaziak kargatzen dituen tributazioa % 50 baino gehiago murriztu da, eta lana eta kontsumoa kargatzen dituenak nabarmen hartu du pisua zerga-bilketaren multzoan.

Bilketa helburu horiek lortzeko hainbat neurri sartu dira, honakoak: a) nabarmen handitu da zergaren zerga-oinarria, "famili enpresetako partaidetza eta aktiboek" salbuetsita egoteari laga baitiote; horrenbestez, zerga-oinarria 3.871,9 milioi handitu da, hau da, % 28,7ko hazkundera izan du. Edonola ere, eta tributazio zuzen eta bidezko baten eta tributazio hori enpresa txiki eta ertainen enpresa-jarduera sustatzeko unean disuasiozkoa ez izatearen arteko oreka lortzearren, % 75eko hobaria ezarri da kuotan, "famili enpresetako partaidetza eta aktibo" horientzat, eta horrela ordaindu beharreko kuota 18,5 milioi murriztu da; b) oso pertsona kolektibo txikia (677 zergadun 2012an) faboratzen zuen "babes fiskala" kendu da, ezen babesak nabarmen txikiagotzen zuen kuota ordaindua (32 milioi euro 2012an), eta babesaren aplikazioa, gainera, pertsona horien aberastasunaren banaketaren ondorioa zen, zeren eta banaketa horren bidez pertsona horiek PFEZn aitortzen zuten aberastasun higitarri eta higiezinaren errentagarritasuna oso azpitik zegoen Ondare Zergako beste zergadun aitortzaileek aitortzen zutenetik; c) zergako tarifaren jaitsiera handia, horren bidez zergaren tasa nominala 2012ko % 1etik 2013ko % 0,65era igaro baita, eta tasa efektiboa % 0,54tik ("babes fiskalaren" ondorioz") % 0,49ra ("famili enpresetako partaidetza eta aktiboek" hobariaren eraginez). Horrekin, 2.963 aitopenek (aurkeztutako guztietatik % 37,9) 2.829 euro gutxiago ordaindu dituzte, batez beste, Ondare Zerga zaharra aplikatu balitz ordainduko zutena baino.

Beraz, emaitza horiek bat datoz AFHZ definitzean ezarri ziren helburuekin. Bestetik, aztertu egin behar da datozen urteetan zergak duen bilakaera, zerga sisteman oro har duen eraginarekin batera.

Aberastasunaren tributazioa eta zerga lokalak: ohikoak ez diren etxebizitzaren gaineko errekargua

Beñat Herce Lezeta

MIK-ko eta Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko irakasle eta ikerlaria

1. Aberastasunaren tributazioa eta zerga lokalak
2. Etxebizitzaren problematika eta neurriak
3. OHZ: Ohiko bizileku ez diren etxebizitzaren gaineko errekargua

1. Aberastasunaren tributazioa eta zerga lokalak

Aberastasunaren tributazioak, modu ezberdinetara, pertsonen ondarea osatzen duten ondasun eta eskubide ekonomikoekin erlazionatutako inguruabarrak zergapetzen dituen zerga multzoa jasotzen du. Hauek, komunean dute aktiboaren balioaren gainean aplikatzen direla eta ez berauen errendimenduen gainean, errenta edo sozietateen gaineko zergatan bezala.

Eduki ekonomikoa duten ondasun eta eskubideen titulartasunetik eratorria den ahalmen ekonomikoa neurtzen duen adierazlea dela aberastasuna esan dezakegu¹. Hots, aberastasuna gaineko zergek, kasuan kasuko, pertsona baten aberastasuna osatzen duten aktibo guztien edo zati baten jabetza hutsa, honen transmisioa edo aktiboaren balio gehikuntza zergapetzen dute.

Gainera, zergak errealak edo pertsonalak izan daitezke. Azkenekoak zergaren izaeran pertsona eta honen inguruabarrak kontuan hartzen direnak dira; lehenengoak, aldiz, zergapetzen den ondasuna kontuan hartzen denean dira.

Hurrengo taulan EAEn eta Gipuzkoan aberastasuna zergapetzen duten zergak bildu ditugu:

1. taula. Aberastasunaren tributazioa Gipuzkoan

	Zerga	Izaera	Kompetentzia
Jabetzaren gainekoa	Ondarearen g.Zerga / Aberastasun eta Fortuna Handien g. Zerga (AFHZ)	Zuzena, pertsonala Orokorra	Lurralde Historikoa
	Ondasun Higiezinaren g. Zerga (OHZ)	Zuzena, erreal Partziala	Lokala
	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen g.Zerga (TMIZ)	Zuzena, erreal Partziala	Lokala
Transmisioaren gainekoa	Oinordetza eta Dohaintzen g.Zerga (ODZ)	Zuzena, pertsonala Partziala	Lurralde Historikoa
	Ondare eskualdaketak eta EJDak (OEetaEJD)	Zeharkakoa, Partziala	Lurralde Historikoa
Balio gehikuntzaren gainekoa	Hiri Lurren balio gehikuntzaren g.Zerga (HLBGZ)	Zuzena, erreal Partziala	Lokala

Iturria: Norberak egina (2014)

¹ 2012ko Abenduaren 18ko 10/2012 Foru Araua, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergarena

Taularen lehenengo zutabearen aberastasunaren jatorriaren arabera sailkatu ditugu zergak hiru multzotan: jabetzarekin lotutako zergak, ondareen transmisioarekin lotutakoak eta azkenik, balio gehikuntzarekin zerikusia duten zergak. Hirugarren zutabearen zergen izaeraren arabera sailkatzen dira. Batzuk modu orokorrean zergatzen dute aberastasuna, hau da, pertsona baten aberastasun osoa zergapetzen dute; esate baterako, Araba, Bizkaia eta Nafarroan dugun Ondarearen gaineko zerga eta Gipuzkoan dugun Aberastasuna eta Fortuna Handien Gaineko Zerga. Beste batzuk partzialki zergatzen dute aberastasuna, egitate zergagarriak kargatzen duen eragiketaren arabera. Bigarren multzo horretan gainontzekoak ditugu: Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zergak, Ondare eskualdaketak, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko zerga eta abar. Azken zutabearen eremu instituzionalaren arabera sailkapena dugu: lurralde historikoarekin lotutakoak edo maila lokaleko zergak. Azken horiek dira artikuluan honen materia.

Zerga guztiak printzipio zehatz batzuen arabera eraikitzen dira. Printzipio horiek Zergen Foru Arau Orokorrean² jasota daude. Arau horrek bere bigarren artikuluan horrela dio hitzez hitz:

“1. Zerga sistemaren ordenamendua tributuak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoan oinarritzen da, eta printzipio hauek ditu gidari, justizia, orokortasuna, berdintasuna, progresibitatea, zama tributarioaren banaketa egokia, eta ez-konfiskatorietatea.

2. Zerga sistemaren aplikazioak proportzionaltasuna, eraginkortasuna eta obligazio formalak betetzeak dakartzan zeharkako kostuen mugapena izango ditu printzipio gidari, eta zergapekoen eskubide eta bermeak errespetatzen direla ziurtatuko du”.

Horrela bada, zergen ordainketan egin beharreko esfortzuaren banaketa justua izan behar da, eta honetan printzipio garrantzitsuenetako bat ekitatearena da. Bitan bana dezakegu: alde batetik, onura printzipioa dugu, hau da, norbanakoek gastu publikoari egiten dioten kontribuzioa sektore publikotik lortutako onuren arabera izan behar da, hau da, jasotako zerbitzu publikoen ordainetan. Bestetik, ahalmen ekonomikoaren printzipioa, hots, norbanako bakoitzaren gainean ezartzen den karga tributarioa bere gaitasun ekonomikoaren arabera izan behar da.

Zerga lokalak ere printzipio horien baitan existitzen dira. OHZ onuraren printzipioaren arabera da. Zerga hau zuzenki erlazionatuta dago zerbitzu publiko eta ondasunen prestazio lokalarekin (estolderia, zoladurak, argiztapena, segurtasuna, ea). Aldi berean, zerga honek inplizituki “etxebizitza zerbitzuak” zergapetzen ditu, hauek gastu publiko lokalarekin positiboki erlazionatuta dauden heinean, udalerrian inbertitzen denak zuzenean eragiten baitu higiezinaren balioan.

² 2005eko Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergena

Hala ere, askotan subjektu pasiboaren gaitasun ekonomikoak beti ez du ondasun higiezinaren balioarekin erlaziorik izaten; izan ere, subjektu pasiboaren ordaintzeko gaitasuna ondasunaren balio katastrala bezalako indize batek adierazten baitu; eta hortaz ahalmen ekonomikoaren printzipioa ez du guztiz betetzen.

Sistema tributario baten bidezkoasuna progresibitate printzipioarekin ere erabat erlazionatuta dago, eta hala behar luke izan aberastasunaren tributazioarekin hitz egiten dugunean ere. Alabaina, zerga lokaletan proportzionaltasuna egon arren, progresibitatea ez da ematen. OHZ-an, balio handiagoa duten etxebizitzek zerga oinarri handiagoa dute eta ondorioz zerga kuota altuagoa ordaintzen dute. Baina, edozein delarik ere balio ekonomiko hori karga tasa bera aplikatzen zaie. Beraz, proportzionaltasuna ematen bada ere, progresibitatea ez.

Adibidez, subjektu pasibo batek etxebizitza bat baino gehiago badu jabetzan, nahiz eta ordaindu beharreko tributu kuota "bikoitza" (bi zerga kuota) izan, ez luke modu handiago batean zergapetua egon beharko bigarren eta hortik aurrerako etxebizitzak? Edo eta etxebizitza lehen mailako beharizana izanik, erabilerarik ez duten etxebizitzak, era iraunkorrean "hutsak" daudenak, ez lirateke fiskalki "zamatua" izan beharko?

2. Etxebizitzaren problematika eta neurriak

Aurreko galderak erantzun baino lehen, azken urteetako koiuntura aztertzea komenigarria da, hartu diren neurriak hobekiago ulertzeko.

Jakina denez, Euskal Herrian azken urteetako eta oraingo arazo sozioekonomiko nagusietako bat, biztanleriako sektore garrantzitsuenetako batek, etxebizitza bat eskuratzeko dituen zailtasunak dira. Higiezinaren burbuilak, etxebizitzaren prezioaren garestitzea ekarri du, batez ere, epe motzeko irabaziei, espekulazioa eta hazkunde errazeko ereduengatik. Izan ere, gizon eta emakume askok, eta gazteak zer esanik ez, beren udalerrietan etxebizitza bat eskuratzeko aukera asko zaildu da, ez soilik etxebizitzaren garestitzearengatik, etxe asko ez baitira merkataturatzen, ez salmentan ez eta alokairuan ere.

Etxebizitza oinarriko eskubidea da, lehen mailako beharizana; herritar orok du bizileku duin bat izateko eskubidea. Aldiz, etxebizitza bat baino gehiago jabetzan izatea eskubide honetatik haratago doa eta zer esanik ez etxebizitza hutsa edo erabili gabea izateak.

Eustatek 2012an argitaratu zituen datuei erreparatu³, etxebizitza erabilera zituzten higiezinetatik % 16a ez dago ohiko bizileku bezala kalifikatuta.

Eustat-en definizioaren arabera, Famili etxebizitza bat etxebizitza nagusia da urte osoan edo urtearen zatirik handiengan pertsona baten edo gehiagoren ohiko bizileku gisa erabiltzen denean, eta bigarren etxebizitza da urtearen zati batean bakarrik erabiltzen denean. Aldiz, Etxebizitza hutsa da auri egoeran egon gabe eta aurreko egoeretako batean ere ez dagoenean inor bertan bizi ohi ez denean.

2. Taula. Etxebizitzak, EAEn, 2011

	ETX. FAM.	PRINTZIP.		BIGARREN	%	HUTSAK	%	B + H	%
EAE	1.018.794	860.522	84,46%	42.115	%4,13	116.157	%11,40	158.272	%15,54
ARABA	156.273	130.170	83,30%	8.064	%5,16	18.039	%11,54	26.103	%16,70
GIPUZKOA	332.835	276.407	83,05%	13.920	%4,18	42.508	%12,77	56.428	%16,95
BIZKAI	529.686	453.945	85,70%	20.131	%3,80	55.610	%10,50	75.741	%14,30

Iturria: Norberak egina (2012) Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 1991 eta 2001eko Zentsuak (PEZ); Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 1996 eta 2006ko Estatistikak (PEE) datuetan oinarrituz

3. Taula. Etxebizitzak, Gipuzkoan, 2011

	Etxeb. fam.	Printzip	%	Bigarren.	%	Hutsak	%	B+H	%
Behe Bidasoa	34.903	29.456	%84,39	2.021	%5,79	3.426	%9,82	5.447	%15,61
Deba Barrena	27.427	22.228	%81,04	1.539	%5,61	3.660	%13,34	5.199	%18,96
Deba Goiena	29.351	24.379	%83,06	979	%3,34	3.993	%13,60	4.972	%16,94
Donostia	151.278	129.237	%85,43	4.227	%2,79	17.814	%11,78	22.041	%14,57
Goierni	32.053	26.325	%82,13	898	%2,80	4.830	%15,07	5.728	%17,87
Tolosaldea	22.638	18.138	%80,12	708	%3,13	3.792	%16,75	4.500	%19,88
Urola-Kosta	35.185	26.644	%75,73	3.548	%10,08	4.993	%14,19	8.541	%24,27
Gipuzkoa	332.835	276.407	%83,05	13.920	%4,18	42.508	%12,77	56.428	%16,95

Iturria: Norberak egina (2014) Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 1991 eta 2001eko Zentsuak (PEZ); Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 1996 eta 2006ko Estatistikak (PEE) datuetan oinarrituz

³ Altuzarra Artola, A: Vivienda, In EUSTAT: Informe Socioeconómico de la CA de Euskadi, EUSTAT, 2012, http://www.eustat.es/elementos/ele0009900/ti_Informe_Socioeconomico_de_la_CA_de_Euskadi_2012_Vivienda_PDF_408KB/inf0009900_c.pdf

Gipuzkoan, etxebizitza guztien % 4,18a bigarren etxebizitza da eta % 12,77a hutsa bezala kontsideratua. Beraz, bi hauen baturak esaten digu Gipuzkoako izaera erresidentziala duten higiezin guztietatik % 17 ez dela inoren ohiko bizileku, tasarik altuenak Urola kosta (% 24,27), Tolosaldea (% 19,88) eta Deba behean (% 18,96) egonda. Aldiz, tasarik baxuenak Donostialde (% 14,57) eta Bidasoan (% 15,61).

Etxebizitza lehen mailako beharrezko den heinean, eskubide hori herritar orori bermatzea, etxebizitza duin bat izatearena, botere publikoen ardurara da. Arazo konplexua izanik politika eta jokabide global eta integralago batzuen beharra dagoela argi dago, elkarren osagarri izan behar diren neurriak hartuz, etxebizitza politikako logika sektorialak gaintu eta aurrerapausoak emateko. Zentzu honetan izaera tributarioa dituzten erabakiak har daitezke, baina ez horiek bakarrik, haratago joan behar baita.

Azken urtetan, sustapen politika batzuk aurrera eramanez EAEn, Bizigune programa edo PFEZn ohiko etxebizitzaren alokairuaren inguruko tratamendua bezalakoak. Hala eta guztiz ere, neurri hauek ez dute modu integratuan etxebizitza hutsaren problematikari taxuzko erantzun bat eman.

Ezagunak dira, ohiko erabilera ematen ez dion higiezin baten jabeak etxebizitza ez merkaturatzeko ematen dituzten arazoak: ez dagoela nahikoa bermerik etxebizitza berreskuratzeko garaian baldintza egokitan jasotzeko, errenta kobratzeko bermeak edo merkaturatzeko jabeak egin behar dituen obra eta gastu gehigarrien existentzia, besteak beste.

Modu batean, aurretik aipatutako neurriek erantzuten diote problematika hauei, baina, hala ere, oraindik bada higiezin kopuru altu bat hutsik dirauena ikusi dugun bezala. Hortaz, sustapen politikez aparte mota horietako etxebizitzaren "zamatzerak" orientatutako neurriek ere egiten dute falta.

Norabide honetan, azken urteetan eman dira erabili gabeko etxebizitzaren kopurua mugatzeko urrats batzuk. Gipuzkoako Lurralde historikoan, Espainiar estatuan bezala (saiakera egon da) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokionez, araudian jasota egon da etxebizitza hutsen gaineko errekarua bat jartzeko aukera, erregelamendu bidez garatu behar zena. 2008 eta 2011 artean, Lasarte-Oria, Astigarraga, Zarautz, Hernani, Zumaia, Eskoriatza, Urretxu, Soraluze, Alegi eta Getaria bezalako herriek beren ordenantza fiskaletan txertatu zituzten Etxebizitza hutsen gaineko errekaruak. Hori horrela, erregelamendu hori inoiz ez da garatu eta ezin izan dute aplikatu. Zergatik? inolako borondate politikorik ez delako egon benetan aplikatzeko. Izan ere, etxebizitza hutsa definitzeak zailtasun tekniko batzuk suposatzen ditu legegile eta administrazio ezberdinentzat. Ez dira gai izan etxebizitza bat huts bezala kalifikatzeko betekizunak definitzeko, ez behintzat, 2012 arte.

Urte honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak errekarua etxebizitza hutsen gainean ezartzea baztertu zuen eta ikuspegi berriarekin higiezin horren erabilerari erreparatu zion. Hau da, ohiko etxebizitza erabilerara zuen ala ez bihurtu zen erabakigarria. Ohiko egoitza ez den kasuetan errekarua aplikatzeko markoa arautu zuen Zerga Lokaletan⁴, eta udal bakoitzari errekarua jartzeko (edo onartuta zuten kasuetan aplikatzeko) aukera zabaldu zitzaion. Modu honetara, erregelamendu bitartez etxebizitza hutsaren kontzeptua zehazteak eman dituen arazoak gainditu dira azkenean.

Zilegi ez ezik, beharrezko ere bada inoren etxebizitza ez den higiezin bat daukanari errekarua bat eskatzea; alde batetik, tributu sistema justuago baten baitan, eta bestalde, aipatu berri dugun etxebizitza politiken osagarri eta izaera fiskala duen neurri bezala. Honela, beste pausu bat ematen da ahalik eta etxebizitza gehien ohiko bizileku izateko, eskaintza handituz gero, prezioak ere doituko direlakoan, eta hortaz, alokairu eta salmenta merkatuaren hedatzearekin gaitasun ekonomiko baxuena eta etxebizitza eskuratzeko arazo gehiago dutenen mesedetan egingo dena.

Beste helburu bat ere badu errekarua honek: edozein administraziok egikaritu behar dituen ikuskapen eta kontrol funtzioa sendotzea, batez ere egoitzarekin zerikusi duten neurrien eraginkortasun eta efizientzia bilatuz. Esaterako, Ogasunean aitortzen ez diren errenten azaleratzea (alokairuak), diru laguntzatan iruzurrak, e.a.

Ondorioz, esan dezakegu errekarua honek hiru helburu bilatzen dituela:

- Gastu publikoen finantziazioan gaitasun ekonomiko handiago dutenen ekarpen handiago bat lortzea, zergabilketa ekitatibo eta progresiboago baten bidean. Hartara, Udalek baliabide gehiago eskuratuko dituzte beren kompetentzi eta ardurak garatzeko, zeinak herritar guztien mesedetan izango diren. Ez dugu ahaztu behar etxebizitza zerbitzuen autokontsumoagatik ere bigarren edo hortik gorako etxebizitzan jabeak ere zeharka onuradun izan daitezkeela, bi kontzeptu hauen zuzeneko erlazioagatik.
- Hutsak dauden higiezin merkaturatzea etxebizitza duin bat izateko eskubidearen baitan, merkaturatutako etxebizitza kopurua handituz eta ondorioz, alokairuzko merkatua sustatuz. Ezin baita egon pertsonarik etxebizitza gabe, ez eta etxebizitzarik pertsonarik gabe.
- Administrazioaren ikuskapen eta kontrol funtzioan aurrera pausuak ematea, iruzurrari mugak jarri eta zerbitzu publikoak modu eraginkorrean finantzatzeko ekonomia gardenago bat lortze aldera.

⁴ Udal zergen esparruan zenbait aldaketa sartzen dituen uztailaren 4ko 4/2012 Foru Araua

3. OHZ: Ohiko bizileku ez diren etxebizitzaren gaineko erretegia

4/2012 Foru Arauaren lehen artikulua bidez OHZ 14.5 artikulua aldatu da, eta honakoa jasotzen du:

- "Ondasun higiezinak etxebizitza erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez-, udalek 100eko 150erainoko erretegia ezarri dezakete zergaren kuota likidoaren gainean. Erretegia, zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera".
- "Presuntzio egingo da etxebizitza erabilerako ondasun higiezin bat ohiko etxebizitza dela baldin eta, zergaren sortzapen egunean, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatu badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela".
- "Udalek beren ordenantza fiskaletan ezarri dezakete zer kasutan ez den aplikatuko apartatu honetan aipatzen den erretegia".

Artikulu honen irakurketatik zera azpimarra dezakegu:

- Lehenik eta behin, erretegia honen aplikazioa hautazkoa dela herrientzat, beraz, herri bakoitzak bere autonomiaren barruan erabaki lezake erretegia aplikatu edo ez
- Kuota likidoaren % 150 artekoa izan ahal dela
- Ohiko etxebizitza bezala onartua ez den etxebizitza erabilera duen higiezin orori aplikatuko zaiela, udalerriek hala onartutako kasuetan salbu.
- Ohiko etxebizitza noiz den argitzen du: zergaren sortzapen momentuan, hau da, urtarrilak 1ean, etxebizitza hortan pertsona bat edo gehiago erroldatua egon behar da. Presuntzio bat da, bai; baina gogoratu behar dugu pertsona orok bere ohiko bizilekuan izena emateko betebeharrak dagoela eta hortaz, Udal errolda egoitzari buruzko frogak kualifikatua dela, 7/1985 legeak Toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bere 16.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera, horixe baita udalerriko biztanleak jasotzen dituen administrazio erretegia, eta bertako datuak kasu bakoitzeko pertsonak udalerrian bizi direlako eta ohiko egoitza bertan dutelako frogak dira. Beraz, izen emate horren aldeko presuntzioa logikoa da.

3.1. Salbuespenak

Salbuespenak, nahiz eta zerga egitatea bete, tributua ordaintzeko betebeharra sorrarazten ez duten egintzak dira. Hau da, sortzapen unean, etxebizitza hauek ez dira inoren ohiko bizilekuak, baina hori gertatzeko arrazoi justifikatuak daudela ulertzen da.

Gipuzkoan, hainbat udalerrik jasotako salbuespen nagusiak hauek dira:


1. Udalaren edo administrazio publiko baten jabetzakoak izatea
2. Jarduera ekonomiko bat burutzen direnak izatea: ostalaritza, merkataritza eta nekazal ustiapenak
3. Alokatuta edo lagapenean daudenak, ikasleei alokatutakoak edo erakunde baten alde alokatzeko utzitakoak
4. Arrazoizko baldintza ekonomikoetan alokatzea edo saltzea eragozten duten eraikuntza nahiz ekonomia inguruabarrak dituzten ondasunak
5. Oinordekotza bidez jasotakoak, epe batekin
6. Zahar egoitzetan errolatutako pertsonak, mendekotasun aitortua duten pertsonak, epe batekin
7. Eraikitzen ari direnak edo eraiki berri direnak, epe batekin

Foru Aldundiko web orrialdean⁵ Gipuzkoako herri guztiek aplikatzen duten 2014ko Ondasun Higiezinaren elementu objektiboaren inguruko informazioa lor daiteke

3.2. Zergaren kudeaketa

Ondoko grafikoan, errenergua udal araubidean txertatu eta zergaldi oso batean burututako eginbeharrak jasotzen dira, hurrengo paragrafoetan azaltzen dena.

1. Grafikoa. Errekarguaren kudeaketa udal mailan



⁵ http://www2.gipuzkoa.net/wps/wcm/connect/102abea5-bd9e-49e3-a5da-1869747b2c0c/cuadro+resumen_2014_eu.pdf?M OD=AJPERES&CACHEID=102abea5-bd9e-49e3-a5da-1869747b2c0c

Errenergua ordenantza fiskaletan txertatzea onartu bezain laster, udal gehienek beren errolda ezberdinen homogeneizazio bat burutu behar izan zuten, erroldetan subjektu berak informazio ezberdina jasotzen baitzuen. Adibidez etxebizitza errolda katastroko irizpideekin osatua zegoen eta biztanleen errolda, beste irizpide ezberdin batekin. Hortaz, zailtasunak egon dira bi datu base hauek gurutzatzean.

Behin lan hauek eginda, udaletako zergabilketa zerbitzuak inor erroldatuta ageri ez zen etxebizitzaren zerranda osatu eta jakinarazpena bidali zitzaientzen, errenergua aplikatzea zegoekia eta egon litezkeen salbuespenen inguruko informazioa emanez, kasuan kasuko aurkeztu beharreko frogagiriak ere azalduz. Adibidez, inor erroldatu gabeko etxebizitza errentan emana izanez gero, errenerguz salbuespena eta alokairu kontratua aurkeztu behar zela jakinarazten zen.

Lan honen lehen emaitza, etxea erosi, bizitzaren jari baina biztanleen errolda eguneratu ez zuten hainbat kasu agertu zirela da eta ondorioz, udal erroldaren eguneratzea ere ekarri zuen. Eta bestalde, hasiera baten ordenantza fiskaletan aurreikusita ez zeuden hainbat salbuespen egoerarekin ere topo egitea, errealitatea oso dibertsoa baita, edozein aldaketaren aurrean gertatzen den bezala. Kasu hauei erantzuna emateko, arazo bat zegoen, ordenantza fiskalak ezin baitira aldatu eta atzeraeragintasunez aplikatu. Hala ere, bidezkoak ziren kasuetan, onartuak izan ziren gehientsuenak. 2014ko ordenantza fiskaletan salbuespen egoerak hedatu egin dira errenergua aplikatu duten udalerri gehienetan.

Kontrako jarrera eta saiheste saiakerak ere egon dira, pikareska apur bat ere bai; ohiko bizilekua zela argudiatzen zutenak, baina erroldatzen amaitzen ez zirenak, famili unitatea puskatu eta etxe ezberdinetan erroldatzen zirenak, ... askotariko kasuak, baina ordenantza fiskala aplikatuz gero errenergua zegoekienak. Adibidez, kostaldean bigarren etxebizitza bat erosi eta bertan erroldatu zirenak PFEZn kenkaria eskuratzeko asmoz, mendekotasuna laguntzen jasotzaileen bat gurasoaren etxean erroldatu zirenak, ea. Prozesua gogorra izan da, batez ere kudeatu duen departamenduko langile eta alkateentzat, azalpenak eta kasuan kasuko berezitasunak ugariak izan baitira. Baina neurriak bere ondorio positiboak izan ditu. Bigarren urte honetan kudeaketa asko erraztu da, datu baseak prest, herritarrek zer eskatu eta zein dokumentazio entregatu ere bazekitelako.

Salbuespen batzuk hobeto definitu behar izan dira, askotan errealitatea oso heterogeneoa baita. Adibidez, alokairu merkatuak mugimendu handia duenean ez da bidezko urteko egun bakar baten inguruko datua kontuan hartzea: urtarilaren 1a. Posible da higiezin bat alokatuta egon izatea urteko 11 hilabete eta jabea inkilino berri bila aritzea. Eskoriatzan horixe gertatu izan da kasu bat baino gehiagotan. 4.000 biztanleko herria izan arren, Unibertsitatea dago herrian eta ikasle mugimendu handia, alokairuetan islatzen

dena, baina ez horrela udal erroldan. Bestalde, nor edo nor saiatu da merkatu prezioan ez den beste zenbateko batean familiar bati etxebizitza alokatzen. Honen aurrean, 2014an honela definitu da alokairuarekin zerikusia duen salbuespen egoera⁶:

Egiaztatzen denean etxebizitza, errentamenduz edo erabilera lagatzeagatik, hirugarren baten ohiko egoitza izan dela 9 hilabetez aurreko urtean eta, berriz ere, zerga sortu ondorengo hiru hilabetetan. Ez da salbuespenik egingo lagapena doan edo prezio sinbolikoan egiten denean.

Bestalde, hainbat udalerrik jasotako salbuespenak epe bati lotuta jarri dituzte, oinordekotzak edo zaharren egoitzetako kasuak bezala. Ulertzen da egoera hauek behin-behinekoak izan daitezkeela, baina beti ere epe baten barruan.

3.3. Emaitzak

2013an 51 herrik txertatu zituzten errenergua beren ordenantza fiskaletan. Hauetatik bik, Irun eta Lezok, atzera bota zuten neurria eta 49k aplikatu zuten. 2014an, aldiz, 52 herri izan dira aplikatu dutenak eta hortaz udalerrian ia % 60ak onartu du ohiko etxebizitza ez diren higieziniei errenergua aplikatzea.

4. Taula. Ohiko etxebizitza ez diren errenergua (%)

	2013	2014
%150	4	3
%100	12	14
%75	8	7
%50	22	22
%25	2	5
%10	1	1
	49	52

Iturria: Norberak egina (2014), Foru Ogasuneko datuetan oinarrituz

(http://www2.gipuzkoa.net/wps/wcm/connect/102abea5-bd9e-49e3-a5da-1869747b2c0c/cuadro+resumen_2014_eu.pdf?MOD=AJPERES&CACHEID=102abea5-bd9e-49e3-a5da-1869747b2c0c).

⁶ Eskoriatzako Udala: Ordenantza fiskalak, 2014, In <http://eskoriatza.net/udala/araudia/ordenantza-fiskalak/>

2014an gehienbat, % 50eko erreklarguak eta % 100ekoak aplikatu dira, eta batez beste % 70koa izan da. Gipuzkoako udalek 16.633 etxebizitzari aplikatu diote erreklargua eta kontzeptu honengatik zerga-bilketa 2014an 3.459.654,98 €tako izan da. Neurria beraz, etxebizitza kopuru garrantzitsuari aplikatu zaio.

Ordaindu beharreko erreklargua, batez beste, 207 eurotako izan da. Beraz, kontuan izanda, hutsa mantentzen duten askok, edo ahalmen ekonomiko altuago bat erakusten dutela, edota higiezina inbertsio bezala mantentzen dutela, kopuruz, ez da gehiegizkoa. Alokairu bidez hilabete batean lor daitekeena erreklarguaren bikoitza edo hirukoitza izan daitekeela kontuan izanik gainera.

Emitzen analisia zehatzago egiteko bi herri hartu ditut oinarritzat. Alde batetik, barnealdeko herri bat Eskoriatza eta bestetik kostaldeko herri bat Orio. Datu aipagarrienak hauek dira:

- Eskoriatzan 1.902 etxebizitza familiarretatik 2013an 347n (% 18,24ean) inor ez zegoen erroldatuta eta hortaz, ohikoak ez diren etxebizitzatzat hartu dira. Salbuespen eskaera eta erreklamazioa fase pasa ondoren, erreklargua 272 etxebizitzari aplikatu zitzairen. Datu benetan altua. 2014ean, aldiz, inor erroldatu gabe mantentzen zen kopurua 296ra (% 15,56ra) jaitsi da eta horietatik, 231ri aplikatu zaio erreklargua. Jaitsiera honen arrazoi nagusiak bi dira: errolda mugimendua (egiazkoa edo ez) eta alokairu berriak, gehienbat. Urte honetan erreklamazio kopurua izugarri jaitsi da, salbuespen eskaerak ez bezala; eta uste da ordenantzatan salbuespenak hobekiago jasotzearen ondorio izan direla⁷.
- Orioko kasua ere oso beretsua da. 2013an erreklamazio ugari izan zituzten, batez ere hauek, uda denboraldirako etxebizitzak direla argudiatzen dituztenek edo beste onura fiskal batzuk ez galtzearen erroldatuta ez daudeneke jarritakoak. Biei ala biei, erreklargua zegokien eta hala, etxebizitza familiar guztiei salbuetsitako kasuak kendu ondoren, hauen % 12 eta %10ri aplikatu zaizkie 2013 eta 2014ean, hurrenez hurren. 2014an kasuak jaitsiera izan dute, nabarmen, eta honen arrazoiak erroldan aldaketak, alokairu edo salmentara bideratu dituzten kasu dezente eta maizterrak alokairuan zeuden pertsonen erroldatutara behartu dituztela izan dira.

Ondorioz, esan dezakegu bi herri hauetan merkaturatutako etxebizitza kopurua igo egin dela, nahiz eta jaitsiera efektu horretatik errolda mugimenduak kendu behar ditugun. Erroldaren desitxuratzeara arazo bat izan liteke, konpondu beharrekoa. Bestalde, aztertzeke dago aurkeztutako alokairu kontratuak Ogasunean ere aurkezten diren eta beraz, hirugarren helburu hori ere betetzen ari den. Ezin kuantifika daiteke aurretik beltzean egindako alokairu kontratatuen azaleratzean izan duen eragina, baina ziur asko

⁷ Artikulua egiterako momentuan zerga honen erreklamazio epea oraindik ere amaitu gabe zegoen eta ondorioz, zergabilketa amaitu gabe. Hortaz, datuak aldaketak jasan ditzakete eta ez dira definitiboak.

neurri honek iruzurra gutxitzen lagundu duela. Beraz, orokorrean erreargua sortarazi zituen arrazoiei erantzuten ari dela esan dezakegu.

3.4. Beste esperientzia batzuk eta ondorioak:

Herri batzuek nahiz eta 2013ko ordenantzatan erreargua sartzea onartu atzera egin dute eta ez dabilta aplikatzen, Irun edo Lezo kasu. Ez dakigu hau egitearen arrazoi zehatza, baina lehen aipatu bezala, lehengo definizioak sortzen dituen inseguritate juridikoa gaindituta geratu da, araudia argia da eta ohikoa ez den etxebizitzaren gainean aplikatu behar da erreargua. Honek esan nahi du udalerrri guztietara zabaldu beharko litzatekeela neurri hau? Zalantzak dauzkagu, herri bakoitzaren izaera eta etxe hutsen problematika aztertu behar baita. Adibidez, erreargua beste probintzi batzuetara hedatzeak, udalerriek dituzten helburuekin kontrajarriak egon daitezke. Araba edo Nafarroan esaterako, despopulatze arazoak dituztenetan ezartzeak ez luke zentzurik edukiko. Baina orokorrean eta kasu hauek salbu, hedatzeko neurri apropos bezala ulertzen dugu.

Badira herri batzuk 2013tik 2014ra portzentaje aldatu dutenak. Elgetako kasuan errearguaren portzentajea %150etik %100era jaitsi dute 2014an. Zein izan beharko litzateke zerga kuotari aplikatu beharreko ehuneko aproposena? Uste dugu portzentajea finkatzea herri bakoitzari dagokiola bere autonomiaren barruan eta ez litzatekeela egoki izango guztietan %150ekoa izatea. Uler daiteke herrian etxebizitza eskuratzeko zailtasun eta udalaren egoera ekonomikoaren arabera izan daitekeela. Kontrako kasua da, aldiz, Zarautz. Zarautzarrek herrian bertan etxebizitza bat eskuratzeko dituzten zailtasunez jakitun (orain gutxi publikatutako artikulu batean Euskal Herrian eta Estatu espainoleko mailan etxebizitza metro karratu altuena zuen udalerrria zen⁸) eta Getarian edota Orion etxebizitza eskuratu beharrean aurkitu dira gazte asko. Hortaz, Zarautzek errearguaren eraginkortasunean sinetsi eta erreargua %100etik %150era igo du.

Donostia beste kasu berezi bat da, salbuespenetan errearguaren izaera edo helburua mugatu baitu, eta gure ustetan errearguak bilatzen dituen helburuak partzialki betetzen ditu, bigarren edo hortik gorako etxebizitzak ohiko bizileku ez direnean erreargua aplikatu behar baitzaie, justizi soziala eta zerga sistema ekitatibo eta progresiboago baten izenean. Donostiak, aldiz, udaldiko bizileku direnak, ohikoak ez hortaz, salbuesita utzi baitituzte. Bere ordenantza fiskaletan, ondokoa jasotzen du⁹:

⁸ El Confidencial: http://www.elconfidencialautonomico.com/estado_autonomico/Rioja-Castilla-La-Mancha-Aragon-estallido_0_2319967981.html

⁹ Donostiako Udala: Ordenantza fiskalak, 2014, In <https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2013/12/19/c1311710.pdf>

Salbuespena: Udaldiko behin-behingo bizilekurako etxebizitzak. Salbuespen hau etxebizitzaren titularrak, udalerrian bizi ez arren, urtean 90 egunean behintzat erabiltzen duela egiaztatuz gero izango da. Salbuespena etxebizitza bakar baten titularra izanez gero aplikatuko da. Aldi baterako egoitza erabiltzea, berriz, uraren edo beste kontsumoren baten bidez egiaztatuta ahal izango da.

Gainontzean, lehen aipatutako albuespen guztiekin erabat ados gaude eta ordenantza fiskaletan kasu horiek txertatzea egokia da, baita horietako batzuk epealdi batera mugatzearena ere. Badaude beste albuespen batzuk ere, aurretik aipatu ez direnak, ez ditugula egoki ikusten:

- Hobariak dituztenak: OHZn existitzen diren hobariak ez dute inongo erlaziorik etxebizitzaren erabilerarekin, hutsa egotearekin eta ez litzaieke albuesi behar. Alderantziz, etxebizitzak ohiko erabilera ez izateagatik, hots, bere helburua ez betetzeagatik ez lirateke bonifikatuak egon beharko gure ustetan
- Kontsumoak dituztenak: bada udalerriren bat honako albuespena jaso duena eta gure ustetan arriskutsua izan daitekeena. Kontsumoak izateak, nahiz eta minimo bat eskatu, bigarren etxebizitza edo aitortu gabeko alokairu bati erantzun ahal dio eta ohiko etxebizitza (aitortua edo ez) ez diren heinean zergapetuak egon beharko lirateke errenergarekin.

Bergararen kasua aipagarria deritzogu oso, errenergua aplikatzeaz gain bestelako neurri batzuk hartu baitituzte etxebizitza politika eraginkor baten baitan. Ekimen hau Bergaran hutsik dauden etxebizitzak alokatzeko laguntzen programan¹⁰ jasoa dago eta honen helburua hutsik dauden etxebizitzak alokairu sozialera bultzatzea da, Bizigune eta ASAP Eusko Jaurkitzearen programen osagarri gisa. Konkreteki, etxebizitza alokairura ez bideratzeko arrazoiei so eginez, diru laguntza deialdi bat onartu du errenergutik lortutako zerga-bilketa honetara bideratuko duelarik:

- Etxebizitza alokairuan jartzeko beharrezko obrak finantzatzeko diru laguntzak
- Efizientzia energetikoaren ziurtagiria eskuratzeko diru laguntza (alokatzeko beharrezkoa)
- Aseguru prima gehigarriak kontratatzeako diru laguntza, alokairu hartzaileak egindako kalteak edota errenta ez-betetzeak estaltzen dituenak

¹⁰ Bergarako Udala: Bergaran hutsik dauden etxebizitzak alokatzeko laguntzen programa arautuko duen ordenantza, 2014 In <http://www.bergara.net/eu/node/3082>

3.5. Helegiteak eta erreklamazioak

Amaitzeko, Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan errekareru honen kontrako helegite bat baino gehiago egon da. Momentuz, erakundearen webgunean ebazpen bat jasota dago¹¹, 2013ko uztailekoa eta honek ez du aintzat hartu bertan argudiatutakoa.

Konkretuki, helegiteak hiru aspektu aipatzen ditu:

1. OHZ izaera objektiboa duen zerga erreala dela eta errekarergua eskatzea izaera subjektiboak aplikatzea dela.
2. Errekarerguaren aplikazioa diskriminatzailea eta arbitrarioa dela, presuntzio batean oinarritua.
3. Errekarerguak larriagotu egiten duela udal kargei eusten laguntzen dutenen egoera ekonomikoa.

Honen aurrean, labur esanda, ondokoa jasotzen du ebazpenak: alde batetik, auzitegiaren eginkizunen artean ez dago OHZren ezaugarri teorikoen gainean eztabaidatzea, baina dena den, aipatzen du, zerga egitatearen eta zerga oinarriaren zehaztapenean ez dela elementu subjektiborik kontuan hartzen; eta horietan ez dela aldaketarik egin. Horrek ez du esan nahi, salbuespen, hobari edo errekarerguak aplikatzeko unean zertzelada subjektiborik kontuan hartu ezin denik, ematen baita, adibidez, zerga honetan famili ugariei egin daitekeen hobarian.

Bestalde, aipatutako errekarerguaren oinarrian presuntzio bat dagoela, alegia, udal erroldan izena emanda egon behar dela. Ebazpenak dio 12/1989 Foru Arauaren 14.5 artikulua transposizioa egiten duela ordenantzak, presuntzioa jasoaz eta 7/1985 legeak, Toki Araubidearen oinarriak arautzekoak, bere 16.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera udal errolda egoitzari buruzko frogua kualifikatua dela dio. Beraz, izen ematea horren aldeko presuntzioa logikoa dela edota frogatzeko beste modurik erabiliko balitz, berekin ekarri beharko lukeela udal erroldan honen izen ematea.

Azkenik, auzitegiak ez duela eskumenik zergaren subjektu pasiboen arteko zerga kargaren banaketari buruzko kontsiderazio ekonomikoa baloratzeko. Gure ustetan, aldiz, etxebizitza aberastasunaren adierazle da eta bat baino gehiago duenak errazago egin ahal dio frente gastu publikoaren finantziario altuago bati.

Ondorioz, errekareru hau ordenantza fiskaletan segurtasun juridiko osoarekin sar daiteke eta ez dago inolako zalantzarik bere aplikazioa foru arauetan jasotakoaren isla dela. Badira beste helegite batzuk, baita Arartekoarengana iritsi diren kasu batzuk ere, baina hauek salbuespenen ingurukoak dira eta kasuz kasu aztertu beharko lirake.

¹¹ Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboa, 2014, In <http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/teaf>

4. Ondorioak

Aberastasunaren tributazioa jasota dago zerga lokaletan, baina ekitate eta progresibitatearen aldetik oraindik ere badute garatzerik eta erreklama, hau bilatzen duten neurrietako bat da. Konkreteki, OHZ progresiboago bat lor daitekeela uste dugu, balio katastrala handitzen doan heinean karga tasa altuago bat aplikatzean datzana, proportzionaltasuna apurtuz. Ekitatea oinarri, aberastasunaren ikuspuntutik egokiago litzateke, baina sakonago aztertu beharko litzatekeen gaia da. Hala ere, ohiko bizileku ez diren etxebizitzak aberastasun gehigarri baten adierazle garbia direla esan dezakegu eta hortaz, "zamatua" egon behar dute, ez soilik hutsak dauden etxebizitzak.

Ohiko bizileku ez diren etxebizitzak eta hauek eskuratzeko herritarrek dituzten arazoak kontuan hartuz, politika integralagoak eta neurri osagarriak hartzea ezinbestekoa da. Zentzu honetan Eusko Jaurlaritzak ere hartu nahi du neurriren bat, izan ere, etxebizitza berrietarako lurzoruak mugatu nahi ditu, hauen kalkuluan, adibidez herrian existitzen diren higiezin hutsen kopurua kontuan hartu beharko delarik. Hala ere, neurri xumeak dira. European badaude beste esperientzia batzuk etxebizitzaren desjabetze arte irits daitezkeenak. Bruselan, etxebizitza hutsek 9.000 eurotik gorako isunak izan ditzakete eta ordaindu ezean Udalak har dezake etxea alokairura bideratzeko. Euskal Herrian ohiko erabilera ez duten etxebizitza kopuru altuari so eginez, neurri ausartagoak abian jarri behar dira, etxebizitza izatea eskubidea dela sinetsi eta horretarako etxebizitza hutsen problematikari taxuz heldu nahi bazaio.

Horietako bat da Foru Aldundiak Gipuzkoako udalei ireki dien erreklama aplikatzeko bidea eta erreklamaren aplikazioaren lehen urteak pasata, finkatutako helburuak betetzen ari dela esan dezakegu, hau da, etxebizitza hutsak merkaturatzea; gehiago dutenei zerga karga altuago bat aplikatzea eta ikusapena errazteko informazio biltzea. Gaur egun, erreklama 52 udalerritan aplikatzen ari da eta etxebizitza kopuru garrantzitsuari aplikatu zaio, batez beste, 207 eurokoa izan delarik eta zergabilketa 3 milioi t'erditik gertu. 2014an salbuespen kasuak hobekiago jasota daude ordenantzatan eta honen kudeaketa asko erraztu da. Beraz, segurtasun juridiko osoa du honen aplikazioak eta beste herrialde batzuetara hedatu beharko litzateke, kasuan kasuko herriaren izaerak kontuan izanda portzentaje eta salbuespenak ezartzeko garaian.

Ohikoak ez diren etxebizitzaren gaineko erreklama hasierako ibilbidea bete ondoren, irudi honek jarritako helburuak betetzen ari dela eta etorkizuna duela ondorioztatu dezakegu.